JUAN LUIS ZABALA

Galdu arte

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1996 Juan Luis Zabala
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1996ko iraila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

–I–

Ilun, isil, uzkur, izu. Hala diote *Interviú* aldizkarikoek. Neuregandik jaso dute gainera Xeperen deskripzio hori, neuk banan-banan horrelaxe esandakoak baitira hitzok, gutxi gora-behera: *«Oscuro, callado, tímido, un poco arisco. Eso es: un poco arisco.»* Haren zaletasunik handienak punk musika eta era guztietako mamorro eta narraztiak zirela diote geroxeago, eta egia da hori ere. Ez dago gezurrik. Oso arraroa iruditu zait dena ordea. Ahoz esandako egia xumea xede maltzurreko gezur bihurtu balitz bezala inprimaturik agertzean. Izan ere, ilun, isil, uzkur eta izua zen Xepe, baina ez hori bakarrik, beste gauza asko ere bai. Bizitzari behin eta berriz aurre egin eta bizitzari behin eta berriz gaina hartzeko balio zuen barne-egoskorkeria indartsua zuen, esate baterako. Hark barru-barruan sarturik zuen bizimin beltz ezkutu baina indartsu hura misterio benetan liluragarria zen. Ez naiz ondo ari baina. Oso zaila da hitzez azaltzea, eta nik behintzat ez nuen *Interviú*-koei hori behar bezala azaltzen as-

matu. Ezagutu egin behar zen hura, eta hori egiteko ez zegoen harekin nolanahi jokatzerik, kontu handiz jokatuta ere ez zen-eta batere erraza. Niretzat lehengusu bat eta adiskide bat baino gehiago zen Xepe, askoz ere gehiago, eta *Interviú*-n irakurri dudanak ez du ezer jasotzen, dena egia izan arren dena gezurra da aldi berean, ez du ezertarako balio. Ez dute arrastorik ere nor zen Xepe, eta axola ere ez zaie axola handirik izango, noski.

Eskerrak, hala ere, ez diedala Santa Engraziakoa kontatu! Akabo bestela! Orduantxe bai izorratuko genuela Xepe benetan, edo Xeperen oroitzapena. Ez dut pentsatu ere egin nahi zer idatziko zuten gibelandi horiek.

Xeperen arreba Ines ezkondu zen egunean izan zen Santa Engraziako gertakari hura, 1983ko udako egun bero batean. Hemezortzi urte zituen orduan Xepek, neuk bezala; hemezortzi urte eta, neuk bezala eta adin horretan dagoen edonork bezala, nahasketa handia buruan, bere buru ilun, isil, uzkur eta izuan. Emaztegaia-

ren lehengusu nintzenez, ni ere izan nintzen eztei haietan. Lehengusuak izan arren, Xepek eta biok oso azaletik ezagutzen genuen elkar artean ere, ez baikinen auzune berekoak, eta ezta eskola berean ibiliak ere: Floreagako eskolan ikasia zen hura, umeak jipoitzen gupidagabe izateko fama zuten fraile merzedarioekin (*merzenarioekin*, haiek gertutik ezagutu zituztenen hitzetan esateko), eta ni, aldiz, Eskola Nazionaletan (Nazional Espainiarretan, jakina). Nolanahi ere, nahiz eta elkar ez oso ondo ezagutu, egun hartan gurea ez zen festa batean galduta geunden biok, eta horrek elkarrengana hurbiltzera bultzatu gintuen ezinbestean. Ez genuen asko hitz egin elkarrekin baina, isiltasunean bildurikoa bazen ere, babesa eman genion batak besteari.

Dotore jantziarazi zuten Xepe etxekoek egun hartan, alkandora zuri berri batekin eta pintzadun galtzekin, bakeroak baina pintzadunak; eta beste inoiz ikusi ez diodan janzkia ere bai: zapata pare bat. Hasiera-hasieratik bakarrik eta galduta sentitu zen alaitasun eta algara errazeko festa handi hartan, arrotz senitartekoen jaialdi nardagarrian. Adin guztietako jendea dotore jan-

tzita, zermoduzka eta zorionka elkarri, irribarrea beti ezpainetan, festa hartan parte hartzeko eskubidea izateko ziurtagiri ezinbestekoa balitz bezala. Jan, edan, barre egin algaraka, karameloa baino likatsuagoko talde horteroaren musika melengaren konpasean dantza egin, dena irri, dena ezti, dena zorion zuri. Zer egiten zuen Xepek han? Zer eskubide zuten bere senitartekoek Xepe bere izaerarentzat guztiz kaltegarri eta arrisku benetan handikoa zen festa hartara joatera derrigortzeko?

Egoera anker hari Anjel Marik eman zion erematea, Xeperen anaiak, bazkalostean, kafearen orduan. Xeperen ondoan eserita nengoen ni, festa zentzugabe hartako bi arrotz bakartiok elkarrengana bildu baikinen bazkalordu eta bazkalondo luzeen mehatxuari aurre egiteko, nor bere bakardadean bakar sentitzeari utzi gabe. Gure aurrean Anjel Mari beste lehengusu, koinatu eta bestelako ahaide batzuekin berriketan ari zen, oso animatuta. Mutilak ziren denak, gu baino urte batzuk zaharragoak, 25 urtetik 30era bitartekoak gutxi gora-behera, eta hizketa gaia, berriz, neska kontuak zituzten. Alkoholak pixka bat

erasanda zeuden guztiak ere ordurako eta algaraka mintzatzen ziren, elkarri txanda eman nahi gabe, nor baino nor oilarrago.

– Honek, berriz, ia hemeretzi urte zauzkak eta ez ziok oraindik neska bati gerririk ere ikutu –bota zuen Anjel Marik algara batean, hatz erakuslearekin Xepe seinalatuz–. Ez dik nire anaia ematen. Lotsa eta dena ematen zidak. Marikoia ote den pentsatzen hasita nagok.

Xepek ez zuen gehiegizko larridurarik erakutsi. Irribarre bortxatua ezpaineratu eta besoak astinduz anaiari bakean uzteko adierazi nahi zion keinu traketsa egin zuen, anaiak esana broma hutsa bailitzen, garrantzi handirik gabekoa. Barrutik, ordea, min handia egin zion anaiaren komentarioak. Ezteietako giro itogarriak bere baitako sumendian pilatua zuen laba guztiak gainezka egin zuen anaiaren ateraldi baldarraren ondoren. Ez kolpetik baina, ezarian-ezarian baizik.

Xepek ez zuen inor bere barrenean gertatzen zenaz konturatzerik nahi izan. Tarte bat utzi zuen pasatzen, eta neu ere ez nintzen ohartu aldegin zuenean. Geroago jakingo nuen nola sen-

titu zen eta zer egin zuen Xepek egun hartan. Hurrengo urtean kontatu zidan, zortzi edo bederatzi hilabeteren buruan, jada elkar hobeto ezagutu eta elkarren adiskide min egin ginenean. Benetan harrituta utzi ninduen, zur eta lur, Xepek bere arrebaren eztei eguneko arratsaldean zer egin zuen jakiteak.

Etxera jo zuzenean, arropa deseroso haien ordez zapatilak, kirol-galtza motzak eta nikia jantzi eta bere motor txikia hartu zuen, batetik bestera mugitzeko maiz erabili ohi zuen 49 zentimetro kubikoko Mobylette apal horietako bat, kolore gorrikoa. Hobeto sentitu zen berehala. Ezteietako giroak barruan utzi zion ezinegonaren zama arintzen hasi zitzaion. Azkoititik Azpeitira eta Azpeititik Erdoiztarako bidera jo zuen. Herri kaskotik urrunduz paraje gero eta bakartiagoetan barneratu ahala, arin eta askeago sentitu zen, bere desoseguen iturburu ziren oroitzapen eta arazoak oro atzean uzten ariko balitz bezala. Erdoiztarantz jarraitu barik Aizarnara doan bidea hartu eta Santa Engraziako baseliza txikirantz abiatzen den mendi-bideskaren hasieraraino heldu

zen. Motorra han utzi eta oinez ekin zion bideskan gora.

Arratsaldeko bost eta erdiak pasatxo izango ziren Santa Engraziako baselizak burutzen duen tontorrerantz abiatu zenean. Bero zegoen makularik gabeko zeru urdinaren azpian. Gorputz barneraino sarturik, ezteietako giroak utzitako ezinegonaren azken aztarnak erretzen zizkion eguzkiaren indar garbiak; desoseguaren eta barne-minaren sumenditik irtendako laba urtzen ari zitzaion bero sarkor haren indarrez. Guztiz arin eta libre sentitu zen bakardade handi, eder eta garbi hartan. Bere buruaren jabe. Izerditzen hasia zitzaion nikia erantzi eta eskuetan eraman zuen baselizarako dagoen bide laburrean gora. Pixkanaka-pixkanaka, ia-ia oharkabean, bakardadeak, beroak eta biluztasunak bere grina sexuala kilikatu zuten.

Gora heldu zenean ez zegoen inor ez baselizan eta ez inguruetan. Santa Engraziako baselizaren ataria inguruko mendietara begiratzeko terraza aparta da, bista zabalekoa. Kiroletako galtzak, berriz, aise eranzteko moduko janzkia. Pixa egiteko zakila galtza barrutik atera barik

galtzak jaitsi egin zituen Xepek, inguruan zituen mendi eta paraje haiei guztiei bere gorputz osoa erakusteko irrika kontrolagaitz batek bultzaturik. Pixa egin bitartean, pixkanaka jiratu eta alde guztietara jarri zituen ikusgai bere gorputzaren atalak oro. Pixa egin ondoren, galtzak oin artetik askatu, zapatilak ere erantzi eta guztiz larrugorritan geratu zen, begiak itxita, besoak lau haizeetara zabalduta eta bere gorputza poliki-poliki jiratuz. Zakila bere kasa gogortzen eta zutitzen ari zitzaiola sentitu zuen, eskuen ukiturik gabe. Irrika erotiko zorabiagarri batek bahitu zion borondatea, «munduarekin narrutan egiteko» (hala zioen egun hartakoa kontatu zidanean) premia esplikagaitz batek.

Hala ere, larrugogo zoro hark ezkerreko eskuarekin –ezkerra baitzen– zakilari heltzera bultzatu zuenean, inork ikusiko ote zuen beldurrez edo, baseliza barrura jo zuen Xepek, nikia, galtzak eta zapatilak eskuineko eskuarekin hartuta. Barruan eme baten irudiarekin egin zuen topo Xeperen grina sutsuak: Santa Engraziako Ama Birjina. Hari begira jarraitu zuen zakil zutitu eta gogortua astintzen. Bera ere harrituta zegoen,

ez zekien oso ondo nondik atera zezakeen aurrera jarraitzeko ausardia, baina guztiz ezinezkoa zen hasitako bidean atzera egitea. Gero eta handiagoa zen Xeperen plazerra, gero eta bortitzagoak ziren Xeperen eskuak zakilari eragiten zizkion astinaldiak, gero eta urduriago bihurritzen zen Xeperen gorputz osoa, harik eta azkenean mugimendu haiek isuri oldarkor eta atsegin batekin amaitu ziren arte. Azken unean, zakil muturretik isuritako hazia aldare gainera eta aldare gaineko loreetara bideratzen saiatu zen.

Bat-batean, artean guztiz bere onera etorri gabe zelarik, kate-hots trakets batek asaldatu zuen. Taupada larrietan azkartu zitzaion bihotza. Ondoren, sei kanpai hots makal entzun zituen: baselizako kanpai mekanikoa seiak jotzen. Azken kanpai hotsa entzun orduko nikia, galtzak eta are zapatilak ere jantziak zituen, baina bihotzak taupaka larrian jarraitzen zuen. Baselizatik irten, inguruetara begiratu eta ez zuen inor ikusi, baina hala ere korrika ekin zion beheraka, mendizaleren batek goraino igo eta berak baseliza barruan utzitako arrastoak ikusiko ote zituen beldur. Ez zuen inor ikusi errepiderainoko bidean

baina motorra hartu eta etxerako bideari ekin zion arte ez zen erabat salbu sentitu.

Zortzi edo bederatzi bat hilabete geroago, Atraskuko barran nengoen ni, zerbitzari lanetan, bezero askorik ez zegoenez Xeperekin berriketan, hark bere abentura sexual ezohiko eta heterodoxo hura kontatu zidanean. Adiskide minak ginen ordurako eta maiz antzean hitz egiten genuen biok gisa hartan, Atraskuko barraren alde banatan, bezero hura, zerbitzari ni. Ezin izango dut sekula ahaztu egun hartako gure solasaldia, hain utzi ninduen liluratuta Xeperen kontaketak. Nahiz eta ia urtebete pasea izan ordurako, gogoan tinko iltzatua zuen artean ere arrebaren eztei eguneko bere jokabide aitorgaitzaren oroitzapena. Hartaz hitz egitean ezagun zuen gertakaria bere baitan bizi-bizirik zuela. Bera ere harrituta eta ezin ulertuta zegoen. Txikitandik eman diguten heziketa erlijioso eta errepresiboaren aurkako bat-bateko ateraldia izango zela esan nion nik. Baietz erantzun zidan, bazitekeela, baina horretaz oso ziur ez zegoela edota horrek axola

handirik ez ziola adierazten zuen keinua eginez. Hala izango zela beharbada baina hala ere, kontuak kontu, arratsalde hark indar misteriotsu berezia zuela beretzat.

– Eta ba al dakik gauza bat, Niko? Egia esateko, Santa Engrazian egin nuenaz harro sentitzen nauk, oso harro, benetan –esan zidan irribarre eginez, garagardoari trago luzea jo aurretik.

–II–

Nahiz eta Santa Engraziako gertakaria bezain kontu bitxi eta pertsonala ez izan, Azkoitiko lehendabiziko gaztetxearen okupazioa ere oso une garrantzitsua izan zen Xeperen bizitzan, gertuago edo urrunxeago gaztetxearen inguruan ibili ginen gazte guztiontzat bezala; are gehiago: herriko gazte guztiontzat bezala. Aro berria markatu zuen gure herriko gazteriaren historian. Santa Engraziako arratsalde hura baino hilabete batzuk geroago izan zen, 1984ko otsailean.

Gaztetxearen okupazioaren aurreko bileretako batzuk gure tabernan egin ziren, Atraskuan, mostradore aurreko zurezko mahai karratuetako baten inguruan. Izan ere, koadrilan bilduta tabernatik tabernara dabiltzan txikiteroen zirkuituko derrigorrezko pausaleku izateari inoiz ere utzi gabe, Atraskua herriko gazterik marjinal, errebelde eta punkienen habia izan baita, bai behintzat gure aitak –gurpil-aulkira lotu zuen hezurretako gaitzaren erruz– erretiroa hartu eta tabernaren martxa lau neba-arrebok hartu genuene-

tik. *Arratsaldeonek* –gure anaia Paulok asmatu zuen hitz hau txikiteroak izendatzeko, arratsaldero tabernara sartu orduko egin ohi duten diosalean oinarriturik– betidanik izan dute Atraskua beren zirkuituan, eta pixkanaka-pixkanaka ohitu egin dira herriko gazte jenderik ganberro eta subertsiboenarekin batera egoten, elkarbizitzen. Jakina, jende mota bakoitzak bere ordutegiak ditu, eta baita bereagoa duen espazio fisiko berezia ere tabernaren barruan (barraren ezkerraldeko bazterrean bildu ohi dira beti gazteak eta bestalderako joera dute, aldiz, arratsaldeonek), baina askotan ikusten ditut bateko zein bestekoak barra aurrean, armonia ederrean.

Antijos, Xingular, Urrategi, Esther, Leon, Pipi... Xepe eta nire adin berberekoak edo bertsukoak –1963, 1964 edo 1965ean jaioak denak ere– ziren denborarekin gaztetxearen mobida ekarriko zuten Atraskuko lehen bilkura haietan parte hartzen zuten neska-mutilak. Batzuetan izaten zuten adiskide eta gogaide nagusiagorik ere, hogeita hamar urteetatik oso urrun ere ez zeudenak, EMKko *txinoren* bat edo beste, LKIko *trosko* pare bat... Lehendabiziko bilerak 1983ko

urtarrilean izan ziren, okupazioa baino askoz lehenago beraz, eta hasiera hartan antimilitarismoaz eta feminismoaz mintzatu ohi ziren, zenbait liburu eta artikulu (*El Viejo Topo*, *Integral*, *Ajoblanco*, *La lletra A*, *La puça i el general* eta horrelako aldizkarietakoak batik bat) trukatuz eta abar. Gaztetxearen kontua gero etorriko zen, elkarrekin bildu, elkarrekin egon eta ekimenak aurrera eramateko lokal baten premia zutela jabetu zirenean, eta lokal hori berentzat ezezik herriko beste gazte askorentzat ere egokia izan zitekeela: rock musikariak, langabetuak, ekologistak, presoen sostengurako taldeak...

Barran egon beharrik ez nuenean neu ere biltzen nintzen batzuetan haiekin. Ez nituen ideiak oso argi, ez antimilitarismoaz, ez feminismoaz, ezta gaztetxe baten premiaz ere, baina interes eta xarma berezia zuen niretzat mundua aldatzeko, mundua konpontzeko eta mundua jateko grina erakusten zuen neska-mutil talde hark. Azkoitian gaztetxe baten premia zegoela baiesten zuten laurehundik gora herritarren sinadura jaso ondoren Udalari gaztetxearen eskabidea egin ziotenean, alkatearekin eta zinegotzi batzuekin

hainbat bilera izan zituzten, eta haietako batean izan nintzen neu ere, gaztetxearen alde egiteko. Bilera eta negoziazioen bide horrek ez zuen, ordea, fruiturik eman, nahiz eta Udalaren ordezkariek behin eta berriro «borondate politikoa» bazutela esan.

Negoziazioekin etsi eta gaztetxea okupatzea erabaki genuen azkenik. Herri askotara zabaldu genuen deia, hainbat ekitaldi antolatu genituen –txalaparta, txaranga, kale antzerkia, asanblada, herri bazkaria eta rock jaialdia– egun hartarako eta Gipuzkoako Gazteen Eguna deitu genion 1984ko otsailaren 5eko ospakizun ezohiko hari. Sekulako arrakasta izan zen. Herri askotatik etorri zen gazte jende mordoa eta ekitaldi nagusia gaztetxe baten okupazio jendetsua izan zen. Egun benetan gogoangarria izan zen hura. Nik ez nuen, dena den, zuzenean parte hartzerik izan, tabernan lan egin ondoren sekulako sukarrarekin etxera bildu beharra izan nuelako, baina telebistaz ikusi nuen estreinakoz gaztetxea, gaueko informatiboari begira nengoela, Euskal Telebistakoak ere han izan baitziren. Lanak eman zizkidan hura guztia egia zela sinesteak.

Telebistako irudietan herriko jende asko ezagutzeko aukera izan nuen, Xepe horien artean, kameraren aurrean gelditu eta, irribarre herabez, esku ezkerreko bi hatzekin –erakuslea eta bihotza– garaipenaren zeinua eginez.

Okupazioaren biharamunean sartu nintzen ni lehenengo aldiz gaztetxean, astelehenez, Atraskuko barrako txanda amaitu eta gero. Garai batean Miserikordiako etxea izandako edifizio abandonatu eta zaharkitua zen okupatutakoa. Kanpoan *«Gaztetxea»* zioen letreroa zuen letra handiz pintatu berria. Barrutik edifizio osoa ia-ia hutsik zegoen. Garai batean Miserikordiako etxekoak izandako altzari eta traste zahar hautseztatuak baino ez ziren ikusten han barruan, zoru gainean han-hemenka nolanahi barreiatu eta ahaztuak: hautsitako aulki, mahai eta ispilu zahar-zaharrak, zarpaildutako arropak eta oihalak, koadro erlijioso hautsez estaliak, santuen figura apurtuen puskak...

Zurezko eskailera zabaletan gora egin eta bigarren solairuan zegoen okupatzaileek gaztetxe-

ko areto nagusitzat hartua zutena. Gela zabal hartako horma oker, arraildu eta koloregabetuetan letra ez oso zuzenez egindako hainbat grafiti irakurri nuen: *«Gaztetxea, gure etxea»*, *«Okupazioa»*, *«Espetxeak apurtu»*, *«Quisiera ver cien curas colgados de un farol»*...; letra larriz idatziak zeuden grafitiok, eta ‘A’ guztiak zirkulu banaren barruan sartuak zituzten. Txoko batean igeltsuzko bi figura ikusi nituen, giza-neurrikoak, telebistak bezperan emandako irudietan agertu ez zirenak: santu baten neurri naturaleko irudia zen bata, soin gainean Sex Pistols eta beste hainbat talde punkiren latorrizko txapaz jositako larruzko txamarra beltza jantzita, ahoan porro itxurako zigarro handia sarturik eta oinen azpiko oinarrian *«San Kanuto»* zioen letreroa zuela; Jesukristo gurutziltzatua zen bestea, neurri naturalekoa hura ere, buruan, ohiko arantza-koroa estaliz, euskal txapel beltza jantzita. Bestaldeko bi hormen artean, batetik bestera tenk jarriak, soka batzuk zeuden, eta soka haietatik zintzilik dozenaren bat lo-zaku.

Asanbladan bilduta zeuden barrukoak, hogei bat lagun, leiho ondoko bazter batean zirkulua

osatuz, zoruan eserita gehienak, altzari edo traste zaharren baten gainean nola edo hala kokatuta besteak. Bi txakur inguratu zitzaizkidan usnaka aretoan sartzen hasi orduko: handi eta beltza aurretik eta txiki eta ile beixekikoa haren atzetik; aurrealdeko zango ezkerra errotik moztua zuen txikiak eta errukarria zen haren ibilera herrena. Haxix usaina zegoen airean, gero eta handiagoa asanbladako zirkulura hurbildu ahala. Atraskuko bileretan parte hartu zutenekin batera, etxean ordu gutxien eta kalean ordu gehien egin ohi zuten gazteak zeuden, formal izatetik urrutien zeudenak, ezein etxekoandrek suhitzat edo ezein familia-buruk erraintzat inondik inora hartu nahiko ez lituzkeenak; hitz batez esateko: *porreroak.* Xepe eta bere baskako bi kolega zeuden han, punki itxurakoak biak: Periskopio, sudur zorrotz eta gakoduneko mutiko ihar eta luzeska, eta Mirari, neska txiki eta bizia, Xepek zuen emakumezko adiskide min eta gertuko bakarra. Asanbladako zirkuluan tokia hartzen nuen bitartean, isil-isilean agurtu ninduten ondoan nituenek, asanblada eten gabe.

Antijos zen hizketan ari zena, mutiko handi betaurreko biribilekikoa, begirada zorrotz eta tinkokoa. Hogei urte baino ez zituen arren, Bakunin eta Kropotkinen liburu ugari irakurria eta anarkista porrokatua zen Antijos, Talde Antimilitaristaren sortzaileetako bat eta gaztetxearen ideiaren sorreran ere pisu handia izandakoa. Serio ari zen, igartzen zitzaion berarentzat oso auzi garrantzitsua zela han erabakitzen ari zena, buru-belarri sartua zegoela gaztetxearen aldeko borrokan.

– Ez zaukaagu fidatzerik. Hemen segitu behar diagu oraingoz. Guk hemendik aldegin orduko segituan etorriko dituk lokala txapatzera. Hontaka edo hartaka, ahal den moduan eutsi egin behar zioagu.

– Bai, baina noiz arte honela? –mintzatu zen Leon, mutil argal eta urduria. Mantsotasun etsia zuen bere hizketaren doinu afektatu eta pasotak. Mantsotasun horrekin bat zetozen bere begi beti erdi itxiak. Latorrizko bost edo sei txapaz apaindutako larruzko txamarra punki beltza zuen soin gainean, ilea luze eta nahasia, egun batzuetako bizarra, esku batean porroa eta bes-

tean garagardo lata bat–. Okupatzerakoan bai, orduan jende mordoa. Orduan bai, denak oso enroilatuta mobidarekin, dena oso ondo, primeran, ETBko kamerak eta dena, hi!, guay del Paraguay. Bart gauean ere jende piloa egon gintuan hemen lotan. Klaro, kristoren martxa eta ijiji eta ajaja! Oso ondo. Baina gaur zenbat izango gara? Martxa honetan laster bi katu geratuko gaituk eta orduan akabo!

– Eta zer egin nahi duk ba? –oldartu zitzaion Xingular, bizi-bizi baina hala ere doinu adiskidetsua emanez bere jardunari. Urte batzuk lehenago Jarraikoa izana zen, baina bere lehengo gogaideengandik urrundu eta anarkista bihurtua zen ordurako–. Bertan behera laga dena? Ez zaukaagu beste biderik. Oraintxe duk momentua, oraintxe zagok jokoan gaztetxea eta gure mobida osoa. Bi katu geratzen bagara, bi katu, hi! Nik behintzat horrela ikusten diat.

– Nik ez zaukaat gauean hemen geratzerik –mintzatu zen urduri Pipi, ikasle on eta zintzoa izateaz gain, unibertsitatean orduantxe hasi berria, horrelakoxeko itxura zuen mutiko herabea,

burua makurtuz–. Esamina zaukaat bihar goizean eta...

– Aitzakiak alferrik dituk, Pipi –ozen moztu zion jarduna, haserre, Antijosek–. Asanbleak ez dituk horrelako esplikazioak emateko egiten. Gelditu nahi baduk gelditu hadi, eta nahi ez baduk heuk ikusi. Ez duk derrigorrezkoa. Hik bihar esamina edukiko duk eta beste batek gauean telebista ikusteko gogoa. Niri berdin zaidak, hori ez zaidak batere inporta. Gaztetxea nahi badugu, hemen egon beharra zaukaagu, hor ez zagok beste esplikaziorik.

– Ni oraintxe bertan noak zakuaren bila –esan zuen, herabe eta isil antzean baina tinko, Xepek, eta Mirari eta Periskopiori begira geratu zen.

– Ni ere hemen geratuko nauk –animatu zen Periskopio.

– Niri ez begiratu –desenkusatu zen Mirari, denak Xepe, Periskopio eta bera zeuden aldera begira zeudelako beharturik sentituta–. Etxean hona natorrela esaten badut, bertan akabatuko naitek.

Nik ere ez nuen gau hura gaztetxean pasatu. Tentatuta egon nintzen, baina ez nuen etxean eskatuko zizkidaten azalpenak emateko gogorik. Joan gabe ere, Atraskuko barran zintzo-zintzo lanean ari nintzela, egokitu zitzaidan niri ordea entzun beharra.

Asaldatuta sartu zen tabernan osaba Pedro, gure aitaren anaia eta Xeperen aita, gaueko hamar eta erdiak inguruan.

– Hi, Nikolas, hi ez haiz gure semea bezain tontoa izango, ezta? –esan zidan, beste diosalik gabe, mostradorera inguratu orduko–. Gaua gaztetxean pasatzera joan ez duk ba gizarajo hori! Mekaguen La India! Gustura joango nindukek oraintxe bertan hara mamorro zikin horri belarrondoko eder bat ematera.

Ez nion ezer esan. Ez nekien zer esan.

– Txikitoa aterako al dizut, osaba?

– Ez, ez diat ezer edan nahi. Hirekin hitz egin nahi dudalako etorri nauk hona.

– Nirekin? Zer dela eta?

– Hik gure seme horrek baino buru gehiago daukak, Nikolas, eta lagundu egin behar diok.

– Lagundu? Zertan ordea?

– Gaztetxeko kontu horiek lagatzen.

– Baina, osaba, nik ezin diot ezer esan. Berak ikusi behar du zer egiten duen bere buruarekin. Niri, gainera, ez zait gaizki iruditzen egiten ari direna.

– Hara bestea! –sumindu zen osaba Pedro–. Ez zaiala gaizki iruditzen? Baina, baina... Ba al daiteke? Zer eskubide dute etxe hori hartzeko? Ea, esplikatu iezadak hori niri. Dena libre al da ba? Sartu barrura eta hartu? Hori ez duk horrela izaten.

– Dena libre ez, osaba... –saiatu nintzen nire iritzia ematen. Osabak berehala zapuztu zidan aukera ordea.

– Dena libre ezetz? Zer lege da ba horiena hortaz? Horrelaxe, besterik gabe, joan eta hartu... Etxe hori herriarena duk, Nikolas, herriko gauza denak bezala langile denon inpuestoekin pagatuta zagok, baita hireekin ere. Eta justu inpuestorik pagatzen ez duten alfer denak juntatu eta berentzat hartu? Horretarako ez zagok eskubiderik. Hori ez zagok ametitzerik.

– Baina, osaba, lokala herriko gazte denontzat eskatu dute... –urduri jarri nintzen, alkatea-

rekin eta zinegotziekin bildu ginenekoa etorri baitzitzaidan burura. Ez ahal zuen osabak hartaz ezer jakingo! Ez nuen nire gurasoek horren berri izan zezaten nahi.

Ezin izan nuen aurrera jarraitu argudioarekin. Zaila zen, oso zaila, nire adiskideak logikaren bidez defenditzea. Han ez zuten ezertarako balio antimilitarismoaz, feminismoaz eta anarkismoaz entzunak nituen argumentu polit haiek. Nire adiskideei bezala, niri ere ezinezkoa izaten zitzaidan gurasoei gai haien inguruan ezer ganoraz azaltzea, eta Xeperen aitarekin ez zen errazago. Beste mundu-ikuspegi bat zen gure gurasoena, eta alfer samarrekoa, horrenbestez, haiei gure mundu-ikuspegitik jardutea. Zabalegia eta sakonegia zen haien eta gure arteko leizea hitz gutxi batzuekin jauzi egin eta haiengana iristerik izango genuela pentsatzeko.

Nire isiltasunaz baliatuz, osabak jarri zion amaiera eztabaidari, aholkutik ere zerbait bazuen sermoi kutsuko errieta batez.

– Kontuz ibili, Nikolas! Ez hadi gaztetxekoen alde jarri. Ez hadi lerdoa izan. Hik hori baino gehiago dakik. Ez al duk ikusten tabernari zer

kalte egiten dioten ala? Atraskua klienterik gabe lagako ditek horiek. Aditzen al duk, Nikolas? Batere klienterik gabe! Klienterik onenak galdu eta kaxkarrenak lagun egin, hondamendira daramazue taberna eta ez zarete konturatu ere egiten.

Ahaleginak eginda ere, ezin nuen asmatu une hartan zer esan. Gogoetaren bidetik jo zuen orduan osabak, arazoaren erro sakonen bila.

– Ondoegi hazi zarete zuek –esan zuen nire isiluneaz baliatuta–. Hori duk gertatzen dena. Geuk kulpak! Dena eskura eman dizuegu eta orain ez duzue hori estimatzen. Mekaguen La India! Zuen aita aulki madarikatu horri lotuta ez balego, beste martxa bat izango zian Atraskuak, beste martxa bat izango zuenez, bai horixe!

Garai hartan Ertzaintza sortu berria zen, baina inguru hauetara zabaldu gabea artean ere. Herriko gazteei aurre egiteko Guardia Zibilari deitzea, berriz, politikoki garestiegi zen Udalarentzat, *txakurrak* etsaitzat baitzituen herri osoak. Udaltzaingoa zen, horrenbestez, Udalak eskueran zuen Polizia bakarra, eta Polizia horrexekin

ekin zion gaztetxearen aurka, asteartean bertan, okupaziotik bi egunera. Roberto sarjentu handikotea bost menpekorekin batera agertu zen gaztetxean eguerdian, porrak esku artean astinduz guztiak, alkateak emandako agindua betetzeko asmoz: okupatzaileak kanpora ateratzea.

Nik barran egon beharra nuen, bakarrik gainera, eta ez nuen taberna itxi eta bertara joaterik izan, baina aurki heldu zen Atraskura gaztetxean gertatutakoaren berri.

Jende gutxi zegoen unea aprobetxatu zuten udaltzainek erasoa errazagoa izan zedin. Hala ere, hamarren bat lagunekin egin omen zuten topo gaztetxe barruan. Han ziren gaztetxean lehen aldiz sartu nintzenean zeuden bi txakurrak ere: Beltza, polizi-zakur beltz handia, eta Tras, sagutxakur beix txiki herrena.

– Bueno, oso ondo egon duk, oso polita izan duk, baina bukatu duk ipuin hau –esan zuen doinu mehatxagarriz Roberto sarjentuak, hankak zabal-zabal eginda zituela–. Orain denak kanpora!

– Hemendik kanpora irten behar duten bakarrak zuek zarete –erantzun zion zakar Antijosek–. Gu hementxe geratuko gaituk.

– Etxe hau ez duk zuena –doinu paternalista itzuri zitzaion Roberto sarjentuari–. Ez daukazue gogoa eman dizuela-eta etxea zuentzat hartzerik.

– Etxe hau herriarena duk eta Aiuntamentuak sekuestratuta zeukaan –aurrea hartu zion oraingoan Xingularrek Antijosi–, alferrik galtzen lagata. Guk geurea dena hartu besterik ez diagu egin.

– Zuek al zarete ba herriko gazte denak?

– Ez. Gu gaituk hemen gaudenak –oihuka mintzo zen Antijos, begirada tinko eta zorrotz–, baina lokala herriko gazte denontzat hartu diagu, eta herriko gazteok inoren agindurik gabe antolatuko diagu etxe hau, geuk nahi dugun eran, ea behingoz zeozertarako askatasuna dagoen herri santu eta fatxa honetan.

Sarjentua ez zegoen eztabaida filosofikoetarako. Leon eta Periskopiorengana jo eta ate aldera bultzaka hasi zitzaien, tarteka porrarekin mehatxu eginez.

– Benga, kanpora, kanpora! Ez gaituk hona zuekin berriketan jardutera etorri. Zuek hemendik ateratzeko agindua zaukaat. Kanpora! Agudo!

Gazteetako batzuek amore eman eta kanporako bidea hartu zuten, isilean, atzera begira, ea geratzen ziren lagunek zer egiten zuten. Xeperengana jo zuen sarjentuak. Eskuarekin besoa oratu nahi izan zionean, Xepek besoa gorantz altxatu zuen kolpe azkar batez, sarjentua jotzeko prest balego bezala. Oinak mugitu gabe, pauso bat atzera eman gabe, sarjentuari begira-begira geratu zitzaion. Ondoko udaltzain bat hurbildu zen sarjentuari laguntzera. Bion artean heldu eta eskaileretan behera arrastaka eraman behar izan zuten Xepe kanpora, Beltza eta Tras atzetik zaunkaka zituztela. Beste gazte batzuek ere kanporako bidea hartu zuten orduan, lo-zakua eskuetan zutela. Urrategi, Xingular eta Antijos zoru gainean eseri eta geldi-geldi geratu ziren, harik eta, Xepe bezala, bina udaltzainen artean arrastaka kaleratu zituzten arte. Gaztetxeko ate aurrean eserita geratu ziren gazte kaleratuak, herriko hainbat tokitatik etorri berri ziren beste

hainbatekin batera, txistu eta oihu eginez udaltzainei, haiek gaztetxe barrutik lo-zakuak eta gazteek utzitako beste zenbait gauza ateratzen zituzten bitartean.

Ez ziren urruti Gasteizko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Pare bat aste pasatxo baino ez ziren falta. Udaltzainek Xepe, Xingular, Antijos eta Urrategi arrastaka kaleratu zituztenean argazkiak egin zituen Estherrek gaztetxe atarian. Errepresioaren irudi harekin kontrastean, espaloiko faroletan zintzilik, Carlos Garaikoetxea Euskal Autonomi Elkarteko lehendakariaren hauteskunde kanpainako irudi irribarretsua jaso zuten Estherren argazkiek. EAJkoa zen artean ere Garaikoetxea, eta EAJren hauteskunde haietako leloa ageri zen kartel hartako argazkiaren azpian: «*Aurrera goaz*».

– Fantasma akojonatu hostia bat besterik ez duk sarjentu harroputz hori! –esan zidan biharamun gauean Xepek, Atraskuko barran garagardo bat hartzen ari zela. Ezagun zuen ez zuela aurrenekoa.

Atraskuko barraren alde banatan izan genuen lehenengo solasaldietako bat izango zen hura. Nahiko berandu zen, goizaldeko ordu bata ez zen urruti izango. Jende gutxi zegoen tabernan. Gu bioz gain, Xeperen baskakoak –Mirari, Periskopio, Txus, Lu, Pako eta Kantxa– eta beste bi koadrila txiki edo. Aurki ixteko asmoa nuen.

– Ez daukak meritu makala, Niko –esan zidan irribarrez Periskopiok guregana hurbilduta–. Barran lan egin eta gainera honelako plastadak agoantatu behar –Xeperi besotik heldu eta hari zuzendu zitzaion gero–. Gu etxera goazak. Etorri hadi gurekin eta laga ezak lehengusua bakean.

– Hi haiz ni bakean laga behar nauena –erantzun zion Xepek, haserre plantak eginez eta besoa askatuz–. Zuek nahi duzuena egin ezazue. Ni hemen geratuko nauk, Nikorekin. Hau mutil argia duk. Honek asko zakik. Eta oso ondo entenditzen dik nik esaten diodana, ez al da hala, Niko?

– Lasai, Kopio, lasai –esan nion irribarrez Xeperen adiskideari–, gu biok lehengusuak gaituk eta elkar ondo entenditzen diagu.

– Aditu al duk hori? Gu lehengusu onak gaituk.

– Bale, bale, nahi duzuen bezala. Hor konpon! Gu bagoazak, ea lo pixkat egiten dugun.

– Bai, adio, gaiztoak izan.

Bere adiskideak Atraskutik irten ondoren lehengo gaiari heldu zion berriro ere Xepek.

– Ikusi egin behar huen zer aurpegi jarri zuen besoa altxatu eta begira-begira geratu nintzaionean. Txorrada bat izango duk baina indarra daukadala sentitu diat, ez indar fisikoa, beste indar klase bat, berezia, finagoa... beldurgarriagoa. Ez zaidak sekula ahaztuko momentu hori... Bizi-bizirik sentitu nauk... Ez zakiat nola esplikatu...

Zaila zen azaltzea, eta zaila, oso zaila, nik berak adierazi nahi zidana ondo ulertzea. Orain hobeto ulertzen ditut hitz nahasi haiek, sentsazio esplikagaitz hura... Ez zen herriko udaltzainen sarjentuari aurre egiteko ausardia izateagatik harro zegoen umemokoa. Tira, hori ere bai, pixka bat, neurri batean, baina bazegoen beste zerbait ere. Barru-barruan sentitzen zuen indar berezi hori Xeperen nortasunaren ezaugarri na-

gusietako bat zen. Baina nik artean ez nekien ezer horretaz.

Udaltzainekiko eta Udalarekiko borroka ez genuen galdutzat eman herriko gazteok lehen desalojoaren ondoren. Ederki antolatu genuen kontraerasoa bi egun geroago. Dotore benetan. Gaztetxeko ate ondoan bildu ginen gazte mordo bat, ehunetik gora, eskoletan ere bilerak egin eta lanbide heziketako ikastetxetik eta Azpeitiko batxilergoko institututik ere jende asko etorri baitzen, azpeitiar asko eta hainbat zestoar eta zumaiar ere tartean. Herrikoak, berriz, gaztetxearen inguruko denok geunden, baita Xepe ere, noski, sorrerako bileretan parte hartu ez zuen arren benetako saltsa hasia zenetik burubelarri sartuta baitzegoen mobida guztietan.

Berehala heldu ziren gaztetxe atarira Roberto sarjentua eta beste bi udaltzain, gu ate ondotik urrundu eta etxea zaintzera. Eskalatzeko joera eta erraztasuna zuten gutako bi, ordea, Xingular eta Presto, etxearen atzealdeko hormatik gora igo eta teilatutik sartuak ziren isilean

edifizio barrura. Isil-isilik atearen atzealdera inguratu ondoren, Xingularrek eta Prestok atea barrutik zabaldu zuten eta orduan udaltzainen aurretik oldarka sartu ginen bat-batean kanpoan geunden guztiok. Udaltzainak zur eta lur geratu ziren, ate ondoan, ahoa bete hortz, elkarri begira, zer egin ez zekitela. Ez zait sekula ahaztuko edifizio barruan sartu eta bigaren solairuko areto nagusirantz eskaileretan gora korrika gindoazen une hartan sentitu nuen hotzikara, asaldura, euforia erabatekoa. Nire bizitzako unerik zirraragarrienetako bat izan zen, eta halaxe izango zen seguru asko eskailera haietan gora korrika gindoazen ehunetik gora gazteetako bakoitzarentzat. Tira, La Bastille hartu zutenean bezala baina herri txiki batean. Garaipen bikaina!

–III–

Ordura artean elkar gehiegi ezagutu gabe elkar errespetatzen zuten lehengusuak ginen, baina gaztetxearen inguruko mobida martxan jarri zenean benetako adiskide egin ginen Xepe eta biok pixkanaka-pixkanaka, oharkabean. Ez ginen berdinak, ezta hurrik eman ere, baina elkar ondo ulertzen genuen. Edo, tira, nik bai behintzat hura, hark ni ez horrenbeste beharbada. Gaztetxean baino gehiago, Atraskuko barraren alde banatan izan ohi genituen solasaldietan mamitu zen bereziki gu bion arteko adiskidetasuna. Igande gauetan izaten genituen solasaldirik gehienak, gauerditik aurrera. Igandeetan gaztetxea goiz samar ixten zuten gehienetan eta Xepe Atraskura etorri ohi zen, futbolari buruzko telesaioak amaituak zirela, taberna erdi hutsik zegoenean. Askotan taberna itxi eta gero ere berriketan jarraitzen genuen, garagardoak edaten goizaldera arte, biok bakarrik gehienetan, biharamunean jaikitzeko presa handirik ez zuen adiskideren bat edo besterekin beste batzuetan.

Periskopio, Mirari, Txus, Kantxa, Lu, Pako... Beste batzuk ziren Xeperen betiko lagun minak, bere baskakoak. Haiekin elkartu ohi zen beti, garagardoak edan eta porroak erretzeko, edo aldameneko herriren bateko kontzertu punkira joateko. Baina adiskide egin eta konfiantza hartu genuenean haiei kontatzen ez zizkien gauza asko niri kontatzen zizkidan. Bihotzeko kontuak, esate baterako. Tabernariok beti izan dugu nahi izan gabe ere horrelako konfiantza girora heltzeko erraztasun berezia.

– Eta hik zer, Primo, nirekin egon beharrean ez al huke nahiago izango neska batekin geratu hemen, kanpoko atea itxita, biok bakarrik, goxogoxo? –bota zidan bat-batean Atraskuan garagardoak edanez berriketan geratu ginen lehenengo aldietako batean–. Tabernaria izanda neska asko ezagutzeko aukera eduki behar duk, ezta?

Harritu egin ninduen Xeperengandik hori entzuteak. Ordura artean ez nion sekula neska konturik edo antzekorik entzun.

– Bueno, ezagutu bai, baina horixe justu-justu, ezagutu besterik ez –erantzun nion irribarre apalez.

– Ba beste tabernariak hor ibiltzen dituk esaten neskatan egiteko ofiziorik onena zuena dela. Ordu txikietan aukera asko izaten dela, eta zuek ordu horietan argi-argi egoten zaretenez, ba...

– Ez zakiat, hi –esan nuen sorbaldak altxatuz–. Beste tabernarien kontuak izango dituk horiek, ez nireak. Atraskuan ez zaidak horrelako aukera askorik fortunatu niri behintzat.

– Niri ere ez, ez pentsa –serio eta tristeago jarri zen bat-batean–. Ez hemen, ez gaztetxean eta ez inon. Gogorra duk gure kontua. Birrak edan eta porroak erre, ematen dik besterik ez dakigula egiten, batzuek behintzat. Zaharrei kontra egiteko, Aiuntamentukoak estutzeko eta munipekin borrokan egiteko, horretarako bazaukaagu eduki beharrekoa, baina gero neska baten aurrean ez gaituk ezertako gauza izaten.

– Oso kontu diferenteak dituk, Xepe. Ez zagok konparatzerik.

– Bai, baina zergatik ez gara atrebitzen? –burua makurtu zuen etsipenez garagardo botilari begira.

– Oi, oi, Primo, zeini zer esaten atrebitu nahiko huke ba hik? –galdetu nion burlaizean.

– Hik ezagutuko duk –esan zuen burua altxatuz. Distira zerien une hartan haur batenak ziruditen Xeperen begiei.

– Seguru asko.

Berriro makurtu zuen burua garagardo botilari begira.

– Itsaso –burua altxatuz eta begi distiratsuz berriro ere, irribarre bihurria ezpain meheetan.

– Joder! Ez duk neska zatarra aukeratu.

– Hiri ere gustatzen zaik ala?

– Niri eta beste askori, Xepe, niri eta beste askori... Eta hiri zer? Betidanik gustatu izan zaik ala kolpetik enamoratu haiz?

– Bueno, gustukoa izan, betidanik izan diat gustukoa, baina gaztetxearen okupazioan bere ondoan lo egin nian... Pentsa! Bere ondoan lo egin...! Bakoitza bere zakuan sartuta, klaro... Ez genian asko hitz egin, batere ez, egia esanda,

baina elkarrengandik hain hurrean egon gintuan...

– Baina ez hion ezer esan, ezta?

– Ez. Ezinezkoa zuan. Han jende mordoa geundean... Eta bestela ere, zer esan behar nion ba? Nola? Ez nian asmatuko. Eta gainera, auskalo!, seguru Itsasorekin zeozertan hasiz gero, segituan, egun gutxitan, aspertu egingo ginela biok. Sekula ez diat oso ondo entenditu zer egiten duten bikoteek. Derrigorrez beti elkarrekin egon behar hori ez zaidak naturala iruditzen. Edozer gauza egiteko pentsatu egin behar hire neskari zer irudituko zaion... Ez zakiat...

Harrigarria zen Xepek nirekin hain azkar halako konfiantza estua hartu izana. Baina lehendik ere ohituta nengoen horrelakoetara. Askotan pentsatu izan dut neurri batean guk, tabernariok, apezen lana egiten dugula zenbaitetan, barrak aitorlekuaren antz handia ere izan dezakeela sarritan. Xeperekin ezezik beste jende askorekin ere luze eta sakon hitz egin izan dut nik barra tarteko dela, barraren babesean, eta, gainera, esango nuke gutxitan izan naizela neu solasaldien gaia bideratu duena. Entzun egin izan dut

beti hitz egin baino gehiago. Baina ez dut damurik, ez, entzuten asko gozatzen eta ikasten baita. Txikitandik nago tabernan lan egiten ohitua eta, egia esan, horretantxe sentitzen naiz beste ezertan baino eroso eta ziurrago. Traketsa naiz, guztiz desegokia, jendearekin izan beharreko harremanetan, eta ez dut inoiz asmatu barraren aurrealdean behar bezala mugitzen. Barraren atzealdean, aldiz, egoeraren jabe sentitzen naiz. Triste samarra da hau aitortzea, baina egia da: nire adiskidetasunik minenak, nire gaurik ederrenak lanean bizi izan ditut, barraren babesean beti. Gurpil-aulki baten ordez tabernako barra behar duen elbarria naizela ere pentsatu izan dut behin baino gehiagotan.

Santa Engraziakoa bezala, bere bizitzako kontu eta sekretu ugari neuri beste inori ez zizkion kontatu Xepek, Atraskuko solasaldi lasai haiek bere barruko mamuak pixka batean badarik ere paseatzera ateratzeko asmotan, nik isilean gordeko nituelako ziurtasun osoz.

Filme baterako aktoreak aukeratzeko Donostian egin zuten *casting* batera joan zeneko kontuen berri ere ez zion beste inori eman. Isilean ondo gorderik baitzuen aktore izateko amets ezkutua Xepek. Izena eman ohi zuen aktore lanetarako proba baten berri zuen bakoitzean, eta ekoiztetxeen helbideak eskuratzen saiatzen zen haietara bere argazkia eta zenbait datu igortzeko, ezertarako behar izanez gero dei ziezaioten eskatuz. Baina inori ere ez zion horretaz hitz egiten nirekin konfiantza hartzen hasi zen arte.

Aktore izan nahi hura aldarrikatu izan balu, ez zion seguru asko arrakasta handirik iragarriko inork Xeperi, neuk ere, egia esan, asmo haien berri jakitean, iragarri ez nion bezalaxe, bere itxura ez baitzen aktore batengandik normalean espero izaten dena. Xeperen aurpegia ez zen batere gozoa, batere ederra, egun eta hemen nagusi den edertasun ereduaren arabera behintzat. Argaltasun gehiegizkoaz gain, halako zakartasun ilun bat zuen haren aurpegierak, ez, ordea, batere samurtasunik gabekoa, ongi begiratuz gero. Ezpainak bezala, begiak ere txiki eta beldurtiak zituen, izuak. Bati baino gehiagori en-

tzun izan diot –gehiegi harritu gabe, egia esan– itsusia zela. Gorputza, berriz, argalegia ezezik baldarregia ere bazuen, eta haren ibilera ziurtasunik ezaren adierazpiderik ziurrena zen. Dena den, bere heterodoxian ere, indar espresibo handia zuten, nire ustez, hala Xeperen aurpegierak nola gorpuzkerak. Hala iruditzen zait niri behintzat orain. Baina beharbada ezagutu nuelako eta adiskide nuelako iruditzen zait hori. Ezin naiz objetiboa izan.

Egunkarian irakurritako iragarki baten bidez jakin zuen aktore izateko bidean jar zezakeen Donostiako *casting* haren berri Xepek. «*Buscamos actor desconocido para hacer el papel de joven rebelde*», zioen iragarkiak; aurkezten zirenen artean bat aukeratuko zutela, zenbait probaren ondoren. Goizeko zortzietako autobusa hartuta jo zuen Xepek Donostiara, loroa, kasko txikiak eta La Polla Records punk taldearen *Salve* kaset-zinta hartuta. Egun batzuk lehenago erosi berria zuen aurki beretzat kristau zintzo batentzat Biblia izango bide denaren pareko zerbait izatera iritsiko zen zorioneko zinta hura, La Polla Recordsen lehendabizikoa. Beti aldean eraman

eta non-nahi eta noiznahi entzuten zuen, ia-ia obsesio patologikoa bihurtu arte. Makina bat buelta eman zuen zinta hark Xeperen belarriak gozatuz!

Ulia muinoaren inguruko txalet batean ziren aktore hautaketarako probak. Heldu zenean gazte mordo handia ikusi zuen Xepek txaletaren atarian, hogeita hamar bat gutxi gora-behera. Iristearekin bat ohartu zen zerk bereizten zuen gainerako hautagai guztiengandik. Gehientsuenak larruzko txamarrak zituzten jantziak, edota jaka bakeroak bestela, latorrizko txapaz apainduak. Ez ziren gutxi punki itxura erabatekoa zutenak, koloretako gandor eta guzti pare bat. Belarritakoa ere ia-ia guztiek zuten. Patila luzeak ikus zitezkeen askoren masailetan, asko ziren lepoaren bueltan zapiren bat zutenak... Errebeldearena egiteko behar bezala jantzita zeuden guztiak, alajaina! Xepe, aldiz, bere betiko jertse urdin estuarekin. Xeperen betiko jertse xaharra! Xepek, ohartu gabe bazen ere, hain gustukoa zuena, Xepek, batere pentsatu gabe seguru asko, jertsea behar zuen bakoitzean janzten zuena, oraindik ere Xepez gogoratzen garenean

jantzita ikusten dioguna, eta geratu zaizkigun Xeperen argazki ia guztietan soinean ikusten zaiona; Xeperen betiko jertse urdina, jertse baino gehiago ia-ia Xeperen larru izatera heldu zena, udako edozein egun sargoritan ere hura jantzita kaleratzeko gauza baitzen. Jertsearen azpitik, berriz, lepoa doi-doi agertzen zuen niki gris apala; galtza bakero arruntak eta zapatila zuri higatuak. Berandu ohartua zen mozorroaren beharraz.

Ez dakit gainerako hautagaiek Xeperi piztia arraroa balitz bezala begiratu zioten ala ez. Bai ordea berari halaxe begiratzen ziotela iruditu zitzaiola; elkarren artean hizketan ikusten zituenean, ez zuela dudarik egiten auskalo nondik etorritako kaskajo itsusi hari burla egiten ari zirela marmarrean. Bakarrik eta iraindurik sentitu zen hasieran; gero barne harrotasun moduko bat nagusitu zen haren baitan; azkenean, proba haietan lehiakide izan behar zituen gazte haien guztien aurkako gorroto eutsiezinak bere onetik atera zuen. Mendekua eskatzen zion barrenak, ustezko errebelde ustel haiei inoiz ahaztuko ez zuten lezio bat emateko gogoa, beharra, premia.

Xeperen ondoren ere hautagai gehiago heldu zen txalet atarira, banan-banan batzuk, talde txikietan besteak, errebelde itxurakoak guztiak. Hirurogeita hamar bat lagun izango ziren txalet aurrean bilduak halako batean txalet barruko atea zabaldu zutenean. Hautagai guztiak ate ondora inguratu ziren orduan bat-batean, elkarri bultzaka, larri-larri guztiak atea zabaldu berri zutenen ondoan egon nahian. Dotore jantzitako eta txukun orraztutako hogeita hamarretik berrogei urtera bitarteko bi gizonezko eta emakume bat ziren hauta-proba haren arduradunak. Ezagun zuten larri zebiltzala, uste baino hautagai gehiago agertu zitzaielako beharbada. Gazteekiko mesprezua eta gutxiespena antzematen zen haien keinu eta begiradetan.

– A ver, por favor, un poco de orden –egin zuen oihu emakumeak umore txarrez–. ¡Por Dios! Más que jóvenes rebeldes parecéis niños de parvulario...

Ondoren, hautagaiei banan-banan izena esateko eskatzen hasi zen, esku artean zuen karpeta barruko paperetan apuntatzeko. Luze jo zuen izenak emateko lanak, eta Xepe, jende artean

bultzaka ibili ez zenez, azkenekoetakoa izan zen izena ematen.

Izen guztiak apuntatzeko lana amaitu zuenean, banan-banan sartu behar zutela adierazi zien emakumeak, idazkari lanetan, hautagaiei.

– Uno a uno iremos diciendo vuestro nombre y vais entrando.

Hautagaiekiko sentitzen zuen gorrotoa eta mendeku nahia *casting*-aren antolatzaileengana hedatu zen Xeperen baitan. Eta hazi ere egin zen, luzaz egon behar izan baitzuen txaletaren atarian itxoiten, harik eta azkenean ere idazkari pipertuak bere izena oihukatu zuen arte.

– Martin Larrañaga.

Txalet barruan sarturik, korridore batetik zehar gela handi eta zabal batera gidatu zuen ezpainetan irribarre izpirik erakutsi gabe jarraitzen zuen idazkariak, karpeta bi besoekin gorputzaren aurrealdean tinko oratuta zeramala. Gelan sartu zirenean, Xeperi gelaren erdi-erdian kokatutako espazio karratura joateko agindu keinu lehor batez eta ate ondoan geratu zen zain. Gelako bazter guztietan ezarritako fokoek argiztatzen zuten Xepe kokatu zeneko espazio

karratua. Xeperen alde banatan bi mutil gazte zeuden, bakoitza kamera banarekin. Aurrez aurre, paperez betetako mahai luze baten atzean eserita, arestian txalet atarira irtendako bi gizonezkoak zituen: *casting*-eko epaileak. Idazkari antipatikoa atzean, kamerariak aldamenean eta bi epaileak aurrean, inguratuta sentitu zen Xepe. Espazio itogarri hark txinparta berezia sortu zuen Xeperen baitan. Mahaiko epaileetako batek izena galdetu zionerako, gertatzeko zenak ez zeukan atzerabueltarik. Horrelakoetan ez zegoen Xepe geldiarazterik.

– Tu nombre, por favor.

Hitz haiek bere gorputza bete-betean harrapatu zuten tiroak izan balira bezala, Xepek belaunak apur bat tolestu eta eskuekin sabelari eutsi zion. Zabuka ibili zen, belaunak dardarka zituela. Mahairantz egin zuen, harri eta zur begira zituen hauta-probako epaileengana. Doi-doi oratu zuen mahaia eskuineko eskuarekin, baina gero, orduantxe bertan hil balitz bezalaxe, zoru gainera erori zen ahuspez.

Epaileak, izuturik, dardara batean, aulkitik altxatu ziren, mahai aurrean zegoen hautagai bitxi

hura zertan ari zen ikusi ahal izateko. Xepe geldi-geldirik zegoen, hilotz balitz bezalaxe.

– Pero, pero... ¿qué es esto? –esan zuen epaileetako batek. Kamera atzean zeuden mutilei begiratzen zien, erantzun bat bilatu nahian bezala. Haiek, ordea, beste epailea bezala, paralizaturik zituen harridurak.

Zorutik altxatu eta zutik geratu zen Xepe epaileen aurrean, zuzen-zuzen, soldadu bat bezala. Orduan begiak itxi, burua gorantz jiratu, arnasa sakon hartu eta besoak atzera bota zituen. Gero pixkanaka-pixkanaka besoak altxatu eta aurreratu, horizontalean zabal-zabal eginda jarri arte. Besoak bular aldera bildurik, ahoa okertu eta orroa lazgarriak egiten hasi zen ondoren, erraietan infernuko etsaia sutan balu bezala. Orroaka eta marrumaka, munstro trakets baten alderokako ibileraz hartu zuen aterako bidea, epaileak eta kamerariak aho bete hortz utzita. Munstro harrigarri hura aterantz zihoala ikusi zuenean, idazkariak alboratu eta bidea libre utzi zion, izututa, handi-handi egindako begiak Xeperengan tinko; karpeta gorputzaren kontra estuturik zuen artean ere, ezkerreko besoak oratuta;

eskuineko eskuarekin, ostera, zabal-zabal egin-da zuen ahoa estaltzen saiatzen ari zen.

Gelatik irten eta korridorean sartu zenean, orroak egiteari utzi eta berezko ibilera normala berreskuratu zuen Xepek. Zuzen-zuzenean itzuli zen Azkoitira, eskueran zuen lehendabiziko auto-busean.

– Kristoren gozamena izan zuan bueltako bia-jea –gogoratu zuen Xepek egun hartan gertatu-takoa kontatu zidanean–. De la hostia sentitu ninduan kaskoetan La Polla Recordsen zinta adi-tzen. «*Punki de postal. Punk de escaparate...*» –kantuz ekarri zuen une hura gogora–. Ederra duk noizean behin munduari ez garela kikiltzen erakustea. Ez al zaik iruditzen, Niko?

Bai, halaxe iruditzen zitzaidan eta arrazoia eman nion. Baina ni neu ez naiz egundo horrela-ko ezer egiteko gauza izan.

–IV–

– Ez zaidak plaia gustatzen. Txikitan askotan eramaten ninditean plaiara aitak eta amak, eta aitarekin eta amarekin ezagutu nituen tokiak gorrotatu egiten ditiat.

Ez zait aise ahaztuko Periskopiok lagun batzuei porro batzuk erretzera Zumaiako hondartzara joatea proposatu zigunean Xepek eman zion erantzun labur baina erabatekoa. Hark barruan bizi zuen ezinegon ilunaren neurria eman zuen pitzadurarik gabeko erantzun hark.

Halaxe zen, bai, ez zuen gezurrik esan Xepek. Familiarekin lotura zuen orok belztu egiten zion gogoa. Hondartzak bezala, leku turistiko-erlijiosoak ere gorrotatzen zituen oro har, eta, Zumaiako hondartza bezala, Arantzazu modu berezian: Joxe Ramon, bigarren anaia, Arantzazuko apezgaitegian ikasia zen eta txikitan askotan izan zen han Xepe gurasoekin, anaia bisitatzera joana; gainera, Xeperen etxape berean bizi zen adin beretsuko beste gazte batek ere, Andonik, gaur egun Donostian ingeniari den arren,

Arantzazun ikasi zuen, eta amak beti Andoni zintzo, formal eta eredugarriarekin alderatzen zuen Xepe, honek ez-egitekoren bat egiten zuenean bereziki. Baina tokiei bakarrik ez, familia gogora ekartzen zion guztiari zion herra bizia Xepek. Anjel Mari anaia zaharrena Anaitasuna futbol taldeko jokalaria zen eta Xepek ezin jasan izaten zuen futbola, ezta Atraskuko telebistan ere. Joxe Ramonek Azkoitiko Udal Musika Bandan jotzen zuen eta Xeperentzat guztiz eramanezina zen edozein udal bandaren musika.

Familia etsai zuen Xepek, eta gela etxe barruko babesleku bakar. «Refugio atomikoa» deitu ohi zion askotan. Atea krisketarekin barrutik itxirik, irrati-kasetean musika jarri –La Polla Recordsen *Salve* ororen gainetik, noski– eta hantxe egiten zituen orduak eta orduak, gainerakoan etxean egotea jasanezina egiten baitzitzaion. Gela txiki eta narratsa zen, hala ere, Xeperena, sekula ez baitzen arduratu bere txokoaren itxuraz. Lore irudi mehez apaindutako paper txuri uhertu batek estaltzen zituen gelako hormak. Bi eratako poster eta argazkiak zituen hormetan, guztiak zaharkitu eta zimurtuak, txintxeta her-

doilduz nolanahi itsatsiak: batetik, Sex Pistols, The Clash, Buzzcocks eta beste talde punki batzuenak, eta, bestetik, hainbat mamorro eta narraztirenak: kakarraldoa, eskorpioia, arrubioa, kaimana, sugegorria...

– Ni Noe izan banintz, horiexek besterik ez nitian sartuko barkuan –esan ohi zuen bere animalia kutun haietaz hitz egitean.

Periskopioren aita edari banatzailea zen, eta P,eriskopiorekin batera kamioneta txiki eta zahar batekin herri barruko zein inguruko auzuneetako tabernetara edariak banatuz lan egin ohi zuen batzuetan Xepek, diru apur bat irabazteko. Periskopiok bezala, Xepek ere ez zuen indar handirik bere beso iharretan, baina hala ere nahiko arina egiten zitzaion lana, batez ere Periskopiorekin ederki moldatzen zelako.

Aizpurutxoko Erdiko Bentan hainbat edari kaxa deskargatu ondoren, eguneko lanak amaitutzat jo eta etxerantz abiatu ziren ilunabar batez Periskopio eta Xepe.

– Bueno, hi, bota diagu eguna –esan zion pozik Periskopiok Xeperi kamionetaren kabinan sartzerakoan.

Nikiko poltsikotik La Polla Recordsen *Salve* zinta atera eta kabinako sabaitik zintzilik zegoen loroan martxan jarri zuen Xepek. Bolumena gorenean jarrita egon arren, kamionetaren motor zaharraren zaratak apenas askorik entzuten uzten zuen.

– Ba al dakik zer gustatuko litzaidakeen orain? –galdetu zion Xepek Periskopiori, aurrera begiratzeari utzi gabe.

– Auskalo...! Bazakiat! Kamionetarekin kotxeak zapaltzen hastea...

– Ez, motel, ez! Hori ez duk niri gustatuko litzaidakeena. Hori hik egingo huke gustura, astapotro horrek!

– Ba, egia esanda, bazaukaat tentazioa, bai –eta ero muturra jarriz bolanteari alde batera eta bestera eragiten hasi zen Periskopio, kamioneta ezker-eskuin balantzaka hastera behartuz.

– Horiek umekeriak dituk.

– Eta zer egingo huke ba hik? –txofer eroarena egiteari utzita, serio begiratu zion Periskopiok Xeperi.

– Ba nik orain kamionetarekin joan eta joan, horixe egingo nikek gustura, gelditzeke, musika adituz, urrutiko bazterren batean nazka-nazka eginda gelditu behar izan arte.

– Hi jota hago, Xepe! Kamionetarekin? Igartzen zaik, bai, ez duala askotan txofer egiten. Nik adina ibili behar izango bahu, ez huke horrelakorik esango.

– Ba nik benetan esaten diat –errepideari begira tinko jarraitzen zuen Xepek–. Hori bai, musika ekipo on batekin hobe, katxarro honi horixe besterik ez zaiok falta eta.

– Esaiok gure zaharrari erosteko... Gozoagatik jarriko zaik!

Periskopioren aitaren almazenean biharamunerako kaxak prestatu ondoren, La Polla Recordsen zinta kamionetako lorotik atera eta nikiko poltsikoan sarturik, ohi bezala, bere Mobylette txikian itzuli zen Xepe etxera arrats hartan, herriko kaskotik aparte antzean baitzegoen lokal hura. Etxean sartu zenean, gelara jo zuen zuze-

nean, gehienetan egiten zuen bezala, inori kasurik egin gabe.

Ateko krisketa itxi, nikiko poltsikotik *Salve* atera, zinta gaumahai gainean zuen irrati-kasetean sartu eta ohean etzan zen.

Evaristo kantariaren ahotsak *«Reunión de cerdos, todas las mañanas...»* oihukatzeari ekitearekin batera, amak Xeperen gelako atea jo zuen.

– Martin, ez zaitez orain ere kuartoan itxita geratu, satorra izango bazina bezala. Zatoz afaltzera!

– Oraindik goiz da, ama! –egin zuen oihu Xepek, kasetaren bolumena jaitsi gabe–. Laga nazazu bakean. Zuek afaldu. Jango dut nik zeozer gero.

– Mekaguen La India! Nahikoa diagu, Martin! –Xepe izutu egin zuen bat-batean aitaren ahots haserretu eta zakartuak–. Entzun duk amak esan duena. Hator afaltzera, demontre!, hau ez duk hotela eta! Sukaldera agudo! Aditu al duk?

Ez zegoen beste erremediorik. Kaseta itzali eta sukaldeko bidea hartu zuen Xepek, apal eta isil.

Mahaiaren inguruan zeuden denak, aita, ama, Anjel Mari eta Joxe Ramon. Isil-isilik, Xeperen zain egongo balira bezala. Xepe heldu zenean, aitak hautsi zuen isiltasuna.

– Jakin al daiteke zer demontre egiten duan beti hor hire kuartoan sartuta? Ez al haiz lotsatzen? Nik ez zakiat zer daukaan buruan. Gauza onik ez. Ezin diat entenditu. Hain zaila al da gurekin afaltzea? Ba bukatu duk, aditu? Hemendik aurrera ez diat lagako. Gurekin batera bazkaldu eta afaldu beharko duk, baita nahi ez baduk ere. Aditu al duk?

– Bai, aita –esan zuen ganorarik gabe Xepek, mutur aurrean zuen zopari gogo txarrez ekinez.

– Arrazoia zaukak aitak –mintzatu zitzaion doinu ulerkorrez Joxe Ramon–. Kezkatuta gaudek hirekin. Ez duk oso normala hire jokabidea...

Aitari ez bezala, anaiari aurre egiten saiatu zen Xepe, ez oso gogor hala ere.

– Lanetik etorri nauk oraintxe puntuan eta pixkat deskantsatzeko gogoa neukaan. Besterik ez. Hain grabea al da hori?

– Ez ezak orain tontoarena egin, Martin –serio eta gogor egin zion aurre Anjel Marik–. Hik bada-

kik ez dela gaurko kontua bakarrik. Gauzei aurre egiten ikasi behar duk, beti ezkutuan ibiltzeari lagata. Hemeretzi urte dauzkak, txikito, hemeretzi. Baduk non hagoen konturatu eta zeozer pentsatzen hasteko ordua.

Anjel Mariri ere ez zion erantzun Xepek. Zopa jateari ekin zion, mantso-mantso, gogorik gabe. Isilunea baliatuz, amak hartu zuen hitza.

– Datorren hilean Fidel ezkonduko da, Azpeitiko lehengusua, eta denontzat bialdu ditu inbitazioak. Arantzazun izango da boda eta denok gara joatekoak, baita Ines eta Joxe Mari ere. Zu ere etorriko zara, ezta, Martin? Ahal den azkarrena esateko eskatu dit. Erregaloarengatik ez kezkatu. Geuk emango diogu dirua zure partez.

Saiatu arren, ez zuen bere nahigabea ezkutuan gordetzerik izan Xepek, zopa jateari utzi, koilara mahai gainean laga eta hasperen itoa itzuri baitzitzaion. Aita sutu egin zen semearen erreakzioa ikusita.

– Hau duk hau kalamidadea! Aitak eta amak jarri dirua eta hala ere lehengusuaren bodara joan nahi ez! Baina hik zer uste duk ordea? Esplikatuko al didak zer demontre nahi duan hik?

– Tira, tira, Martin, ez zaik batere kostatzen –leunagoa zen beti Joxe Ramonen erretolika.

– Neuk erosiko dizut arropa berria.

– Ez, ama, arropa berririk ez... Ez dut inoren bodara joan nahi. Ines ezkondu zenean joan nintzen eta nahikoa izan zen. Benetan.

– Baina, Martin... Zer esango du izeba Anak?

– Ez dakit, ama, esatea dauka nahi duena, ez zaizkit batere gustatzen bodak. Ez naiz...

– Ezta niri hi bezalako zomorro beltzak ere! –aulkitik altxatu eta guzti egin zen aita haserre bizian–. Mekaguen La India!

– Lasaitu zaitez, Pedro, lasaitu zaitez –sartu zen tartean ama bake bila.

Aulkitik altxatu eta gelara joan zen Xepe. Krisketa itxi, kaseta martxan jarri, kaskoak belarriratu, bolumena igo eta ohean etzan zen, makurtuta, burua ia-ia belaunetaraino jaitsita.

Ez gurasoekin eta ez anai-arrebekin inoiz gustura sentitzerik izan ez bazuen ere, gaztetxearen inguruko mugimendua sortu bitartean hor nonbait moldatu zen Xepe, tartekako errieta saio ba-

tzuk gora-behera. Gaztetxearen inguruko istiluek larritu egin zituzten Xepe eta bere etxekoen arteko tirabirak, harik eta, halako batean, Udalaren gazte eta kultur politikaren aurkako ekimen baten ondoren, arazoa lehertu egin zen arte.

Gogoan dut ekimen haren ideia sortu zen asanblada. Luze samarra izan zen. Asteazkena zen eta hurrengo igandean, 1984ko otsailak 26, Gasteizko Legebiltzarrerako hauteskundeak izatekoak ziren. Demokrazia hura eta hauteskunde haiek onartzen ez genituenez –gaur egungoak ere onartzen ez ditugun bezalaxe, noski–, abstentzioaren alde jokatzeko erabakia genuen hartua aldez aurretik, eta hori aldarrikatzeko antolaturik genuen kanpainari –kanpaina xumea, zenbait kartel eta pintada besterik ez– buru emateko hauteskundeen aurkako kontzertua genuen antolatua igande horretarako, Azkoiti-Azpeitietako bi rock talde nagusiekin, hau da, Dirección Obligatoria eta Jotakierekin. Asanblada hartan, jaialdira joaten zirenei banatzeko komunikatu bat prestatzea egokia izango litzatekeela esan zuen Xingularrek, gure ikuspuntua azaldu eta jaialdiaren motiboa garbi uzteko.

– Bueno, zer jarriko dugu komunikatuan? –galdetu zuen Xingularrek, asanbladak komunikatuaren ideia onartzen zuela ikusirik.

– Hori erraza duk. Demokrazia hau faltsua dela –bota zuen azkar askorik Periskopiok–, elekzio hauek ez ditugula onartzen, politiko denak lapur eta putre hutsak direla eta gure botoa zuzen-zuzen komuneko zulotik behera joango dela.

– Ea, esan berriz, polikiago mesedez –esan zuen txantxetan Xingularrek, Periskopiok esandakoa apuntatu nahi izateko plantak eginez.

– Lasai, lasai, Xingu, konponduko zarete zuek –esan zuen paper kontuekin berehala nazkatzen zen Prestok–. Horretarako, nahi duzuenok juntatu eta eskribitu, baina orain, beste gairik ez badago, bukatu egingo diagu asanblea, nahikoa hitz egin diagu eta. Ia bi ordu zaramaagu hemen kaka esplikatzen.

Asanblada askotan hitz egin gabea zen morroi bat hasi zen orduan –kostata, herabe– hizketan: Txus, Xeperen baskako betiko kolegetako bat. Punk itxurako mutikoa zen orduan Txus. Gandorrik ez zuen arren, tente-tente zituen ile

guztiak. Bazuen Sid Viciousen tankerarik. Punk musika zen bere pasioa. Inguruko punk kontzertu guztietara joan ohi zen, eta urrutikoetara ere bai askotan. Baxua jotzen zuen eta talde bat sortu nahian zebilen beste baska bateko bi lagunekin.

– Nik beste gai bat planteatu nahi diat hemen. Dakizuen bezala, Txoli, Mangi eta hirurok musika talde bat egin nahi diagu. Gaztetxearen okupazioa baino lehen, Mangiren zaharrak noizean behin eta gogo txarrez lagatzen zigun garajean entseatzen genian. Orain etxe honetako lehen pisuko kuarto narrats bat hartu diagu entseatzeko. Askoz hobeto gaudek hor, baina kuarto hori dena txerri eginda zagok. Gaur eguerdian Aiuntamentuan izan gaituk lokala txukuntzeko diru pixkat emango ote diguten eskatzen, mixeria bat, eta lehenengo gaztetxearen kontra jardun eta gero muturrera barre egin zigutek. Esan zieagu ez litzatekeela guretzat bakarrik izango, entseatzeko lokalik ez daukaten talde denentzako lokal egokia jartzea dela guk nahi duguna, baina horiekin alferrik duk. Horientzat basura gaituk gu, basura besterik ez.

– Herri hau la hostia duk! –asaldatu zen Antijos–. Musika bandari eta Iraurgi abesbatzari entseatzeko lokalak eman eta gastu denak pagatzen zizkiok Aiuntamentuak, eta baita Sahatsa dantza taldeari ere. Kanpoko bandak, koruak, dantza taldeak eta antzeko hostiakeriak noiznahi ekartzen ditiztek. Guri, berriz, Dirección Obligatoria eta Jotakieren kontzertua antolatzeko subentzioa eman beharrean debekatu egin nahi ez zigutek ba! Gero demokratak direla esango ditek!

– Horrelakoxea duk horien mentalidadea –filosofatu zuen Xingularrek–. Kultura duk beraiei iruditzen zaiena. Osterantzeko denak traba besterik ez ziek egiten, edo, okerrago, beldurra ematen ziek.

– Nik uste diat Txusek esaten duen hori salatu beharrekoa dela –onartu zuen Urrategik–, baina musikeroen problema ez duk bakarra. Gaztetxea okupatu genuenetik lokala berritzen eta egokitzen ari gaituk, eta horretarako dirua geuk atera behar izan diagu, kontzertuak antolatzen, pegatinak saltzen eta hostiarenak jotzen.

Lagundu beharrean, kontrakoa egin dik Aiuntamentuak, guri argindarra mozten saiatu...

– Ez alferrik...! –eten zuen barrezka Urrategiren jarduna Periskopiok–. Herrian farolak dauden bitartean inguratuko dinagu argia gaztetxera nondik edo handik.

– Eta bestela alkatearen etxean konektatuko dinagu kablea –jarraitu zuen bromarekin Leonek bere-berea zuen doinu afektatu pasotarekin.

– Bai, argindarrarena erraz konpondu diagu, baina diruarena zailago zagok –bere hariari heldu zion berriro Urrategik–. Aiuntamentuari gaztetxea errekonozitu eta onartzea eskatu behar zioagu, eta urtero hainbateko subentzioa ematea.

– Eskatu ez, exijitu, Urra, exijitu! Diru hori gurea dun –moztu zuen Leonek.

– Bai, Leon, bai, exijitu, nahi duan bezala –haserretu edo barre egin artean zalantzan zegoela zirudien Urrategik–. Baina horrek mobitzea eskatzen dik, zeozer egitea.

– Elekzioen kontra atera behar dugun komunikatuan gai hau ere aitatu zezakenagu bide batez –erabaki zuen tinko eta serio Xingularrek–.

Ondo pentsatuta, bi gauzak lotuta zauden: ordezkariak aukeratu eta gero eskuak lotuta geratu, ezertarako aukerarik gabe, horixe dun demokrazia honen funtzionamendua azken batean.

Xingularren abiada gehiegizkoari frenoa jartzen saiatu zen orduan Urrategi.

– Astiro, Xingu, astiro. Ez duk komeni gauzak gehiegi nahastea. Zergatik ez dugu problema bakoitzeko komunikatu bana egiten? Niri sinpleago eta garbiago iruditzen zaidak.

– Azkar nazkatuko dinagu jendea hainbeste komunikatu eta hainbeste esplikazio lehorrekin –bota zion zakar Prestok Urrategiri.

– Baina ez badugu egiten duguna zergatik egiten dugun esplikatzen alferrik ari gaituk, Presto.

– Bai, bai, arrazoia daukan, Urra, arrazoia daukan –onartu zuen Prestok, burua makurtuz eta eskuekin «hor konpon» esan nahi zuen keinua eginez–. Niri ez zaidan inporta. Nik ez dinat ezer eskribituko.

– Ez kezkatu, Presto –lasaitu zuen Xingularrek–. Eskribituko diagu guk eskribitu beharrekoa.

– Ez ezak dudarik egin!

Isilune luze samarra izan zen ondoren, Periskopiok aurrez aurre zuen Leoni oihu eginez hautsi zuena.

– Hi, atzazalak erreko dizkik porro horrek deskuidatzen bahaiz. Besteok ere erre beharko diagu ba!

– Izenaren jabe haiz hi horratik! Ez dik ezerk ihes egiten. Amerikanoen submarinoek ere ez ditek hirea baino periskopio hoberik edukiko –barre algara orokorra sortu zuen Leonen erantzunak.

Periskopioren ondoan zegoen Txus, eta hark lasaitu zuen adiskide haxixzalearen grina.

– Lasai, Kopio, neuk egingo diat porro eder bat, Leon inbidiatan lagako duena.

– Komunikatuena konponduta zagok gutxi gora-behera –esan zuen Urrategik, isilune labur baten ostean, asanbladaren harira itzultzeko ahaleginean–. Baina komunikatuaz aparte, zer egin daiteke presupuestoen gai hau salatzeko?

Isilunea egin zen berriro. Halako batean Xepe mintzatu zen. Asanbladan geunden guztiok geratu ginen hari tinko begira, ez baitzen askotan

izaten Xepe asanblada batean mintzatzen entzuteko parada. Urduri zegoen baina era berean esaten ari zenaren inguruan ziur zegoela erakusten zuen. Poz bihurri bat nabari zen haren begietan. Itsaso ere adi-adi zituen entzuleen artean egoteak animoak emango bide zizkion, dudarik gabe, nahiz eta gehienbat Urrari begira hitz egin, hark planteatutako gaiaren inguruan ari zenez.

– Gure anaiak bandan jotzen din eta azken aldi honetan ia-ia jaiero ari ditun kontzejupean jotzen. Hori la hostia dun: banda astero jotzen eta rock taldeentzat ezer ez. Injustizia hori agerian jartzeko ideia bat okurritu zaidan. Aste honetan zapatu eguerdian jotzen din bandak kontzejupean, ez zakinat zer ospakizun xelebre dela eta...

– Bai, bandako bat orain dela berrogeita hamar urte edo ez zakiat zenbat hasi zela jotzen edo horrelakoren bat –argitu zuen Pipik.

– Bai, horrelako hostiakeriaren bat. Ba kontua dun niri okurritu zaidala zapatu eguerdian pankarta batekin eta komunikatuekin joan kontzejupera eta denok batera turuta jotzen hastea hantxe bertan, ea zer gertatzen den.

Zurrumurru, irribarre eta barre algara ugari sortu zuen Xeperen proposamenak.

– Totala! «Guk ere jo nahi dugu!» jarriko diagu pankartan –Xeperen ideiarekin ilusionatuta azaldu zen irribarretsu Xingular.

– Anaiak etxetik botako hau oraingo honetan –ohartarazi zion Mirarik, Xepek gurasoekin eta anai-arrebekin zituen arazoen berri bazuen eta.

– Hi ez kezkatu horregatik. Ez zaidan inporta. Hori konponduko dinat nik hontaka edo hartaka.

– Ez al dira munipak gu kontzejupetik ateratzera etorriko? –beti bezain zuhur agertu zen bere txandan Pipi–. Gogor samarra izan daitekek mobida hori...

Antijosen hitzek uxatu zituzten orduan zalantza guztiak.

– Agertzea zaukatek. Ikusiko diagu zer gertatzen den. Zenbat eta buila handiagoa hobe. Bestela Aiuntamentuak ez ziguk sekula kasu putarik egingo.

Nik ez nuen parte hartu boikot eskandalagarri hartan. Atraskuko barran egon beharra nuen, la-

runbat eguerdiko txikiteroei beren dosia emateko. Ez dakit zer egingo nuen eguerdi hura libre izan banu, baina ez dut uste oso eroso sentituko nintzenik Udal Musika Bandaren jarduna eteten. Ideia oso polita iruditzen zitzaidan, noski, baina han jendearen aurrean turuta jotzen agertzea beste kontu bat zen. Han zeuden asko eta asko tabernako bezeroak izango ziren, edo gurasoen ezagunak, osaba edo izebaren bat egotea ere ez zen harritzekoa izango...

Eguerdiko hamabietan zegoen jarria gaztetxean biltzeko ordua, Udal Musika Bandaren emanaldiaren hasierarekin batera, alegia. Hogeita bosten bat lagun bildu omen ziren hamabiak eta laurden ingururako. Batzuk nekearen nekez jaiki berriak ziren, bandari egin beharreko sabotaiaren ilusioak akuilatuta; beste batzuk gaupasa eginda. Bakoitzak bezperan erositako turuta bana harturik, han abiatu ziren denak. Aurrean bi pankarta: *«Guk ere jo nahi dugu!»*, zioen batak, Xingularrek ideiaren berri izan orduko pentsatu zuen bezalaxe; besteak, berriz, *«Autogestioa eta Ekintza Zuzena»*. Urrategi eta Xingu-

larrek komunikatuaren kopia pilo bana zuten eskuan, kaleko jendeari banatzeko.

Herriko plazara heldu orduko, kontzejupean banda entzuten zegoen jendea gazteei begira geratu zen, turuta hotsak asaldaturik. Udaltzain bat hurreratu zitzaien gazteei, ea zertan ari ziren galdetuz eta, mesedez, isiltzeko eskatuz. Baina gazteek aurrera jarraitu zuten. Zaharra zen udaltzaina, urte luzeetan lan horretan aritua eta sekula antzeko egoerarik ezagutu gabea. Xingularrek komunikatuaren ale bat eman zion eskura eta udaltzain gizagaixoak ez zekien zer arraio egin paper harekin.

Entzuleetako batzuk gazteei builaka hasi ziren.

– Egiten ari zareten hau zeuen kalterako duk –gaztigatu zien Kulturako zinegotziak oihuka–, zuen kalterako besterik ez. Ez al zarete konturatzen?

– Baina, baina, baina... burutik eginda zaudete ala? –komentatu zuen emakume batek.

– Zer ikusi behar dugu ordea?

– Lotsarik ez daukazue zuek, lotsarik ez.

– Kartzela, horixe da zuek merezi duzuena. Zuek bezalakoak kartzelan zaudek ondoena.

Hala ere inor ez zen ausartzen gazteak eutsi eta geldiarazten, eta hauek aurrera jarraitu zuten, turuta jotzeari utzi gabe. Xepek eta Urrategik airean zehar sakabanatu zituzten eskuetan zituzten komunikatuaren kopietako batzuk.

Gazteak kontzejuperaino heldu zirenean bandakoek jotzeari utzi zioten. Klarinetea esku artean zuela, Joxe Ramon Xeperi begira-begira geratu zitzaion lipar batez. Xepe ez zen kikildu. Turuta jotzeari utzi gabe eutsi zion anaiaren begiradari.

Eskuarekin turuta ahotik erauzi eta zorura bota ondoren, paparretik heldu zion Leoni arratsaldeon batek.

– Nik isilduko haut, Judas nazkante zikina!

Berehala gaztetxeko zenbaitek Leonengana jo zuten, laguna entzule haserretuaren atzaparretatik askatzeko. Entzuleetako batzuk ere arratsaldeon asaldatua lasaitzen saiatu ziren.

– Hobe duk bakean lagatzea –esaten zioten–. Ez al haiz konturatzen horixe dela nahi dutena, eskandalua sortzea?

Borroka labur hura amaiturik, Xingularrek komunikatuaren ehun bat kopia haizatu zituen hantxe bertan eta, ondoren, banda isilaraziaren aurrean kokatu eta zuzendaririk gabeko turuta orkestra zaratatsua osatu zuten gaztetxekoek. Minutu bat iraungo zuen gutxi gora-behera emanaldi zoro hark. Azkenik, turutak isildu eta gaztetxe aldera jo zuten, oihuka, manifestaldi txiki bat eginez bidenabar, «Gure etxea, gaztetxea!» oihukatuz.

Atraskuan ez zen ia beste hizketa gairik izan egun hartan. Ahaztu zitzaien azkoitiarrei hauteskunde bezperako gogoeta eguna zela ere. Herria aztoraturik utzi zuen turuta emanaldi bitxiak. Xeperen barrenean ere ez zegoen lasaitasun handirik. Ez zegoen etxera joateko moduan. Nola bazkalduko zuen ba Joxe Ramonen ondoan? Gozoak egongo ziren etxean! Etxera joan barik beste zerbait egiteko irrika piztu zen Xeperen barrenean, zerbait apartekoa, handia, harrigarria. Ilusioa eta bozkarioa sortu ziren haren baitan irrika harekin batera.

Isilean eta bakarrik, inori ezer esan gabe, Periskopioren aitaren almazenera jo zuen eguerdian bertan, artean ordu biak jo gabe zeudela. Kanpoko kristal bat hautsirik sartu zen almazen barrura, eta handik aurrerakoa erraza izan zuen, ateak zabalik zituela eta giltzak jarrita uzten baitzuen Periskopiok kamioneta. Garajeko atea zabaldu, inguruetara begiratu eta, inor ez zegoela ikusirik, Periskopioren aitaren kamioneta zaharrean irten zen almazenetik Xepe.

Gidatzeko baimenik ez zuen eta txofertzan jakin ere ez zekien oso ongi, baina ez zen gaizki moldatu kamioneta zaharrarekin, Periskopiok batzuetan kamioneta gidatzen uzten baitzion, mendi aldeko auzuneetara doazen bigarren mailako errepideetan behintzat. Herritik irten zenean, nikiko poltsikotik La Polla Recordsen *Salve* atera eta kabinako sabaitik zintzilik zegoen loroan sartu zuen. «*Delincuencia es todo aquello que os puede quitar el chollo...*», egin zuen oihu Evaristok loroaren bozgorailu kaskarretik.

Aurki zen Zumarragan. Etxegaratetik zehar Altsasura. Olazti gero, Ziordi, Egino, Agurain... La Polla Recordsekoen herrian geldiunetxo bat egin

eta garagardo bat hartzea pentsatu zuen baina gusturagi zegoen inon gelditzeko. Goserik eta egarririk sentitzeko aukerarik ere ematen ez zion go go-betetasunean zeharkatu zuen Gasteiz. Beloradon gasoliorik gabe geratzen ari zela konturatu eta depositoa bete zuen, Periskopioren aitaren kontura, kamionetaren palierretik Periskopiok horretarako erabiltzen zuen gasolina-txekea aterata. Beloradoren ondotik, Burgos, Palentzia, León, Astorga, Ponferrada... Guztiz ezezaguna zitzaion hiri hura. Galduta zegoen, zein ingurutan zebilen arrastorik gabe. Geldialditxo txiki bat egin zuen, taberna batean mokadu bat egiteko, eta tabernako horman esekitako Espainiako mapa zaharkituari begirada azkar bat eman ondoren jomuga bat hautatu zuen ibilaldi luze, zoro eta ordura artean noragabe harentzat: ordura artekoan mendebalderantz jo zuela oharturik, aurrerantzean gelditu gabe mendebalderantz jarraitzea erabaki zuen. Izen baten lilurak azken muturreraino bideraturik zuen: Lugon zen aurki, Lalínen gero, Santiago, Noia, Muros, Corcubión... Finisterre. Finisterreko lurmuturreraino iristen den errepidearen amaieran harrapatu

zuen asteleheneko goizalbak. Hantxe gelditu zen, neka-neka eginda, jota. Periskopiok kamionetan utzia zuen txamarra zahar baten azpian kukuturik, loak hartu zuen.

Eguerdi aldean inguru hartan paseatzen ari ziren bi neska-mutil geratu ziren kamionetaren ondoan.

– Mira qué pon ahí –esan zuen mutilak kamionetaren ateko letreroari begira–: *«Transportes Alberdi»*. É de Guipúzcoa. ¿Qué carallo fará eiquí unha furgoneta de reparto... de Guipúzcoa?

– Estes vascos, aínda han de ser dos da ETA –hausnartu zuen neskak–. Vamos, non vaia nos estoupar.

–V–

Ez zitzaion merke atera barrabaskeria hura Xeperi. Etxerik gabe geratu eta lanerako zeukan aukera urri baina bakarra galdu zuen Finisterrerainoko bidaia ero eta zentzugabe baina eder eta ezinbesteko hartan. Periskopio ere haserre izan zuen egun batzuetan, ez luzaz ordea, Periskopio bera ere gisa bereko bihurrikeria bat baino gehiago egina baitzen. Kontuak kontu eta kalteak kalte, ez zuen damurik izan Xepek, ezta hurrik eman ere.

Etxekoei kasurik egin gabe, kamioneta bere ohiko gordelekuan utzi, zuzen-zuzenean gaztetxera jo eta huraxe bizitokitzat hartu zuen Xepek itzuli zenean. Gaztetxea zegoen edifizio zaharreko geletan begiraturik, koltxoi zahar bat eta hainbat burusi are zaharrago aurkitu eta, haiek pixka bat txukundurik, logela txiki bat prestatu zuen gaztetxeko areto nagusiaren ondoko gela estu batean. Hurrengo egunetan maindire txukunak ekarri zizkion Mirarik eta nahiko eroso lo egiteko moduan zen.

Komuna ere bazuen, noski, gaztetxean, logelatzat hartu zuen ziegaren eta gaztetxeko areto nagusiaren artean. Estua, zaharra eta narrats samarra zen, eta ez zuen dutxarik, baina balio izan zion Xeperi bai gorputza eta bai arropa, noizean behin badarik ere, garbitzeko. Grafitiz josita gogoratzen dut beti komun hura. Bazen bat, luze samarra, frantsesez idatzia –zorioneko 68ko maiatz hartatik hartua nonbait–, azkenean denok buruz ikasi genuena, lehiaketak ere egin baikenituen geure artean, ea nork akats gutxiagoz idazten zuen: *«L'humanité ne sera heureuse que le jour où le dernier bureaucrate aura eté pendu avec les tripes du dernier capitaliste»*; motz eta enigmatikoagoa zen beste bat: *«Askatasuna!»*, zioen letra gorri larriz goian, eta azpian, berriz, urdinez marraztutako letra txiki eta bihurriagoz: *«Zertarako? Gora ETA esateko?»*. Komun hartan kausitu zituen Xepek ordura artean irakurketen edo inoren aipamenen bidez baino ezagutzerik izan ez zuen droga ia-ia mitiko baten zuzeneko lehen aztarnak: Azkoitiko lehen *junkie*-ek erabilitako xiringak.

Jateko, berriz, egia esan, ez dakit oso ondo nola arraio moldatzen zen. Seguru asko gutxi jatea izango zen metodoaren oinarri nagusia. Atraskuan ere afaldu zuen bizpahiru bider. Aitaren batean irentsi zituen nire kontura jandako otarteko haiek, bere gutiziarik minena ziren saltxitxakoak batik bat.

– Zer moduz bizi gara, Primo? –galdetu nion nik, kontsolamendua eman nahirik, Galiziako bidaiaren ondotik Atraskura egin zidan lehen bisitaldian–. Bolada txarra bizi arren ez duk animoa galdu behar...

– Ez larritu, Niko, ez nauk gaizki sentitzen. Azkenean ere nire inguruko kaka guztia astindu eta garbitzeko gauza izan nauk behintzat. Banian horrelako zeozer egiteko ordua ere, ez al zaik iruditzen?

– Bai, igual bai, baina orain kale gorrian hago. Ez etxerik, ez lanik...

– Irtengo gaituk zulo honetatik, Niko, irtengo gaituk alde batera edo bestera. Eta bitartean ere moldatuko gaituk nola edo hala. Egin beharra ze-

goan, ez zegoan beste erremediorik, eta gainera, zer hostia!, harro nagok, ederra izan duk biajea. Hik ez dakik zer den hori, joan eta joan, aurrera eta aurrera, gelditzeke, gero eta urrutiago. Barru-barrutik irteten den zeozer duk, ez zagok hitzez esplikatzerik.

– Donostiako aktore-probako hartakoa bezala, ezta?

– Bai, antzekoa behintzat...

– Bai, baina Donostiakoa, bueno, jende ezezagunaren aurrean egin huen eta gero lasai-lasai bueltatu hintzen etxera. Oraingo honetan berriz...

– Alferrik duk, Niko. Ez zagok buruari bueltak ematen ibili beharrik. Horrelakoak bururatzen bazaizkik egin egin behar dituk, derrigorrez, gero izango diren ondorioetan pentsatzen gelditu gabe. Egin egin behar dituk eta gozatu, hor ez zagok besterik. Horrelako zoro-irteerarik egingo ez banu, ni ez ninduan ni izango, ez ninduan ezer izango. Ez al haiz konturatzen? Zertarako da bizitza horrelakoak egiteko ez bada? Zer egin behar dugu bada? Musika Bandan jo, telebistan futbola ikusi, dirua irabazi, ezkondu, umeak eka-

rri, zoriontsuak izan... Puaj! Hau nazka! Zoriontsuak! Botakagura ematen zidak hitz horrek.

Gaztetxea lortzea borroka bat da, eta gaztetxea lortu ondoren gaztetxea ondo eramatea beste bat, oso bestelakoa. Gaztetxea okupatzean inondik inora sumatu ere egiten ez ziren gora-beherak sortzen dira gaztetxea okupatu eta gero. Ondo daki horren berri gaztetxeen mobida pixka bat ezagutzen duenak. Gaztetxea ondo eramateko, gaztetxea behar bezala baliatzeko, gaztetxea gure borroka garatzeko gune benetan eraginkorra izan zedin, telefonoa eta gutunontzia izatea aurrerapauso handia izango zela pentsatu zuten batzuek, ia-ia ezinbestekoa. Beste batzuei, aldiz, Xeperi adibidez, ez zitzaien oso atsegin tramankulu hura gaztetxeratzeko ideia.

Xepe gaztetxean bizi izan zen aurreneko astean planteatu zen lehen aldiz telefonoaren ideia. Astegun buruzuri bateko arratsaldea zen. Urrategi, Xingular, Pipi, Mirari, Periskopio, Xepe eta beste zenbait lagun gaztetxeko barraren on-

doan geunden, denborapasa, garagardoak edaten eta porroak erretzen. Euskal Herriaren independentziaren aldeko borrokaz eztabaidan ari ziren Urrategi eta Xingular.

– Nik ez dinat independentzia kontu horietan batere sinisten –esan zion Xingularrek Urrategiri–. Ni seguru nagon Euskal Herria inoiz independente izatera ailegatzen bada orduan ere galtzaileak izango garela gu. Gaur abertzale eta iraultzaile moduan agertzen diren horiek egurtuko gaitizten orduan. Ondo ezagutzen ditinat...

– Ba nik, nahiz eta borroka eramateko moduan akats larriak ikusten ditudan, uste diat errespetu bat merezi duela independentziaren aldeko borrokak –ohartarazi zion Urrategik–. Azken batean, ezin diagu ahaztu inperialismoak zapaldutako herri batean bizi garela, eta zentzuzkoa dela...

– Bai –eten zuen Urrategiren jarduna Xingularrek–, nik ez dinat hori dena ukatzen, Urra, baina niri borroka nazional horiek ez zidaten ezer esaten. Goian lau espabilatu egoten ditun beti estrategia markatzen eta dena zuzentzen, eta beheko denak, ardi otzanak bezala, haiek esandakoa

egiten... Borroka nork bere inguruan egin behar din, eta niri HBko jende gutxik erakutsi zidan bere inguruan borrokatzeko benetako gogoa... Gaztetxearen inguruko mobida ikusi besterik ez daukan...

– Baina Azkoitian hori gertatzeak ez dik esan nahi toki guztietan hala denik, Xingu. Beste toki batzuetan HBko jendea benetan inplikatzen duk bere inguruko borroketan. Eta beste gauza bat esango diat: ondo zagok, hik esaten duan bezala, gure inguruan borroka egitea, baina kanpoko jendearekin harremanak izatea eta koordinatzea ere beharrezkoa duk. Hori oso aberasgarria duk norberarentzat eta gainera indar handiago edukitzen laguntzen dik. Eta horretan gutxi saiatzen garela iruditzen zaidak.

– Gipuzkoako Gazteen Eguna antolatu geninan behintzat, ezta? Ez al zitzainan mobida guapoa iruditu?

– Bai, hura ondo egon zuan, baina zer egin dugu harrezkero? Oso ondo zagok Oñatira edo Andoainera joan kontzertu batera eta hango baskakoekin egotea, baina nik uste diat harreman kontinuoagoa landu behar dugula beste herrieta-

ko gaztetxeekin. Hobeto antolatu behar diagu, bai probintzia mailan eta bai nazio mailan, Euskal Herri osoan.

– Bai, nik ez dinat hori ukatzen... –samurtu zuen bere jarrera Xingularrek–. Baina nik esan nahi dudana dun horren aurretik herriko lana dagoela. Herrian ondo funtzionatu gabe kanpora begiratzen hastea zeharo faltsua iruditzen zaidan.

– Bai, Xingu, baina beti geure zilborrari begira bizitzea ere ez duk batere osasuntsua –esan zuen Urrategik, eta, eztabaida amaitutzat emanik, berak nahi zuen aldera bideratu zuen berriro solasaldia–. Aurreko batean, horretaz pentsatzen ari nintzela, ideia bat okurritu zitzaidaan. Nik uste diat kanpora begira laguntza handia izan daitekeela eta barruko funtzionamenduari inolako kalterik ez diola egingo. Ea zuei zer iruditzen zaizuen: gaztetxean telefonoa jartzea.

Pentsakor geratu ginen guztiok Urrategiren burutazioa entzun eta gero.

– Telefonoa gaztetxean? –harritu zen Periskopio–. Ez zakinat ba... Zertarako nahi dun telefonoa gaztetxean?

– Gauza askotarako. Esate baterako, Gipuzkoa osoko talde feminista mordo baten telefonoak eman zizkidaan orain dela aste batzuk Donostiako kolega batek, eta horiekin harremanetan jartzeko beharrezkoa diagu telefonoa. Etxetik hots egiten jardutea marroi bat duk; kabinatik, berriz, hots egin zezakeagu baina deirik ezin jaso...

Arrazoizkoa iruditu zitzaion Xingularri Urrategiren ideia.

– Bai, horrelakoetarako bentaja handia dun telefonoa. Eta baita geure arteko kontuetarako ere.

– Eta telefonoaz gain, buzoia ere jarriko nikek nik –biribildu zuen proposamena Urrategik–. Ez diat uste oso garestia izango denik, eta telefonoa eta buzoia jartzea mesede handia izango lukek gaztetxearentzat.

Xeperi ideia hura oso atsegin izango ez zitzaiolako susmoa izan zuen berehala Mirarik.

– Hik, Xepe, zer irizten diok? Hi hemen bizi haiz eta hiri tokatuko zaik beste inori baino gehiago telefonoari kasu egitea.

Xepek ezin zuen ordea aurrerakuntza hura eragotzi.

– Zer esango dinat ba nik? Gaztetxea ez dun nirea bakarrik. Asanbleak erabakitzen badu...

– Niri ere nazka ematen zidak aparatu horrek –argitu zion Xingularrek–, baina, ondo pentsatuta, gauza askotarako balio izango likek. Kaleko edozein mobida egin eta gero *Egin*-era hots egiten dugunean kabina batetik egin beharrean bertatik egin ahal izanez gero hobe. Eta enkarguak jasotzeko ere telefonoa edukitzea komenigarria izango lukek. Hiri tokatuko zaik oraingoz telefonoaren muertoa baina ez diat uste gehiegizko latakada izango denik...

Ez zegoen dudarik: arrazoizkoa zen gaztetxean telefonoa ezartzea.

– Ez, ez, lasai. Neuri ere mesede egingo zidak batzuetan. Garagardo kaxak eskatzeko-eta...

Pipik, haatik, beti bezain ezkor, bazuen bere kezkatxoa gai haren inguruan ere.

– Eta jendea noiznahi telefonoa hartu eta hara eta hona hots egiten hasten bada, zeinek pagatuko du gero telefonoko faktura? Hori kontrolatu beharra egongo duk...

Xingularrek kendu zion kezka Pipiri.

– Hori konpontzea erraza duk. Bazaudek deiak hartzeko numeroa izan arren bertatik hots egiteko txanponak sartu behar izaten diren aparatuak.

– Bai, berde horiek, ezta? –Atraskuko telefonoa horrelako modeloak sortu baino lehenagokoa zen arren banekien nik zerbait gai horretaz–. Tabernetan horrelakoak jartzen ditiztek orain.

Ez ziren artean bizpahiru egun baino izango Xepek Periskopioren aitaren kamioneta hartu eta Finisterreraino eraman zuenetik baina Periskopio Xeperekin zeharo adiskidetua zen ordurako, eta txantxetako komentario batez berretsi zuen Xeperekiko adiskidetasun zintzo hura.

– Badakik, Xepe: Finisterren konkistatu huen *rapazinha*-ri hots egin nahi badiok, txanponak sartu behar.

Esker oneko barre herabe eta samurra egin zuten Xeperen ezpain meheek.

Hurrengo ostiralean punk kontzertu bikaina genuen antolatua gaztetxean, hau da, Xeperen

behin-behineko etxean, Xepek logelatzat zuen gelaren ondoko areto nagusian. Lau talde izan genituen emanaldi gogoangarri hartan: Cirrosis, Optalidón, Basura eta Odio. Ez zen kartel makala! Garai hartan La Polla Records, RIP, Eskorbuto eta Cicatriz ziren punta-puntako talde punkiak, baina ezinezkoa zitzaigun haietako bat bera ere gure gaztetxera ekartzea, batetik ikus-entzule guztiak hartzeko lekurik ez zelako izango eta, bestetik, talde horiek ekartzeak, lekua ezezik dirua ere dexente eskatzen zuelako. RIP eta Hertzainak Azkoitian izanak ziren, gaztetxerik ez zenean, Goiko Losa pilotalekuan jotzen, Antijos, Urrategi, Xingular eta abarrek –Talde Antimilitaristak– ekarriak, baina hori talde haiek artean hain ezagun eta arrakastatsu ez zirenean izan zen.

Nahiz eta taldeak oso ezagunak ez izan, gainezka egitear zegoen gaztetxea kontzertua hasi baino lehen, jende asko etorri baitzen kanpotik, Donostiatik, Oreretatik eta Arrasate eta inguruetatik batik bat. Kanpotik etorritako jendearen artean Donostiako baska punki bat zegoen, Optalidón taldekoen ingurukoena, eta haiekin Ute ize-

neko neska aleman bat, moztaka eta ipurtandia baina bizi-bizia, geldirik egoten ez zena. Txaleko punkia zuen, zulatutako niki berde ilun baten gainean jantzia; galtza eskoziar kremaileradunak; ilea motz-motz eta tarte batzuetan berdez tintatua; belarritakorik ez baina ezkerreko sudurzuloan eraztun moduko bat sartua. Euskaraz ez zekien eta gaztelaniaz ere ez askorik, baina hala ere ez zuen arazorik izan barran zeudenei, Pipi eta Xingularri garagardoak eskatzeko, ezta gau hartan bere burua ezagutzera emateko ere. Kimikaren laguntza ere bazuen horretarako, anfetaminarena zehazkiago esateko. Kontzertua baino pixka bat lehenxeago komunean ikusi nuen *speed* arraia bat sartzen, Donostiako bere kolegekin batera.

Ez zen giro izan emanaldi basati hartan! Sekulako kristoa sortu zuten Cirrosis, Optalidón, Basura eta Odiok. Oholtza aurrean estu-estu pilatu ziren punkiak, pogo eroa dantzatzen, elkarri bultzaka eta oihuka, elkarri garagardoa botatzen. Kantariei ere garagardoa parrastaka bota zieten, eta baita listukada bortitzak ere aurpegira zuzen-zuzenean. Jendea oholtza gainera tru-

milka igo arren, kantariek hantxe jarraitzen zuten, berean tinko, gogor. Oholtzatik jaitsi eta zoruan buerdaka ere ibili ziren kantarietako batzuk, mikrofonoaren aurrean oihu egiteari utzi gabe. Gero jaiki eta inguruko jendearen ahoetara hurbiltzen zuten mikrofonoa, nahi zuenak nahi zuen orroa egin zezan... Kaos erabatekoa!

Kontzertua hasi zenetik, Ute aurrealdean kokatu zen, oholtzatik gertu, Txus, Xepe, Kantxa, Mirari, Periskopio, Leon eta abarrekin batera. Itsaso ere bai, Xeperi gustatzen zitzaion neska ere han inguruan zen, bere baskakoekin, David, Poli, Trino, Nekane eta abarrekin, inoiz baino punkiago jantzita guztiak, nahiz eta punki dotore samarra izan haiena Txus, Mirari eta Periskopiorenaren aldean, sofistikatuagoa, alegia. Bere betiko jertse urdin iluna soinean, Xepe izango zen seguru askorik aurrealde hartan larru beltzezko janzkirik edo punk estetikako beste inolako elementurik ageri ez zuen bakarra. Dena den, hori bai, janzkerak janzkera, aurrealdean zeuden guztiak, Xepe ere barne, *speed* arraia bana baino gehiago sartuta zeuden. Nola ez ba halako egun seinalatuan!

Xepe, horrelakoetan ohi zuen bezala, nahiz eta aurrean kokatu, ahal izan zuen bezain geldi egon zen, taldeek taula gainean isurtzen zuten indar guztia oso-osorik xurgatu, irentsi eta bereganatu nahirik bezala, guztiz kontzentratuta, barnebilduta, ia-ia estasi mistikoan. Lanak izan zituen hala ere inguruan zuen jendearen bultzakada etengabeei eusten. Inguruko horien artean Ute izan zen gerrarik handiena eman ziona. Inguruan egokitzen zitzaizkion guztiak behin eta berriz hara eta hona astintzen jardun zuen neska alemanak eta Xeperi ere ez zion bake handirik eman. Xepek ez zion, ordea, jaramon handirik egiten. Neskak bultza egiten bazion, berak ere atzera beste norbaitengana bultzatuko zuen Ute indar handirik gabe eta kito.

Kontzertua amaitu zenean, artean ere mugimendu gehiagoren beharrean nonbait, okupazioa izan zenez geroztik gaztetxeko areto nagusiko txoko batean kokaturik zeuden igeltsuzko bi figura giza-neurrikoei eraso zieten kanpotar batzuek: San Kanuto punkiari eta Kristo gurutziltzatu txapeldunari. Figurak hautsi ondoren, zatikatutako atalak elkarri jaurtitzen hasi ziren eta az-

kenean gaztetxean zegoen jende guztiaren artean zabaldu zen jolasa. Halako batean ordura artean Kristo gurutziltzatuaren buru gainean egondako euskal txapela Xepe eta bere baskakoen artera heldu zen airean. Donostiako lagunak ahazturik, Xeperen baskakoekin zegoen une hartan Ute. Gustatu egin zitzaion txapela neskari eta, gehiegi pentsatu gabe, jantzi egin zuen, ez oso estilo jatorrean ordea, burua barru-barruraino sarturik baizik, kopeta osoa estali arte. Barregarria iruditu zitzaien ateraldia une hartan harekin zeuden Xepe, Txus, Kantxa, Periskopio, Mirari eta Leoni.

Umore onean jarraitu zuten baskako guztiek Uterekin edaten eta porroak erretzen. Gogotik egin zuten barre gau hartan. Komunikaziorako oztopo izan barik, gaztelaniaz deus gutxi jakitea lagungarri zitzaion Uteri, bere hankasartzeek bizitasuna ematen baitzieten gau hartako solasaldi kaotikoei.

– Aquí, en el gaztetxe, podemos organizar un montón de conciertos como el de hoy, y eso está de puta madre –azaldu zion Txusek, ia-ia oihuka, kontzertuaren ondoren musika altu-altu jarria

baitzuten barran Pipi eta Xingularrek, kontzertuak sortutako giroari eusteko asmotan.

– Ah. Eso *es* bien. Sí, sí, *es* muy bien.

Alemanaren ateraldiak lagun guztien barreak sortu zituen, eta bera ere barrez hasi zen, zergatik egiten zuen barre oso ondo jakin gabe.

– Aquí en Azkoitia, todos un poco locos, ¿eh? –eta denei bultzaka hasi zen, kontzertua artean ere amaitu gabe egongo balitz bezala. Nahiz eta neskak burua astindu, txapelak haren buru gainean jarraitzen zuen tinko, hain zegoen burua txapel barruan ondo sartuta.

– Y otra raya de *speed*, ¿qué? ¿*Es* bien, Ute? –galdetu zion jostari Txusek.

– Ja, ja, ja, *es* bien, *es* muy bien. ¡De puta madre!

Barre egin zuten guztiek berriro.

Luzea eta latza izan zen egun hartako parranda, ez bakarrik Ute, Xepe eta Xeperen baskakoentzat, kontzertuan izan ginen guztiontzat baizik. Egunsentia heldu zenerako, bareago zegoen gaztetxea, baina gaueko giro beroaren ondorio-

ak agerian zituela. «Gaztetxe usaina» esaten diogun hori zegoen areto osoan, hau da, garagardo barreiatu eta lehortuarena. Kristo gurutziltzatuarenak eta San Kanutorenak izandako gorputz atalak garagardo makulaz eta plastikozko edalontzi zirtzilduz jositako zoru ezin narratsagoan zehar sakabanatuta zeutzan. Zapatilak itsatsi egiten zitzaizkion zoruari, hain zegoen likina. Hantxe zegoen, hala ere, bazter batean goxogoxo etzanda Tras sagutxakur herrena, erdi lotan. Xepe barraren atzean zegoen. The Clash taldearen diskoa jarri zuen baina ez oso bolumen altuan. Barraren aurrealdean, berriz, inor gutxi geratzen zen: Mirari, Txus, Ute eta laurok taburete banatan eserita eta nahiko abailduta guztiak, Ute bereziki, ezeri jaramonik egin gabe, euskal txapelak bekainetaraino estalitako burua barra gainean ezarritako bi besoen artean sarturik erdi lotan baitzegoen; eta guregandik pixka bat aparte, barra ondoan zutik, hankak zabalzabal eginda, patxaran hondarra esku batean eta zigarro puroa bestean, beste eite bateko gazte bat, Joseba, koadrozko alkandoraz jantzitako mutikote bizardun sendoa, abertzale peto-

petoa, bere ustetan behintzat. Ez zen oso maiz izaten gaztetxean Joseba, baina gau hartako kontzertua ikusten eta entzuten izana zen, urruti samarretik izan bazen ere, eszenategi aurreko anabasan sartu gabe.

– Zuekin ez zagok Euskal Herria jasotzerik –egin zuen oihu Josebak, gure solasaldiko isilune bat baliatuz ea kontzertua zer iruditu zitzaion galdetu nionean–. Mekaguen La Puta! Esaten diat ba nik! Erdaraz kantatzen duten lau hankamehe belarrimotz negargarri ekarri eta hemen hostiarena jotzen. Euskaldunik ez al dago ala? Gu zer gara ba? Besteak baino gutxiago? Herria borrokan eta zuek espainiarren alde. Espainiarrak zarete zuek azken batean!

– Heu izango haiz gudari handia! –egin zion aurre Mirarik, bizardunaren sabel ingurura begira–. Borrokan latz jarduteagatik izango duk hik patata-zaku hori. Hau duk hau txorimaloa!

– Hi, txikita! Hik oraindik ere ez dakin bizimodua zer den eta egon hadi isilik, bestela ez dun eta inoiz ikasiko. Hik begiratu, entzun eta ikasi, eta gero izango dun hitz egiteko aukera.

– Hi haiz hemen isildu behar duena, gure aita ematen duk eta. Bueno, ni banoak etxe aldera.

– Baita ni ere –neka-neka eginda zegoen Txusek.

Nik ere etxeratzeko ordua nuen.

– Ni ere zuekin joango nauk, bihar eguerdian txikito banaketa zaukaat eta.

– Bai, eman iezaiek behar duten dosia arratsaldeonei –umore ona zuen artean ere Xepek–, ea lasaitzen diren. Bestela horiek reboluzioa egiten hasteko ere kapazak dituk eta.

Gaztetxetik irten aurretik, Utez oroitu zen Mirari.

– Horri preparatu iezaiok txoko bat –esan zion Xeperi, neska alemana seinalatuz–, bere lagunek bakarrik laga ditek eta.

– Lasai, moldatuko gaitun nola edo hala.

Kanporantz abiatzen ginela ikusirik, parrandari jarraipena emateko azken ahalegina egin zuen artean ere Josebak etsi-etsian.

– Hi, Atrasku –egin zidan oihu–, ez hadi joan, geratu hadi pixka bat, hik hauek baino gehiago dakik eta. Gaztetxearekin zer egin behar den erakutsiko diat nik. Hik entzun eta gero heuk

ikusi. Askatasuna aipatzen duzue zuek baina zuek ez dakizue zer den hori. Askatasunak ez dik batere balio denok libre izan artean. Presoak barruan dauden bitartean ez zaukaagu nahi duguna egiterik, ulertzen al duk?

– Bueno, bueno, Joseba, ez hadi orain dramatiko jarri, hik nahi duana eta gehiago ere egiten duk eta.

– Itxi egin behar diagu, Joseba –lagundu zidan Xepek–, baduk ordua eta. Bihar Niko Atraskuan egongo duk eta han izango duk berarekin luze eta zabal hitz egiteko aukera.

– Ez iezaiok ba hori esan, Xepe, ez iezaiok hori esan... Arratsaldeonak agoantatzearekin gutxi zaukaat ba!

– Ez kezkatu, Primo –erantzun zidan irribarrez lehengusuak–. Honek biharko egun osoa ohean botako dik. Eta gainera hik badakik Joseba sakon-sakonean mutil ona dela.

– Mutil ona? Izango ez nauk ba! Hi baino askoz hobea. Eta gehiago bizi izandakoa, eskarmentu handiagokoa, txikito!

Besotik heldu behar izan nion gaztetxetik behingoz irten zedin.

– Bai, Joseba, bai, eta mutil ona haizenez, orain etxera. Bale?

Areto nagusitik irten ginenean, gelditu, burua gorantz jiratu eta orroaka hasi zen, ordea, ahots lakarrez.

– Presoak kalera! Gora Euskadi askatuta! Mekaguen Dios!

Orroa latz haiek lasaiago utzi balute bezala, isil-isilean irten zen gaztetxetik gurekin batera.

Ute, Xepe eta Tras baino ez ziren geratu gaztetxean. Ez zen txakurra gaztetxe barruan geratzen zen lehen gaua. Ute iratzarri zuen Xepek, lo egiteko toki egoki batera eramango zuela esanez. Erdi lotan artean ere, Xeperen atzetik abiatu zen neska. Xepek bere gela txikian prestaturik zuen ohean sartu ziren Ute eta biak, arropak erantzi gabe, txapel eta guzti artean ere neska. Ohean sartu orduko hasi zen zurrungaka alemana. Hala ere, mugimendu itxuraz behintzat inkontziente batean, Xeperen gorputza besarkatu zuen. Xepe dardarka zegoen. Ez zekien zer egin

eta denbora asko behar izan zuen Uteren besoen artean loak hartzeko.

– Bueno, ez zuan hura bezain polita, baina Itsaso gaztetxeko gau hartan izan nuena baino hurrerago nian Ute –komentatu zidan biharamunean bertan Xepek, Atraskura otartekoaren bila etorri zenean–, Ute eta bere gorputza, titiak nire bularraren kontra estututa. Zakila tente nian, baina nola atrebitu ezer egiten aurretik ezer hitz egiteke? Ez nekian zer egin. Txortarako gogoa nian baina burua dudaz beteta. Ez ninduan ezer egiteko gauza, ezta mugimendurik txikiena ere.

Eguerdi inguruan esnatu zen Ute. Xepe lo zegoen, baina arina zen haren loa, ez zuen asko behar izan esnatzeko.

– Guten Morgen, Xepe! –eskuekin aurpegia laztanduz esnatu zuen Utek Xepe.

– Egun on, Ute!

– Egun on! Egun on! ¡*Es* bien! ¡De puta madre!

Musuka eraso zion Utek Xeperi. Neska besoekin inguratu eta gorputz handi hura oso-osorik laztantzen hasi zen, urduri, Xepe. Utek txapela erantzi zuen, bere ile motz tarteka berdetua, as-

paldiko partez, agerian utziz; zuloz jositako niki berde iluna ere erantzi zuen eta... Larrua jotzea zer den orduantxe probatu zuen Xepek lehendabiziko aldiz, hemeretzi urterekin, herriko mutil gazte adinkide gehientsuenak baino lehenago, neu barne, jakina.

Ordurako gure arteko konfiantza nahiko handia zen arren, ez zidan xehetasun gehiegirik eman Xepek hortik aurrera etorri zenari buruz. Baina oso samurra iruditu zitzaidan larru kontuak –estreinako aldikoak behintzat– amaitu ondorengo jolas txiki baten pasadizoa. Larru grinak aseturik, biak koltxoi gainean biluzik etzanda zeudela, zangoak altxatu eta gora begira ezarri zituen Xepek, eskuak gerri parean soinaren sostengu gisa ezarrita. Lasterka edo bizikleta gainean pedaleatzen ariko balitz bezala, zangoak mugitzen hasi zen orduan, gero eta azkarrago. Xeperen ariketari dibertigarri iritzirik, Ute ere gauza bera egiten hasi zen, Xepe baino pixka bat traketsago baina ez hura baino gutxiago zela pentsaturik.

– ¡A ver quién llega antes! –bota zuen erronka Utek.

– Voy ganando yo. Yo voy más rápido.

– No, no, yo voy más adelante...

Bere zangoetako bat neskarenen artean trabatu zuen Xepek, lehiakideari zangartekoa egiten dion atleta gaiztoaren antzera. Lau zangoak koltxoi gainera erori ziren, Xeperenak Uteren gainean, eta bi gorputz biluziak besarkada estu batean nahastu zituzten berehala.

– Has hecho trampa –esan zuen neska alemanak barreari ezin eutsita.

Ez zen bekaitza izan Xepek gau hartakoak kontatu zizkidanean nire baitan bildu ziren sentimendu nahasien artean proportzio txikiena zuena.

–VI–

Soldaduzkara joan behar zuten Azkoitiko mutil gazte guztiak batera neurtu eta pisatzen zituzten lehen herriko udaletxean. Gaur egun beste modu batera egin ohi dio zerbitzu hori Azkoitiko Udalak Espainiako Armadari, mutil gazteei banaka deituta. Beharbada izango du aldaketa horrekin zerikusirik gaztetxekook 1984ko martxoaren 11ko neurketei egindako sabotaiak.

Gu, 1965ean jaiotakook –Xepe eta biok, besteak beste–, urtebete lehenago egon ginen bezala, eguerdiko hamabietarako zeuden deituak igande hartan 1966an jaiotako Azkoitiko mutil gazterik gehienak udaletxeko kontzejupera, han bildu ondoren gora igo eta udaletxeko batzar areto nagusian banan-banan neurtu eta pisa zitzaten. Udalak deitutakoez gain gaztetxeko hainbat nes ka-mutil ere bildu ginen. Xepe ere han zen, noski, eta beste asko, garai hartako gaztetxeko ia-ia denok: Periskopio, Txus, Kantxa, Antijos, Urrategi, Esther –argazkiak egiteko kamera

hartuta–, Xingular, Pipi, Presto, Lu, Pako eta beste asko...

Neurketa lanak hasi zirenean denok batera igo ginen eskaileretan gora, indarrez, kementsu, borrokarako gertu. Neurketak egiten ari ziren aretoan sarturik, ezertan erreparatu gabe, zuzen-zuzenean neurtzeko tresnei heldu genien (ni ez nintzen haiek ukitzera iritsi, asko baikinen, baina, tira, han nintzen behintzat). Esther atzeraxeago jarri zen, argazkiak egiteko. Neurketa lanetan zebiltzan udal zinegotzi eta langileak aho bete hortz geratu ziren, erreakzionatzeko denborarik gabe. Batzuk saiatu ziren neurgailuari eta baskulari eusten baina ez zeuden horretarako prestatuta. Baskula aldameneko leihotik behera bota zuen Xingularrek, aldez aurretik inor ez zuela burutik behera joko ziurtatu eta gero. Neurgailua, aldiz, handiegia zen kalera botatzeko eta zenbaiten artean eskaileretara atera eta eskaileren erdiko tartean behera bota zuten. Zoruaren kontra hautsi zen Azkoitiko Udalak *mozo*-ak neurtzeko zuen neurgailu zaharra.

Gure helburua beterik, korrika eta oihuka jaitsi ginen udaletxeko eskaileretan behera, «Soldaduzkarik ez!» oihu eginez.

Zinegotzietako bat, Juanito Txinparta esaten diotena, gure atzetik abiatu zen, bere onetik irtenda, oihuka eta mehatxuka.

– Nora zoazte? Ez ihes egin. Etorri hona! Hau ez duk honela geratuko!

Eskailerak jaitsi eta kontzejupeko atera iritsi zenean gelditu egin zen azkenean zinegotzi amorratua, jazarpen zoro haren antzutasunaz konturaturik edo. Besoak altxatuz azken mehatxua bota zigun.

– Gogotik damutuko zaizue!

Zemaia ahoan eta besoak airean, bete-betean harrapatu zuen une hartan Estherrek bere argazki kamerarekin. Ez genuen barre gutxi egin gaztetxean hurrengo egunetan argazki haren kontura.

Sabotaia gogoangarria izan zen hura, arrakastatsua oso, baina, atzera begiratuta, gaztetxearen aro baten amaiera markatu zuela ere esan

daiteke. Nolabaiteko garapen eta normalizazio bidean sartzen hasiak ginen ordurako. Onerako eta txarrerako. Lehen lauzpabost asteetan Udalak gaztetxea ezagutu eta gaztetxeari, argindarra mozten ahalegindu barik, urteroko aurrekontu bat onar ziezaion egin genuen borroka, hainbat eratan: udal batzarrera joan eta gaztetxeari buruz hitz egin eta erabaki artean irteera eragotzi genien behin zinegotziei, oso tentsio handia sortuz; batzokiaren okupazio sinbolikoak ere egin genituen; enkarteladak, pintadak, barrikadak eta bide mozketak...; borroka horren parte izan zen Xepe etxetik ihes egitera bultzatu zuen udal bandaren emanaldiaren sabotaia zaratatsua ere... Baina, nahiz eta Udalak gaztetxea ez ezagutu eta gaztetxeari dirulaguntzarik ez eman, gai horren inguruan nolabaiteko oreka batera iritsi ginen azkenean eta giroa baretzen hasi zen, poliki-poliki, oharkabean.

Kaleko mobiden ordez, gure ekimen kulturalak hasi ziren izaten, pixkanaka-pixkanaka, gaztetxearen ezaugarri eta sinbolo nagusi. Hori bai, heterodoxo eta eskandalagarri samarrak ziren horietako batzuk, bai Euskal Herriko *erreserba*

izpirituala zen gure herrian behintzat. Rock eta punk musikako kontzertuak antolatu genituen batik bat, baina baita antzerki emanaldiak eta beste era askotako ekimenak ere. Esate baterako, garai hartan astero-astero haxix zozketa egiten hasi ginen; dirua atera eta, bide batez, geure-geurea genuen drogaren legalizazioa aldarrikatzeko modua izan zen hura. Gogoan dut zozketa haietako txarteletan idatzitako testua: «*Hamar gramo palili*»; kontaezinak baitziren, izan ere, haxixa izendatzeko genituen izenak.

Udaleko neurgailua eta baskula txikitu genituen egunaren biharamunean ere bazen, astelehen arratsaldez, Gazteen Asanbladak antolatutako ekimen kultural bat: Pinturaren Festa. Herriko pintore enroilatu baten gidaritzapean, gaztetxeari kolore berriak eman zizkioten egun hartan zenbait gaztek, Xingular eta Esther horien artean.

Kanpoaldean hasi ziren lanean. «*Gaztetxea*» zioen letreroaren inguruan eta azpian, komiki estiloko hainbat irudi pintatu zituzten, lehendik zeuden grafitietako batzuk –´A` bat zirkulu baten barruan, okupazioaren zeinua, «*Gazte-*

txea, gure etxea»...– ezabatu gabe: talde punki bat zuzenean jotzen, akelarre bateko figurak, *rasta* bat porro handia erretzen...

Barrualdeari ekin zioten ondoren, ordura artean apaindura bakartzat letra okerrez egindako grafiti narrats batzuk baino ez zituen areto nagusiari. Haiek ezabatu eta hormetan muralak egin zituzten. Bi horma bat eginez, zaldiak pintatu zituen pintaketa lanak zuzentzen ari zen artistak, amets giroko paisaia magiko, koloretsu eta liluragarri batean. Beste horma batean, berriz, Estherren ideia bat gauzatu zuten Estherrek berak, Xingularrek eta beste kolega batzuek, elkarlanean; sokatira baten irudia zen: alde batean gazte jendea, gure erara jantzitako neska-mutil gazteak, arropa punkiz edo, bestela, bakero arruntez, eta bestean hainbat uniformedun: militarra, polizia nazionala, guardia zibila, ertzaina, gotzaina eta traje dotorez jantzitako gizona, hots, bankaria edo enpresaria. Barra atzeko horman zati txiki bat baino ez zen libre geratzen, gainerakoa barra atzeko apalategiek hartzen baitzuten; zati txiki hartan kalera jotzen zuen leiho bat zegoenez, pintore zuzendariari leiho in-

guruak kolore psikodelikoz egindako makula nahasiz apaintzea bururatu zitzaion.

Xepek ez zuen parte hartu pintaketa lanetan. Gaztetxean egon zen, ordea, pintoreak beren lanean ari ziren bitartean, Periskopio, Txus, Mirari, Leon eta Itsasorekin berriketan, porroak erre eta garagardoak edaten, tarteka-marteka pintaketa lan korapilatsu haiei begira. Beltza eta Tras ere, gaztetxeko bi txakurrak, han ziren, noiz zoruan usnaka, noiz etzanda eta begirada noranahi galduta. Zorua pintura potez eta egunkari orri zaharrez beteta zegoen eta, egoera horixe aitzakiatzat harturik, Periskopiok pintore sufrituei adarra jotzeko gogoa izan zuen.

– Hau ez duk kuxidadea! Gero txukun-txukun utzi behar duzue dena, aditzen al duk, Xingu? Ez ahaztu Xeperen etxean zaudetela, eta Xepe mutil txukuna duk gero...

Bere betiko umore ona erakutsiz, makurtuta lanean ari zen Xingularrek zutitu eta irribarrez erantzun zion Periskopiori, arratsaldeonen doinua eta jarrera imitatuz.

– Hau duk hau gazte jendea! Lanik egiteko gogorik ez eta lanean ari dena ere ezin bakean laga...

– Lana lehen ere nahikoa egiten diagu bestela. Ez gaudek alferrikako lanetan nekatzeko.

– Alferrikakoak? Ikusiko duk zer txukuna geratuko den hau.

Txusen ikuspegi estetikoa ez zetorren bat Xingularrenarekin.

– Alde ederra lehen zegoen bezala! Niri lehen oso ondo zegoela iruditzen zaidak. Pareta pintatu eta txukunak etxean zauzkaat nik, eta gaztetxera etortzen naizenean etxea ahaztea duk nahi dudana.

Itsasok, aldiz, nahiz eta pintaketa lanetan ez aritu, begi onez ikusten zuen Xingular, Esther eta abarren lana.

– Ba niri ondo geratuko dela iruditzen zaidak. Eta hik nahi duana esango duk, Txus, baina hemengo paretak ez dituk hire etxekoak bezala geratuko. Nire etxekoak baino askoz politago geratuko dituk behintzat, hori seguru.

Itsasoren oniritziaz baliatzeko aukera ederra ikusi zuen orduan Estherrek, lanari une batez utzirik.

– A, ba hain ondo iruditzen bazain, lagunduko digun pixka bat, ezta?

– Zertan? –estutu zen Itsaso–. Ez zaukanat aldatzeko arroparik...

– Ez, lasai, pintatzeko nahikoa jende gauden, baina agoarrasik gabe geratu gaitun eta Unamunorenera joan eta ekartzen badigun...

– Bueno, hori besterik ez bada... –Bere inguruko adiskideei begiratu zien gero–. Zeinek lagunduko dit?

Zalantzak bereganatu zuen kolpetik Xeperen barrua. Urduritasuna areagotu egin zen Periskopiok hautagai egokiena Xepe zela esan zuenean.

– Bueno, Xepe, egun osoa hemen pasatzen duk eta komeni zaik noizean behin bueltatxo bat ematea, aire pixka bat hartzeko besterik ez bada ere.

– Eta hiri ez ala? –atera zitzaion Xeperi, Itsasorekin bakarrik egoteko aukeraren beldur eta, batez ere, barruan zuen larritasuna ezkutatu nahi etsian.

– Gu ondo gaudek hemen, Xepe –esan zion patxada adierazten zuen bere doinu afektatuarekin Leonek–. Zuek etortzen zaretenerako porro bat egina izango diagu guk.

– Goazen ba –etsi eta irribarre urduriari ezin eutsirik abiatzeko keinua egin zuen Xepek.

– Hi zer, ez al hator gurekin? –galdetu zion Itsasok Mirariri, eserita zegoen taburetetik jaiki eta gero.

– Ez, nahiago dinat hemen geratu. Gure ama kalean ibiliko dun eta ez zaukanat harekin topo egiteko batere gogorik.

– Gero arte orduan.

Ez zion poztasun handirik ekarri Xeperi bere bihotzeko Itsasorekin bakarrik egoteko aukera xume hark.

– Burua huts-hutsik sentitu nian –esan zidan Xepek egun hartakoa kontatu zidanean–. Ez zitzaidaan Itsasori une hartan komentatzeko moduko ezer bururatzen, eta berak ere ez zidaan ezer esaten. Isil-isilik joan gintuan biok Unamunoreneraino. Nirekin baino askoz gehiago hitz egin zinan kalean ikusitako ezagunekin. Niri ezta kasurik ere. Ni inor izango ez banintz bezala.

– Jakina, hik ez bahion ezer esaten...

– Ez nekian zer esan, Niko. Zeharo blokatuta nengoan, ezinduta... Berak nahi duenean Itsasok bazakik hizketarako gaiak ateratzen. Baina harentzat bere ondoan egongo ez banintz bezala zuan. Edo okerrago: molestatu egiten niolako irudipena nian.

– Bueno, bueno, Xepe, ez hadi paranoikoa izan. Igual bera ere blokatuta egongo zuan, hi bezala, hi harentzat berezia haizelako... Akaso seinale ona duk Itsasok hiri hitzik ere ez esatea.

Kontsolamendu ahalegin hark ez zuen batere indarrik ordea, are gutxiago agoarrasa erosi eta gero Itsaso eta Xepe gaztetxera itzultzen ari zirela gertatu zena kontuan hartuz gero: Poli, Trino eta Nekanerekin topo egin eta haiekin Dean tabernara joatea erabaki zuen Itsasok, abarrasa gaztetxera eramatea Xeperen kargu utziz.

Ondorio garbia atera zuen Xepek agoarrasaren kontu etsigarri haren ondotik.

– Garbi geratu zuan Itsasorekin ez dudala zer eginik... Eta hobe horrela. Egia esanda, ederra duk eta nahiko nikek berarekin egon. Baina be-

rarekin egonda, zer egin? Ez zauzkaat ideiak batere garbi, Niko.

Agudo ezarri zuten telefonoa gaztetxean, Xepek artean etxetik kanpo bi aste eta erdi baino ez zeramala. Bertan bizi eta bertako tabernari lanak egin ohi zituenez, Xeperi egokitu zitzaion hark batere maitea ez zuen traste haren deirik gehienei erantzutea. Hala ere gutxien hartu nahi izango zuen hura iritsi zenean, telefonoa jarri zuten aste bereko larunbateko bazkalondoan, ez zen bera egokitu aparailuaren ondoan.

– Hi, Xepe, hire amak hots egin dik lehenxeago telefonoz hitaz galdezka –esan zion arratsalde hartan gaztetxeko barran egokitu zen Xingularrek, orduantxe lokalean sartu berriak ziren Xepe eta bere baskakoei garagardoak ateratzen zizkien bitartean.

– Amak? –harritu eta urduritu zen Xepe–. Eta zer nahi zuen?

– Hirekin hitz egin. Ez hengoela hemen esan zioat.

– Besterik esan al dik?

– Ez, ez dik ezer esan.

– Traste madarikatu hori! –atera zitzaion barru-barrutik Xeperi, telefonoari gorrotoz begira. Guztiz patetikoa zen bere aurpegiera: tenk jarri zitzaizkion lepo meheko giharre finak, xitel-xitel, eta ezpainak itxuratxarki bihurritu, beldurgarri baina, aldi berean, barregarri–. Txiki-txiki eginda lagako haut halako batean! Kabroi zikina!

Isilik geratu ziren Xeperen adiskideak. Inork ez zekien zer esan. Periskopiok urratu zuen isilunea, Xeperi bere iritzia emateko.

– Ez duk horrela jartzekoa ere, Xepe. Ez duk harritzekoa ama hire bila izatea. Hik ez badiok kasurik egiten...

– Egon hadi isilik! –oldartu zen haserre baina hala ere lehen baino pixka bat lasaixeago Xepe–. Ez diat ezer ere jakin nahi familiarekin. Orain bake-bakean nagok eta ez diat bake hori inork izorratzerik nahi, ulertzen al duk?

Beste isilune laburra sortu zen. Amorruaren ordez bazirudien negargura zela nagusitzen hasia Xeperen baitan. Ordura artean isilik egon zen Mirarik serio hitz egin zion orduan Xeperi.

– Aita eta anaiak ez zakiat, baina ama asko sufritzen ari duk, Xepe. Joan den larunbatean, Fidel zuen Azpeitiko lehengusuaren bodan, Arantzazun, oso gaizki pasatu zuela esan zidaan, denak hiregatik galdezka eta bera zer esan ez zekiela... Ni ikusten nauen bakoitzean galdezka hasten zaidak eta lasaitzen saiatzen nauk, baina...

– Hik esaion ondo nagoela, baina lagatzeko ni bakean. Eta ez hots egiteko berriz hona... –Isilune labur bat egin zuen, kalkuluak ateratzen ariko balitz bezala–. Seguru hik eman dionala hemengo telefonoa.

Xeperen begirada salatzaileari harro eutsi zion Mirarik.

– Ba bai... Gaizki iruditzen zaik ala?

Xeperi, aitzitik, behera joan zitzaion begirada, burua makurturik.

– Ez zakinat, Mirari, ez zakinat... Ez dinat horretaz pentsatu nahi...

Indarrak bildu eta burua altxatu zuen berriro, inguruan zituenei begiratzeko kemena berreskuraturik. Trago luzea jo zion eskuan zuen garagardoari.

– Egin ezak porro bat, Kopio –esan zuen gero, botila barra gainean uzten zuen bitartean.

Arrastoa utziko zuen parranda latza etorri zen ondoren. Larunbat gau hartan bero-bero eginda ibili ziren Xepe, Periskopio, Leon, Mirari, Kantxa eta Txus, tripi bana janda. Bolada hartan nahiko ohikoak izan ziren tripiak gure artean. Nahiz eta LSDak gure aurreko belaunaldiko batzuen buru-osasuna kolokan jarri zuela jakin, oso erakargarria zitzaigun aluzinogeno koloretsu eta bitxi haien puskerra.

Xingularren adiskide baten bitartez egindako kontaktuari esker, Frites Modernes talde punki holandarraren kontzertua genuen gaztetxean. Talde indartsua zen eta oso giro ona sortu zuen kontzertuak. Pogo saio ederra egiteko aukera izan zuten punkizalerik amorratuenek.

Zenbaiti gutxitxo iruditu zitzaien, ordea, kontzertu hura. Izan ere, Frites Modernesen emanaldia, bere gogorrean ere, musika zerutiar gozoa baino ez baitzen izan Cirrosis, Optalidón, Basura eta Odiok bi aste lehenagoko ostiralean sortu

zuten kristoaren aldean. Pipi ari zen barran lanean, eta Frites Modernesen kontzertua amaitu eta gero Pipiri Sex Pistolsen diskoa jarriarazi eta musikarientzat prestatutako oholtza gainera igo zen Txus. Nahiz eta deskonektatuta egon, tinko eutsi zien mikrofonoari eta mikrofonoaren zutoinari, eta, diskoko kantuarekin bat eginez, *play back* zoro bati ekin zion, bene-benetan ariko balitz bezala, buru-belarri, guztiz kontzentratuta bere zereginean. Ez zekien ingelesez baina horrek ez zuen axolarik, noski, ez baitzuen horren beharrik Sid Viciousena egiteko. Kontzertuan egondako jende asko gaztetxetik irtena zen ordurako baina hala ere jende multzotxo bat osatu zen oholtza aurrean. Xepe, Leon, Mirari, Kantxa, Periskopio eta beste batzuk zeuden lehen lerroan kokatuta, oholtzatik gertuen. Sex Pistolsen kantak Txusek zuzen-zuzenean kantatuko balitu bezala jarraitzen zituzten, dantza eroan, elkarri bultzaka. Txusi muturrera listua botatzen hasi ziren aurki batzuk, eta Txusek, haserretu barik, are gusturago jarraitzen zuen berean, *play back* harrigarri hartan itsu-itsu murgilduta. Ni eszenatokitik urrun samar nengoen, Antijos, Xingular,

Urrategi eta Estherrekin. Harrituta geunden Txusek sortutako ezusteko ikuskariari begira.

– Ikusten al duzue hori? –komentatu zigun Pipik irribarrez barra barrutik–. Alkateak hau ikusiko balu...

– Bihotzekoak jota hementxe bertan geratuko lukek gizagaixoa –erantzun zion irribarrez Antijosek, eskuan zuen garagardo latari tragoa jo baino lehen.

Ez bakarrik herriko alkatearentzat edo herriko alkatearekin bat etortzeko moduko jendearentzat, EAJ eta ingurukoentzat alegia, ezker abertzaleko jende askorentzat ere asaldagarriak ziren Txusen *play back* haren gisako bat-bateko ekimen eroak, guri berriz, fresko eta dibertigarri iruditzen zitzaizkigunak, guri ondo sentitzen laguntzen zigutenak.

Preso eta errefuxiatuen aldeko edo errepresioaren aurkako manifestazio eta kale borroketan elkarren ondoan izan gara beti HBkoak eta gu. Asko izan ziren kaleko mobidak garai hartan: 1983ko abenduan GALek Ramon Oñederra *Kattu*

errefuxiatu azkoitiarra hil zuen, eta beste asko gero, 1984an zehar; gainera, Belgika eta Frantziako Gobernuak euskal exiliatuak estraditatzen hasi ziren urte hartako udan. Gure lehen bileretatik hasi eta okupazioarekin jarraituz, HB izan zen gaztetxearen mugimenduaren alde agertu zen alderdi politiko bakarra, eta HBko zinegotzien bidez sartzen genituen, adibidez, mozioak Udalean. Baina ez ziren, haatik, inoiz ere oso ondo konpondu gurekin HBkoak, eta gaztetxean oso noizean behin baino ez ziren sartzen, musika emanaldiak zeudenean soilik ia-ia.

Oro har, oinarrizko hainbat puntu nagusitan –presoen zein langileriaren aldeko borroka, errepresioaren gaitzespena, Espainiako Konstituzioaren zein EAEren Autonomi Estatutuaren erabateko ukoa eta abar– gu haiekin bat etorri arren, gure ideiak eta haienak ez baitziren guztiz parekoak: ordezkaritzarik eta bozketarik onartu gabe, erabaki guztiak asanbladaren bidez hartzearen alde geunden gu, autogestioaren alde, abangoardia eta hierarkia modu guztien aurka...

Horregatik, esate baterako, Komando Autonomo Antikapitalistek Enrique Casas PSOEko se-

nadorea hil zutenean ere –1984ko otsailak 23– izan ziren gora-beherak HB eta gure artean, edota HBko batzuen eta gure arteko batzuen artean behintzat. HBk hilketa hura gogor gaitzetsi eta gerra zikinarekin lotu zuen, eta atentatua kondenatzeko biharamunean egin zen greba orokorrerako deialdiari sostengua eman. Komando Autonomoekin zerikusi zuzenik ez genuen arren, haiek gertuko erreferentzia ziren guretzat. Izan ere, Komando Autonomoak, gu bezala eta ETA edo HB ez bezala, mugimendu asanblearioaren eta autogestioaren alde zeuden, eta, gu bezala eta ETA edo HB ez bezala, abangoardia eta hierarkia guztien aurka. Horrenbestez, guk ezin genuen begi onez ikusi HBk Komando Autonomoak gaitzetsi eta arbuiatzea.

Nolanahi ere, ideietan baino alde handiagoa zegoen bizitzaren edozein arlotan genituen jarreretan, eta hori zen, nire ustez, funtsezkoena, hori zen benetako aldea, gutariko askok –Xepe zen horren adibide garbi– gatazka politikoen inguruan ez baikenuen ez jakintza handirik eta ezta aparteko interesik ere. Estuegiak ziren, gure ikuspuntutik, HB eta Jarraikoak, ez guztiak

beharbada baina bai gehienak behintzat. Estuegiak gizarteari buruz zuten ikuspuntuan eta estuegiak eguneroko jokabideetan. Ortodoxoegiak. Arratsaldeonegiak. Gure gurasoen antzekoegiak. Eta, gatazka politiko ororen gainetik, horixe zen haien eta gure artean zegoen benetako leizea.

Txusen *play back* basatiaren ikuskizunaren ondoren, kalera irten ginen Antijos, Xingular, Esther, Urrategi eta bostok, herriko tabernetan pote batzuk hartzeko asmoarekin. Etxe-Aitz tabernaren atariko aulkietan eserita geundela, Julen inguratu zitzaigun, Xingularren adiskide min, gogaide eta burkide izandako *jarraitxo* azpeitiarra. Ez zen oso maiz izaten gaztetxean baina egun hartan Frites Modernes ikusten izana zen, eta Txusek kontzertuaren ondoren emandako ikuskariarekin harri eta zur gelditua.

– Hi, Xingu, kontzertua oso ondo, baina ez al zaik iruditzen geroko emanaldi hori gehiegitxo izan dela? Bueno, pixka bat ondo zagok baina gaurkoa zatar samarra izan duk. Gaztetxea zaindu beharreko gauza duk.

– Lasai, motel! –erantzun zion Xingularrek, irribarrea galdu gabe–. Ez ziotek inori kalterik egin, ezta?

– Baina gaztetxean jende mordoa zegoan eta badakik orain zer esango duten hor zehar, gaztetxea kaos hutsa dela eta horrelako kontuak. Gaztetxearen irudia erabat izorratuta geratzen duk horrelako txorakeriekin. Horrela hasten bazarete, orain arte lortu duzuen dena pikutara joango zaizue segituan.

Julenekin tratu handirik ez nuen arren, neu atera nintzen orduan Txusen eta bere adiskideen defentsan.

– Horiek prejuizioak dituk, besterik ez, eta horrelako prejuizioekin hautsi beharra zaukaagu. Txusentzat ondo pasatzeko modua duk egin duena, besterik gabe. Bakoitzak nahi duen moduan dibertitzeko eskubidea izango dik ba!

– A zer dibertitzeko modua, alajaina! Ez didak esango hori normala denik...

Ordura artean solasaldi hartatik nahikoa aparte egon bazen ere, Antijos Xingular eta ni baino zakarrago mintzatu zen orduan, auzia erabakita utzirik.

– Normala? Eta zer da normala? Futbolean jokatzea? Batetik bestera korrika zoro baten moduan eta denak elkarri ostikoka? Horren aurka ez duzue ezer, ezta? Zergatik da bata normala eta bestea ez? Gaztetxeak horrelako ikuspuntu interesatuak puskatu behar ditik, bestela ez dik ezertarako balio. Eta ez bazaizue gustatzen, oraindik ez bazaudete horrelakoak ametitzeko prest, ez joan gaztetxera eta kito. Ez zaukaagu zuen beharrik. Askoz lasaiago egongo gaituk zuen sermoirik gabe.

– Bueno, motel, ez daukak horrela haserretu beharrik...

– Ezta hik apaizarena egin beharrik ere! Beti berdin ari zarete zuek!

Ordura artekoak nahikoa zer esan eman bazuen ere, Txus, Kantxa, Periskopio, Mirari, Leon eta Xeperen gau hartako abenturak amaitu gabe zeuden artean. Tripiek zurruterako ematen duten erraztasunak akuilaturik, Dean, Atraskua eta Etxe-Aitzen garagardo mordoa edan eta, larunbat gauetan ohikoa zenez, porro mordoa erre

ondoren, taberna denak itxi zituztenean, etxera joateko batere gogorik ez zutela-eta, gaztetxera itzuli ziren, Xepek giltza zeukala baliatuz. Sartu baino lehen, Urrategi eta Xingularrek egun batzuk lehenago kanpoko sarrerako ate ondoan ezarritako gutunontzi berriari heldu eta indarrez tiraka hasi zen Kantxa, bere barruko amorru guztia kutxatxo hari zuzendurik. Hormari gogor erantsita zegoenez, ez zuen hasieran gutunontzia pixka bat mugitzea baino lortu, baina Txus ere tiraka hasi zenean bion artean gutunontzia hormatik desatxiki zuten, lagun guztien algara zoroen artean. Gutunontziari ostikoka futbolean jardun zuten gero pixka batean. Ondo-ondoan zuten, gaztetxearen aldamenean, Urola ibaia, eta Periskopiok haraxe bota zuen gutunontzia azkenean, uretara, ostiko gogor batez.

Gaztetxean sarturik, Tras aurkitu zuten areto nagusian, bazter batean etzanda. Txus zaunkaka hasi zitzaion, amorruz, eta txakurrak zutitu eta zaunkaka erantzun zion Txusi. Baina Kantxak ostikoa jotzeko keinua egin zionean izutu eta aretotik herioan irten zen, herrenka, txakur koitadua. Txakurraz ahazturik, diskogailura jo, Sex

Pistolsen diskoa jarri eta elkarrekin borrokan ariko balira bezala dantza egiten hasi ziren Txus eta Kantxa. Esther, Xingular eta abarrek aurreko astean pintatutako zaldien koadroari pixa egitea bururatu zitzaion orduan bat-batean Txusi, eta Kantxak ere zeregin berari ekin zion. Pixa egiten ari ziren adiskideei sustoa eman nahian, isilean barra barruan sartu, hozkailutik garagardo botila atera eta Txus eta Kantxarengana jaurti zuen indarrez Periskopiok. Bion arteko tartean horma jo eta lehertu egin zen botila. Txus eta Kantxari gustatu egin zitzaien Periskopioren ideia eta aurki ziren haiek ere hozkailutik botilak atera eta hormaren kontra jaurtitzen, indarrez, amorruz, erotuta baleude bezala.

Iskanbila zoro haren erdian, barra ondoko horman kokatutako telefonoari begira-begira geratu zitzaion une batez Xepe. Eskuetan taburetea hartu eta telefonoa zegoen tokira jo zuen.

– Ez, Xepe, ez... Hori ez... –egin zion oihu Periskopiok, Xepek zer egiteko asmoa zuen igarririk.

Beranduegi ordea. Indar handirik ez bazuen ere, gogor ekin zion Xepek taburetearekin telefo-

noari harik eta hormatik oso-osorik desatxiki eta zorura bota zuen arte. Bere onetik irtenda balego bezala, oihuka eta algaraka, Xeperi laguntzen hasi zen Kantxa, zorura eroritako aparailuari ostikoka. Txus ere berehalaxe hurreratu zen Kantxari laguntzera. Leon eta Mirari ez ziren mugitzen, barraren bazter batean zeuden, barre algaraka, begien aurrean zuten ikuskariarekin gozatzen. Periskopio, berriz, etsita eta akiturik, bi hormaren arteko bazterrera jo eta botila hautsietatik isuritako garagardoz bustitako zoru likinaren gainean eseri zen, kuzkurtuta, besoekin belaunak inguraturik. Lur jota zegoela zirudien baina bat-batean barre algaraka hasi zen hura ere, bere kasa.

Bere-berea zuen antzezpenari ekin zion Xepek orduan: tiroa eman baliote bezala, belaunak tolestu, eskuak sabelera bildu eta zabuka ibiltzen hasi zen, harik eta, hantxe bertan hil balitz bezala, Periskopioren ondoan ahuspez erori zen arte. Hautsitako beira zati batek ezkerreko esku ahurrean egindako ebakitik odol arrasto mehea isuri zitzaion.

–VII–

Igande eguerdian esnatu zenean Xepe ez zen bezperako ezertaz ere gogoratzen. Zerbait berezia gertatu ote zeneko susmoa bazuen baina ezta arrastorik ere zerbait hori zer izan ote zitekeen. Esnatu orduko burua iltzez betea, birikak kez gainezka, ahoa lehor-lehor eta zangoak zama-zama eginda sentitu zituen. Soinean zuen elastiko lohituari, berriz, kearen, izerdiaren eta batez ere garagardo lehortuaren aztarnak nahasten zituen kirats narratsa zerion. Bezpera gauean esku ahurrean egindako ebakitik ateratako odol arrasto mehea gogortua zuen ordurako, maindire nahasietan makula txiki batzuk utzi ondoren.

Koltxoi gainetik jaikitzen hasi zenean eskuekin buruari heldu behar izan zion, burmuinak zulatzen zizkioten iltze zorrotzei geldirik eusteko ahaleginean. Eztulka hasi zen ordea eta orduan ezinezkoa izan zitzaion iltzeen zaztada eragoztea.

Eskuarekin haztaka, koltxoiaren ondoan kokaturik zuen gaumahai korrokoilaren kaxoian aspirina kaxaren bila hasi zen. Kostata lortu zuen aspirina kaxa aurkitzea, kaxoi txiki hartan baitzeuzkan, anabasa batean, garai hartan eskueran zituen bere ondasun guztiak: kaset-zintak, latorrizko txapak, pizkailua, erretzeko papera, tabako paketea, giltzatakoa, gomazko sugandila eta ziraunak, erremota, labana, antxoa eta sardina latak, pipermin potea, bizpahiru laranja...

Jaiki, logelatik irten eta gaztetxeko areto nagusirantz abiatu zen, aspirina irensten eta ondoa apur bat baretzen lagunduko zion Coca-Cola baten egarriz. Gelatik irten orduko aditu zuen pixaren eta garagardo lehortuaren kiratsa. Ateraino heldu eta aretoa ikustean bat-batean etorri zitzaion gogora bezpera gaueko abentura osoa. Horrekin bat, komunera larri-larri behartu zuen goragale ezin eutsizkoa sentitu zuen.

Botaka egin ondoren, barrenak pixka bat garbi eta lasaiago zituela, aretora sartu zen berriro Xepe, bezperako txikizioaren arrastoei begira. Barra barruko hozkailutik hartutako Coca-Cola baten laguntzaz aspirina irensten zuen bi-

tartean, barraren aldameneko leihoa zabaldu zuen, kiratsari irtenbidea emateko.

Diskogailuan *My way* kantaren Sid Viciousen bertsioa jarrita, aretoan zehar bueltaka ibili zen, begi aurrean zituenei bideo-klip bateko irudiak izango balira bezala begiratuz. Nik uste dut irudi haiek ordura artean inoiz ezin adierazi izan zuena adierazteko ezin egokiagoak iruditu zitzaizkiola Xeperi. Harentzat ekimen ezin ederragoa zen bezperako triskantza, hitzez ezin esan zuena esaten, oihukatzen, aldarrikatzen laguntzen ziolako. Zer aldarrikatzen? Ez dakit. Hitzez ezin esan daitekeen hori, ulertu, nik uste dut batzuek ulertu genuela, nola edo hala, nork bere erara. Nahiz eta ulertu dugun hori *Interviú*-koei azaltzea guztiz ezinezkoa zaigun, jakina. Bai, Xeperentzat bezperako basakeriaren gomuta zinez gauza ederra zen. Liluragarria iruditzen zitzaion basakeria hark utzitako ondorio narratsei begiratzea. Eta lilura hura komunikatu eta transmititzeko premia zuen barru-barruan.

– Oso garbi izan nian ez nuela ezer jasoko, dena zegoen bezalaxe laga behar nuela. Gazte-

txeko jendeak hura nola gelditu zen ikus zezan nahi nian.

Besterik gabe, zain geratu zen, Coca-Cola edaten, hantxe aurkitu zuen *Ajoblanco* aldizkariaren zenbaki atzeratua esku artean hartuta. Heroinari buruzko erreportaia luze-sakon baten irakurketan murgildu zen.

Ez zuen irakurketarako beta handirik izan ordea. Ordu bata eta erdi inguruan, disko batzuk hartzeko asmoz, Antijos eta Pipi sartu ziren gaztetxean, begi aurrean zutena sinetsi ezinda.

– Zer hostia gertatu da hemen? –galdetu zuen haserre Antijosek.

– Bart gauean dena txukun-txukun laga diagu barren! –komentatu zuen harriduraz Pipik.

Ordura artean bere buruaz ziur sentitu bazen ere, Xepe larritu egin zen bat-batean. Bezperakoaz damurik batere ez zuen baina bazekien zaila izango zela Antijosen aurrean bere arrazoiak argitzea, ezinezkoa Xepe bezalako hizlari motz, trakets eta inseguru batentzat. Hitzez ezer ganoraz azalduko bazuen, Atraskuko aitorlekua eta Atraskuko apeza behar zituen hark ondoan, On Nikolas apal hau, eta Antijos aurrean izatea

oso bestelako kontua zen, dudarik gabe, are zailago hark gaztetxearen egoera ikusi ondoren ageri zuen begitarte asaldatua kontuan harturik.

– Zer hostiatan ibili zarete? –galdetu zion, jenio txarrez, Antijosek Xeperi, areto nagusiaren egoera tamalgarriaz jabetzeko behar izan zuen tarte laburraren ondoren–. Zer kristo da hau?

Barra atzean babestuta zegoen ordurako Xepe. Harengana jo zuen Antijosek bat-batean, besoak astinduz, amorru bizian.

– Esplikatuko al didak? Ala hostiaka hasi behar dugu hementxe bertan?

– Ez duk ezer, Anti, ezer ez... –dardara egin zuten, trakets, Xeperen ezpainek–. Ez hadi horrela jarri. Hi ez al haiz sekula mozkortu?

– Ni mozkortzen naizenean kotxe gainetara igotzen nauk edo telefono kabinak txikitzen ditiat, baina gaztetxea bakean uzten diat. Hik zer uste duk, hau hirea bakarrik dela ala? Hostiaka aterako haut hemendik, mekaguen Dios!

Bero-bero eginda, paparretik heldu zion Antijosek Xeperi baina, barra tarteko zela, ezin izan zion nikia ganoraz oratu eta, atzera eginez, Antijosen atzamarretatik askatzea lortu zuen Xepek,

ez ordea berriro buru barruko iltzeen zaztada zorrotzak pairatu gabe. Goragalea sentitu zuen berriz, baina eusteko modukoa oraingoan hala ere.

– Lasai, Anti, lasai... –besoetatik heldu zion Pipik Antijosi, Xepe jotzen hasiko ote zen beldur–. Ostiraleko asanblean lasaiago hitz egingo diagu, eta denon artean erabaki zer egin. Orain alferrik duk...

Antijos pixka bat baretu zela ikusirik, hitz egiten ausartu zen Xepe, barrara asko hurbildu gabe badaezpada ere, gorputz kaskar, unatu eta birrindua iheserako prest.

– Bazakiat bart gauekoa gogor samarra izan dela baina batzuetan... badakik... Behar genian...

Haserre jarraitzen zuen arren, eskuak geldiago zituen sikiera Antijosek.

– Ba hurrengoan batzokira joan zaitezte horrelakoak egitera.

Iltzeen zaztaden mina gainditu eta buru barruan zituen indarrak biltzeko ahalegin berezia egin zuen Xepek. Ez zitzaion zeharo gaizki ere atera.

– Hori erraz esaten duk baina hik badakik beste inon ezin dugula horrelakorik egin. Horrelakoak ez dituk aldez aurretik planeatzen, sortu egiten dituk, berez, eta ez noiznahi, ez edozein lekutan... Ez zagok kontrolatzerik. Gaztetxea duk gure aukera bakarra, beste gauza askotarako bezala baita horretarako ere.

Pipik baiezkoa egin zuen buruaz, Xeperi arrazoi emanez bezala, baina zalantza ere adieraziz.

– Bueno, bai, baina...

Antijosek ez zion, ordea, bere zalantzak planteatzeko aukerarik utzi Pipiri. Ez zegoen Xeperen arrazoi ahulen aurrean amore emateko prest.

– Ba horretarako bakarrik behar baduzue gaztetxea, hobe duzue hik eta hire lagunek beste gaztetxe baten bila hastea. Ostiraleko asanblean hitz egingo diagu horretaz. Argi eta garbi! Beraz, zeuek ikusi!

Bere ezkerraldera jo eta han horretarako propio zegoen hutsunetik barra barrura sartu zen orduan Antijos. Larriturik, Xepe barra gainetik jauzi eginez pasatu zen bestaldera, kanpoaldera, ihesi.

– Lasai, motel, ez haut ikutuko –mesprezuz mintzatu zitzaion Antijos–. Disko batzuk hartzera sartu nauk.

The Doors eta The Pentangleren disko bana harturik kalerantz irten zen Antijos, Pipirekin batera.

Hurrengo bisita askoz ere gozoagoa izan zen Xeperentzat: Txus, Periskopio eta Mirari sartu ziren gaztetxean arratsaldeko hirurak inguruan. Mirarik, gainera, otartekoa eraman zion Xeperi.

– On egingo dik pixka bat jateak. Solomoarena duk, piperrekin. Telefonoz hots egin eta zerena nahi huen galdetzea ere pasatu zaidak burutik baina...

– Alfer samarrik hots egingo huen, bai... Dena dela, portatu haiz, Mirari... Baina hurrengoan saltxitxena ekartzen badun hobe.

– Hi eta hire saltxitxak! Niri nazka ematen zidatek.

– Bokadiloa niretzat bada, zer axola zaio hiri nazka ematen badin?

– Egon hadi isilik. Solomoak saltxitxek baino mesede handiagoa egingo dik eta jan ezak behingoz, esplikazio lehorrak lagata. Ez al da inor etorri gaur?

– Antijos eta Pipi izan ditun eguerdian –erantzun zion Xepek, hortzekin otartekoari kendutako lehen zatia artean ere ahoan zuela.

– Antijos? Gozoa jarriko zuan!

– Ba ez zaion batere gustatu, ez, hemengo panorama. Haserre zegonan. Pasatuko zaion... Eta bestela berarentzat kalte, ezta?

– Atzokoa azkenean gehiegizkoa izan zuan –esan zuen kezkati, ajeak lakartutako ahots ilunez, taburete gainean eserita eta burua barra aldera makurtuta, Txusek–. Gaztetxea denona duk eta... Txorakeriak egin aurretik gauzak pixka bat pentsatzea ez duk txarra izaten.

– Bai, Txus, atzokoa gogor samarra izan zuan –egin zion errieta Mirarik–, hori nahiko garbi zagok. Baina horrek ez zaukak bueltarik. Orain bazterrak pixka bat txukundu, horixe duk egin behar duguna. Buzoiarena eta telefonoarena ez diagu konponduko baina gutxienez narraskeria

hau pixka bat jasotzen badugu zeozer aurreratuko diagu.

– Bai? Benetan? –galdetu zion irribarre herabe baina aldi berean ironikoz Xepek–. Pena ematen zidan. Ez al dago ederra horrela? Niri gustatzen zaidan. Gero ere izango dun bazterrak txukuntzeko denbora.

– Hi burutik eginda hago! –harritu zen Mirari.

– Nik jendeak gaztetxea honela ikustea nahi ninan. Bazakinat txorrada bat dela, baina kapritxo hori ninan, eta horrexegatik ez dinat ezer txukundu. Dena dela, bueno, bestela haserretu egin behar baduzue, txukunduko dinagu hau pixka bat. Baina baldintza batekin: lehenengo bokadiloa lasai jaten lagako didazue eta gero txiki pare bat erreko dinagu. Bale?

– Oso ondo –erantzun zion Periskopiok, eta patrikatik haxix puskatxoa atera eta hortzekin bereizi zuen txina bat–. Oraintxe bertan hasiko nauk lanean. –Barra ondoan burumakur eserita jarraitzen zuen Txusi astindu bat eman zion–. Zeozeren premia izango diagu ondoa pasatzeko, ez al da hala, Txus?

– Ekarri hona kostoa. Neuk egingo diat peta bat –esan zuen Txusek burua pixka bat altxatuz.

Gertakari latza izan zen gaztetxeko txikizio hura, eta eman zuen, bai, zer esanik. Ez dakit gaztetxeari mesede ala kalte egin zion Xepe eta bere adiskideen jokabideak, baina gure artean debate bizi eta interesgarria pizteko balio izan zuen behintzat. Gogoan dut igande arratsalde hartan bertan Dean tabernaren atariko arkuaren azpiko sakakuloan –hortxe sortutako txikitako jolas baten izena gogoratuz deitzen diegu horrela arkupe horretako bizkarralderik gabeko jesarlekuei– eserita geundela izan genuen tertulia, eztabaida, debate edo dena delako hura.

Hasieran Leon, Urrategi eta hirurok bakarrik geunden han, herriko enparantza zabalari begira, seiak edo zazpiak inguruan, arratsaldeko eguzkipean porroak erretzen eta pipak jaten, garai hartan askotan egoten ginen bezala, sakakuloak –eta Dean tabernaren aurrekoa berezikibeti izan baitziren gure topaleku nagusietako bat, gaztetxearen eta Atraskuaren ondoren ga-

rrantzitsuena. Leonek bezpera gaueko txikizioaren jakinaren gainean jarri gintuen Urrategi eta biok. Urrategiri ez zitzaion batere atsegin izan albistea. Niri, berriz, miresmenetik ere zerbait bazuen zirrara berezia eragin zidan Xepe telefonoa txikitzen imajinatzeak.

Gure ikuspuntuak trukatzen ari ginela, Xingular eta Esther guregana hurreratzen ikusi genituen.

– Hik daukak azala, hik! Gaztetxea garbitzera joatea burutik pasatu ere ez zaik egin hiri, ezta? –bota zion errieta doinuz baina irribarrez Estherrek Leoni, gureganaino heldu eta gurekin batera sakakuloan esertzen zen bitartean. Xingular zutik geratu zen, gainerako lauron aurrean.

– Poliki, neska, poliki... Nik ez ninan ez pixa egin eta ez ezer puskatu –desenkusatu zen berehala Leon bere betiko doinu afektatuan–. Bueno, buzoiari ostiko batzuk eman bai, baina ordurako lurrean zagonan ja, beraz...

– Bejondeiola gure markesari! Hi ez haiz alferrik galduko horratik!

– Izan al zarete zuek gaztetxean? –galdetu zien Urrategik heldu berriei.

– Handixe etorri gaitun oraintxe –erantzun zion Xingularrek–. Mirari, Xepe, Periskopio eta Txusi lagundu zienagu garbiketa lanetan.

– Bueno, Txusek, egia esanda, ez zinan ezer egiteko ganora handirik –ñabartu zuen Estherrek–, baina han zebilenan bueltaka, penitentzia egiteko besterik ez bada ere.

– Eta zer moduz paretetako pinturak?

– Pixka bat hondatuta, baina azken batean orain benetakoagoak ditun horrela –bere betiko umorea erakusten zuen Xingularren erantzunak–. Gaztetxea gaztetxea dun eta bere estetika berezia ere izan behar din, ezta?

– Eta telefonoa, zer moduz? –galdetu nuen nik burlaizean–. Horrek ere estetika berezia omen dik orain, ezta?

Xingularrek umore onari eutsi zion, gertakariak desdramatizatu nahian edo.

– Bakea emango dik orain... Gurekin harremanik nahi duenak gureganaino etorri beharko dik. Beraz, lasaiago egongo gaituk horrela. Ez

duk ezer gertatzen. Dena ondo zagok. Dena bere tokian.

Barru-barruan sartutako arantza zuen, ordea, Urrategik telefonoarena.

– Ba guri, emakumeoi, aukera asko moztuko zizkiguk, ez pentsa.

– Bazagon berriz jartzea ere –proposatu zuen Estherrek.

– Bai, ez alferrik! Ederki jaioa hago hi berriro ere telefonoa jartzen badun!

– Nire ustez, telefonorik gabe hobe –esan zuen Leonek–. Niri traste horrek ez zidanan batere susmo onik ematen. Eta ondo iruditzen zaidan Xepek egin zuena, zer hostia! Porkulo hartzera telefonoa eta horrelako hostiakeria denak!

Urrategi bere onetik ateratzen zuen Leonen zabarkeriak.

– Hik oso erraz ikusten dituk gauzak, Leon, baina horrela ez gaituk inora ere ailegatuko.

– Ailegatu? Nora ailegatu nahi dun? Gaztetxea hortxe zagon, geurea dun eta hor nahi duguna egiteko aukera zaukanagu. Zer gehiago nahi dun ba?

Armonia bila egindako saioa izan zen Xingularren azalpena orduan, serioa ordura arteko bere jardun arinaren aldean.

– Ez dinat uste telefonorik gabe benetan asko galduko dugunik. Lan egitea nahi badugu, feminismoan, antimilitarismoan edo edozein gairen inguruan, aukera bazaukanagu, Urra, eta horretan saiatu behar dinagu, besterik gabe, telefonoaren kontua ahaztuta.

– Bai, baina bart gauekoa atzera emandako pausoa iruditzen zaidak, eta konturatu baino lehen oso bide peligrosoan sar gaitezkek horrela segituz gero.

– Neska, politikoa ematen dun oraintxe! –umorearen bidetik hurbil berriro ere Xingular.

Ordura artean dena isil-isilik entzuten egon banintzen ere, neuk ere zerbait esan behar nuela iritzi nion une hartan.

– Azken batean, gu askatasunaren alde gauden, ezta? Eta zerk ukatzen dio Xeperi gaztetxeko telefonoa puskatzeko askatasuna? Denetarako askatasuna eskatzen ari gaitun eta gero mugak jartzen zizkionagu askatasunari. Horreta-

rako ez al dugu hobe denok Jarrain edo EGIn sartu eta kito?

– Ez ezak demagogia merkerik egin, Niko –bota zidan Urrategik serio-serio–. Zer irudituko litzaiake nik Atraskuko telefonoa txikituko banu?

– Egin ezan aproba. Ez dun hain erraza izango. Nik ez dinat ezer esango, baina argi ibili Paulorekin, ez dun gozoa jarriko eta!

Nire txantxa ergelari jaramonik egin gabe, bere jarrera azaltzeko beste ahalegin bat egin nahi izan zuen Urrategik.

– Aizue, niri ere gustatzen zaidak parranda ederrak botatzea, zoroarena egitea, deskontrolatzea, baina gaztetxea denona duk eta zaindu egin behar diagu. Gurea dela konturatu behar diagu.

Xingularrek umorearen bidetik hautsi zion berriro ere argudioa Urrategiri.

– Gurea? Ez al gaude propietate pribatuaren aurka ala?

– Zuekin alfer-alferrik duk –etsi zuen azkenik Urrategik, saiatu arren ezin eragotzi izan zuen irribarrea ezpainetan, zangoa aurrerantz luzatuz Xingularri ostikoa emateko keinua egiteko.

Igande hura oso-osorik gaztetxetik irten gabe pasatu zuen Xepek. Inorekin egon edo hitz egiteko gogorik gabe, gauean gaztetxea nahiko goiz itxi eta bakar-bakarrik geratu zen edifizio handi eta zahar haren barruan, fantasma bakarti baten antzera. Egunean zehar kemena agertu bazuen ere, gauean abailduta sentitu zen. Ez zen damua estutzen zuena, azken muturreraino eramana zuen bere bakardade mugagabe eta inkomunikatuaren zama astuna baizik. Barruak edertasunaren bila erabat hustu ondoren bere obraren inguruan ezjakintasuna eta ezaxolakeria baino aurkitzen ez duen artistaren antzera.

– Huts-hutsik nian barrena, dena eman banu bezala, ezer ez banintz bezala, mundua ni gabe geratu balitz bezala, hila banengo bezala.

Hustasuna, etsipena, ezinegona, desosegua, itomena... Ohean loak ezin harturik, jaiki eta areto nagusira jo zuen. Bap!! taldearen *Azkeneko anarkista* entzun zuen behin eta berriz, modu obsesiboan, musikaren erritmoan dantza egin eta hitzak Eneko kantariarekin batera oihukatuz:

«Zertarako bizi ote gara?, galdetzen diot neure buruari...»

Musikaz nazkatu zenean barra ondoko leihotik zehar kanpoaldera begira geratu zen. Ez zebilen inor herriko kale ilunetan. Ikuspegi lasaigarri hark gaztetxetik irtetera bultzatu zuen. Gau giro ederra sentitu zuen atarira heltzean. Ezerezaren ilunbeetatik sortutako fantasma baten antzera, Tras agertu zitzaion bat-batean aurrean, begi ezin triste eta errukarriagoz begira.

– Zer duk, Tras? Non dabil Beltza? –xuxurlatu zion Xepek, makurtu eta buru-bizkarrak laztantzen zizkion bitartean–. Munduan bakar-bakarrik hago hi ere, ezta?

Ia-ia oharkabean –txakur herrena, ahal zuen bezala, atzetik zuela–, Baldatxoko hilerriraino eraman zuten bere oinen urratsek Xepe, paseo lasai hark beste jomugarik izaterik ez balu bezala. Tras aldamenean zuela, hilerriaren goiko aldetik behekora jaisteko dauden eskaileren goreneko muturrean eseri, zigarroa piztu eta ilargiari begira geratu zen minutu batzuetan. Gero, txakurrarekin batera, gaztetxera itzultzeko bideari

ekin zion atzera, lehen baino lasaiago, sosegatuago.

– Ez zagok kanposantua baino toki lasaiagorik, Niko. Ikaragarria duk! Han ez zagok problemarik. Dena bere tokian zagok, dena ondo. Inork ez hau gaizki begiratzen. Han dena libre duk!

–VIII–

Zenbait adiskiderengandik laguntza handia jaso zuen arren –Mirari eta Periskopiorengandik batik bat, baina baita beste hainbatengandik ere, neuregandik adibidez, zilegi balitzait hori aipatzea–, ez zen batere erosoa izan Xeperentzat gaztetxean bizi izan zeneko bolada. Bizimodu gogorra egokitu zitzaion, bakarti eta marjinala.

Gaztetxean bertan ere bazituen bere gorabeherak, ez zuten denek begi onez ikusten, eta gaztetxetik kanpo askoz ere gordin eta itogarriagoa zen giroa Xeperentzat. Neurri batean edo bestean, guztiok sentitu behar izan genituen garai hartan herritarren –herritar zintzo eta leialen– gaitzespeneko begiradak, baita txikitan jolaskide edota eskolan ikaskide izandako gazte askorenak ere. Xeperen kasua, ordea, gurea baino askoz latzagoa zen, bolada batean behintzat bera izan baitzen, Antijosekin batera, gaztetxeari egozten zitzaion gaiztakeria guztiaren sinbolo nagusia: Antijos gaztetxeko libertinaia arriskutsuaren buru eta teorilaritzat zuten, herriko

bakea mehatxatzen zuen etsai nagusitzat; Xepe, berriz, giza-talde ilun eta narrats hartako izakirik likits eta higuingarriena iruditzen zitzaien, mesprezagarriena, lohietan lohiena.

Umeen artean Xeperengandik urrun gordetzeko gaztigua zuten zabaldua gurasoek, etxerik eta arimarik gabeko piztia gaizto eta arriskutsua zela eta. Behin baino gehiagotan egokitu zitzaion, kalean eta egun argiz ibiltzen ari zela, parean pasatutako umeak elkarri zerbait esan eta izu aurpegiz urruntzen ikusi beharra, aurrean zutena infernuko etsaiak Azkoitian ezarritako ordezkari zuzena balitz bezala.

Bere guraso eta senideekin zuen, hala ere, arazorik latzena Xepek. Etxetik alde egin eta gaztetxean bizitzen hasi zenetik etxeko inor ez ikusten saiatu zen. Gaztetxea bera zuen horretarako babesleku nagusi, han ziurra baitzen familiako inor ez zela agertuko. Atraskuan, aldiz, aitarekin topo egiteko arriskua zuen, nahiko ondo kontrolatzeko modukoa hala ere, eguerdian edo arratsaldean ordu jakinetan egin ohi baitzuen osaba Pedrok txikiteoa, lantegitik irten eta gero, nekez beste ezein ordutan; hori bai, larunbat

eguerdian alarma gorria, aitarekin ezezik Anjel Mari edo Joxe Ramonekin ere egin baitzezakeen topo gure tabernan. Arriskurik handiena, hala ere, kalean zebilenean edota Dean tabernaren aurreko arkupeetako sakakuloetan eserita zegoenean izaten zuen. Behin baino gehiagotan ikusi genuen bere adiskideok Xepe arkupe atzean ezkutatzen, ama, Anjel Mari edo Joxe Ramon enparantza nagusian ikusirik.

Leon, Xepe eta hirurok Dean aurreko sakakuloan eserita geundela –porro bat eskuan orduan ere seguru askorik gutako norbaitek–, Xeperen ama ikusi genuen eguarte batean kale nagusitik zehar enparantza nagusia zeharkatzen, eroskketetako gurditxotik tiraka, guregandik hogei edo hogeita hamar bat metrora. Xepe arkupean ezkutatzeko asmoz mugitzen hasi orduko, guregana begiratu zuen zuzen-zuzen izeba Claudiak. Ez zegoen dudarik: ikusi egin zuen semea. Ezkutatzea ergelkeria hutsa izango zela jabeturik, sakakuloan eserita gelditu zen Xepe, arnasa etenda, urduri, amari begira. Xeperen amak ez zuen ordea berriro guregana begiratu. Aurrera jarraitu zuen gurditxoa atzean zuela, bere semea ezagu-

tu ez balu bezala. Gu mutu geratu ginen izeba Claudiari begira. Ez genuen ezer esan hura eta bere gurditxoa begien bistatik galdu genituen arte. Gero barruan geratu zitzaigun mina, bai niri behintzat eta baita seguru asko Xeperi ere, nahiz eta horretaz inoiz ez zidan ezer komentatu.

Baina jakinekoa da, harengatik mila nahigabe nozitu izanagatik ere, ama batek ez duela inoiz bere semea ahazten. Telefonoaren txikizioaren ondoko ostegun arratsaldean harri eta zur geratu ginen Xepe, Mirari, Periskopio, Txus eta baskako beste batzuk, gaztetxeko barraren inguruan berriketan ari ginela, Xeperen ama guregana hurreratzen ikusi genuenean. Berriketak kolpetik eten eta mutu geratu ginen, eta gu bezala mututu ziren gaztetxean une hartan zeuden hiruzpalau basketako kide guztiak ere. Gureganaino iritsi gabe, pauso batzuetara gelditu zen izeba Claudia eta keinu bat egin zion bere semeari. Giroa erabat aldatu bazen ere, Cicatrizen diskoak diskogailuan jiraka jarraitu zuen.

Asaldatu egin zen hasieran Xepe baina, urduritu edo sumindu gabe, tenple onean egin zion aurre egoerari. Dena den, haserre bortitzik izan ez bazen, besarkada maitekorrik ere ez. Isil-isilik eta zurrun-zurrun hurreratu zen semea amarengana, hark esateko ziona entzutera. Gutxi iraun zuen solasak, minutu pare bat asko jota. Ondoren, nork bere lekura jo zuen: amak kanporantz, Xepek gure artera.

– Etxera bueltatzeko eskatu zidak –esan zigun Xepek, serio-serio hizketan baina bere ezpain meheen irribarre urduria eragotzi ezinik–. Lan bat egiteko aukera eskaini didatela eta onena etxera joatea dudala. Etxera bueltatzen banaiz lan hori egin ahal izango dudala, baina bestela inola ere ez, ez didatelako lana zeinek eskaini didan esango. Txantaje merkea.

– Lana? Zer lan ordea? –galdetu zion Mirarik.

– Ez zakinat. Horixe dun kontua. Etxera bueltatu artean ez zidan ezer esango. Nire gustuko lana izango dela besterik ez zidan esan.

– Ea ba nirekin edariak partitzea baino hobea den gutxienez –bota zion Periskopiok.

– Ez pentsa, Kopio, ez duk erraza izango. Ondo pasatzen genian batzuetan, ezta?

– Zerbeza partitzen baino zerbeza edaten hobeto. Hori beti.

– Eta...? –harira itzuli nahi izan zuen Mirarik–. Zer egin behar duk?

– Ez zakinat. Esan zionat pentsatuko dudala. Bazaukanat zulo kutre honetatik irteteko gogoa, ez pentsa! Baina etxera bueltatzea ere... Puaj! Tripak nahasten zaizkidan pentsatze hutsarekin! Hau botakagura!

Ezer jakin gabe oheratu baginen ere, historiak gogoan hartuko zuen eguna zen hura, garrantzi handiko gertaera latza jazo baitzen 1984ko martxoaren 22ko gau hartan, beste mobida batekoa izan arren gaztetxean ere arrastoa utziko zuena. Gaueko hamaikak inguruan Espainiako Polizia Nazionaleko GEO saileko polizia batzuek Komando Autonomo Antikapitalistetako lau kide hil zituzten Pasaiako badian, eta beste bat atxilotu. Itxura guztien arabera –eta oraindik ere kartzelan jarraitzen duen atxilotuak baieztatu zuenez–, Komando Autonomoetako kideak zuzen-zuzen hiltzea zuten helburu GEOkoek eta

hil zituzten laurei ez zieten beren buruak entregatzeko aukerarik batere eman. Azpeitiarrak ziren hildakoetako bi: Dionisio Aizpuru *Kurro* eta Pedro Mari Isart *Pelitxo*.

Nik garai hartan ozta-ozta nekien Komando Autonomoak ETAtik apartekoak eta ETAk gaitzetsiak zirela, eta gure inguruko askok ezta hori ere, Xepe horien artean. Beste zenbaitek, berriz, Komado Autonomoen jarrera eta jokabideen berri ondo jakinik ere, ez zuten gaztetxea haiekin lotzerik nahi; ez haiekin eta ez ETArekin, gaztetxea herri mailako ekinbidetzat zutelako batez ere, eta lotura haiek gaztetxea markatu eta mugatu egingo ote zuten beldur zirelako. Baina beste batzuentzat, Antijos, Xingular eta Urrategirentzat batik bat, Komando Autonomoak garrantzi handiko erreferentzia ziren eta biziki amorrarazi zituen HBk Pasaiako sarraskiaren ondoren erakutsi zuen jarrera epelak.

Xepek eta bere baskakoek aurreko larunbat gauean egindako txikizioak erabat ahazturik, Pasaiako badiako hilketa izan zen ostiral hartako asanbladako gai bakarra. Igandean enparantza nagusian sarraski haren aurka protesta egiteko

enkartelada egitea izan zen asanblada hartan hartu genuen erabaki nagusia. Baina Antijos, Xingular eta Urrategik, Polizia Nazionalak egindako sarraski odoltsu eta ankerra salatzeaz gain, HBren jarrera kritikatu zuten gogor, ETAk egindakoa beti ontzat hartu eta ETAtik aparte ezer egiten saiatzen diren guztiak herriaren etsaitzat hartzen zituela esanez. Bolada hartan sakondu egin zen HBkoen eta gure artean zegoen leizea.

Nolanahi ere, Xeperi, gaztetxeko beste askori bezala, ez zitzaizkion asko axola ezkerreko ikuspuntu politiko ezberdinen arteko eztabaida eta konponezin haiek. Xeperen errebeldia, gaztetxeko beste askorena bezala, oso sinplea zen kontu haien guztien aldean. Inguruko gizartearekiko eta gizarte horretako jende eta gauza gehienekiko sentitzen zuen muin-muineko gorrotoan zuen oinarria.

– Ba al dakizue zer izan behar duen gaztetxeak? –esan ohi zigun askotan–. Birusa. Birus likits eta higuingarria, gizartearen erraietan sartu eta dena behin betiko ustelarazten poliki-poliki.

Beste kezka batzuk zituen, gainera, Xepek buruan egun haietan: amak aipatutako lan es-

kaintza onartu eta berriro etxeko giro jasanezinera itzuli ala gaztetxean usteltzen jarraitu, bakardade kutre eta hotz hartan. Aukera onik ez behintzat parean Xeperentzat.

Dena aurka izan arren, nahiz eta, hala eguneroko premia oinarrizkoen aldetik –jan, edan, garbitu, jantzi...– nola afektibitatearen aldetik, oso egoera urri eta larrian bizi, ordura artean gogor eutsia zion bere askatasunari Xepek, baina gaztetxean ere inoiz baino itoago sentitzen hasia zen ordurako. Okerrena ez zen telefonoaren txikizioak Antijos, Urrategi edo beste zenbaiten haserrea piztu izana. Haserre horiek berehala geratu ziren ahaztuta eta hala izan ez balitz ere ez zen horregatik asko ikaratuko Xepe. Okerrena zen telefonoa txikitu eta gero Xepek ez zuela zer eginik gaztetxean. Hustua zuen barrena, emana zuen –eskuzabal– eman beharrekoa, inork estimatu edo eskertu ez bazion ere. Badakit hitz horiekin esatea bitxia izan daitekeena, adarra jotzen ari naizela pentsarazteko bezain bitxi beharbada, baina hitz horiexek iruditzen zaizkit niri egokienak neure ikuspuntua azaltzeko.

Amak gaztetxean aipatua zion lan eskaintza, zehaztu gabea bazen ere, tentagarria zen, gainera, Xeperentzat. Guri ezer esan nahi izan ez zigun arren, amak Xeperi lan eskaintzaren inguruko datu garrantzitsu bat emana baitzion behintzat solasaldi labur hartan, ardi beltza artaldera bideratzeko bere ahaleginean lagungarri izango zitzaiolakoan: aktore gisa lan egiteko deia zen izeba Claudiak Xeperentzat etxean, telefono bidez, jasorik zuena. Tranpa bat izan zitekeela ere pasatu zitzaion burutik, litekeena zen eskaintza haren kontua etxekoek Xepe berreskuratzeko asmatutako amarru gaiztoa izatea ere. Egia izateko itxura zuen ordea. Aktoretzarako probak beti isilean eta ezkutuan eginik zituenez, etxekoek Xepek aktoretzarako zuen grinaren inguruko susmorik txikiena ere ezin izan zezaketen amak aipatua zionaren antzeko telefono-dei bat jaso ezean. Oinarri erreala behar zuen izan gutxienez eskaintza hark, ezin zen etxekoek hutsetik sortutako iruzurra izan.

Bazuen, ordea, bere alde iluna ere etxerako bidea hautatzeak.

– Ez diat pentsatu ere egin nahi, Niko –esan zidan aste hartan bertan Atraskuko barran izan genuen solasaldi batean, egin beharreko aukeraz zituen zalantzak errepasatu ondoren–. Azkeneko asteetan egin dudan dena alferrik izan balitz bezala, berriz ere betiko itomena. Familiak inguratuta gau eta egun. Kate motzean lotuta. Ezer entenditzeko gauza ez denari den-dena esplikatu behar, baita neuk entenditzen ez dudana ere.

Pixka bat edana zegoen eta distira egin zuten haren begiek isilune baten ondoren berriro hizketan hasi zenean.

– Ba al dakik, Niko? Nik benetan nahiko nukeena Itsasorekin bizitzea duk. Esnatu eta hura izan ondoan, larrugorritan, goxo-goxo.

– Eta Itsaso ere esplikazioak eskatzen hasiko balitzaik, orduan zer?

– Horretan arrazoia daukak, Niko. Hortxe zagok koska. Ez zakiat Itsasok ere naizen bezala entenditu eta bere ondoan hartuko ote ninduen. Parrandazale gogorra duk, gau giroa gustatzen zaiok, eta talde punkiak, birrak, *speed*-a... Baina

señorita samarra ote den ere pentsatzen diat batzuetan.

– Igual justu horrexegatik gustatzen zaik.

– Hara gure psikologoa!

– Barra atzean asko ikasten duk, Primo!

Artean erabakia hartu gabea zen Xepe larunbat gauean, edota bere erabakia inori adierazi gabea behintzat. Niri asko gustatzen zitzaidan talde bat izan genuen gau hartan gaztetxean zuzenean jotzen: Matrona Impúdica, Arrasateko talde bikaina, oraindik ere izena aipatze hutsarekin hunkitu egiten nauena. Ez ziren punkiak, *after-punki* ilunak baizik. Joy Division talde ingelesaren bertsioak egiten zituzten, besteak beste. Zertan ote dira Matrona Impúdicako kideak gaur egun? Bizi ote dira? Gizon zintzo eta errespetagarriak bihurtu ote dira urteen poderioz? Hala izanik ere, gordeko dute barruan urte haietan ezagutu genien alderdi ilunaren aztarnarik. Ziur naiz horretaz.

Niri bezala, Antijos, Pipi, Presto eta beste zenbaiti ere asko gustatzen zitzaien Matrona Impú-

dica. Gure artean talde idolatratua genuen hura, apartekoa iruditzen zitzaigulako, harritu eta dardarazi egiten gintuelako moda eta errazkeria guztietatik kanpo zegoen soinu ilun, barnekoi eta beldurgarri hark. Gaztetxearen eta gaztetxearen inguruko mugimendu eta ekimenen bitartez gure gurasoen munduarekin hautsi eta mundu berria sortu nahi genuen, eta Matrona Impúdicaren kontzertuetan horretantxe ari ginela sentitzeko aukera izaten genuen, indar eta ziurtasun handiz, zoramen euforiko bete-betean. Nola ahaztu, esate baterako, Joy Divisionen *Decades* kantaren bertsioak sentiarazi zidan hotzikara zirraragarri hura?

Ondo pentsatuz gero, mundu berri bat sortzen ari ginelako zirrara sentitzeko bide ugari eskaini zizkigun gaztetxeak, era askotakoak eta oso ezberdinak gainera, eta Matrona Impúdica, bere ederrean ere, horietako bat baino ez zen. Esate baterako, Xepe, Txus edo Mirarik, nahiz eta Matrona Impúdica bezalako taldeei errespetua izan, beste talde batzuk zituzten antzeko zirraren eragile: La Polla Records, RIP, Eskorbuto, Cicatriz, Cirrosis, Optalidón, Basura, Odio edo

Bap!! bezalako talde gogor eta zuzenagoak. Eta batzuetan ez zen derrigorrezkoa talde bat ekartzea ere: eszenategi gainera igo eta *play back* eginez Sex Pistolsen kantak kantatu bitartean bere lagunen listukadak jaso zituenean, mundu berri bat zabaltzen ari zela sentituko zuen Txusek, eta baita hari behetik tu egiten ari zirenek ere, nahiz eta mundu berri baten premiarik sentitzen ez zutenen ikuspuntutik –Julen jarraitxoarenetik adibidez– horrelako ateraldiak ergelkeria itsusi, zentzugabe eta arriskutsuak baino ez izan.

Matronakoen musikak hotzikara handirik eragiten ez zionez, Xepek ez zuen emanaldi hura gertutik jarraitzeko grina berezirik, eta gaztetxeko barran geratu zen lanean, Mirarirekin batera. Bere ametsetako Itsaso izan zen Matronakoak zuzenean jotzen ari zirela hurreratu zitzaizkion bezeroetako bat. Oso ondo egokitzen zitzaion kontzertu hartarako aproposa zen larru beltzezko janzkera after-punkia, adats leunak luze eta aske zituela. Alai eta irribarretsu zegoen, pozik, bizi-bizi.

– Hara, gaztetxeko nagusia –bota zion Xeperi barrara inguratu zenean.

– Nagusia? –urduri Xeperen ezpain meheek.

– Hi haiz hemen bizi haizen bakarra, ezta? Hire etxean gaudek guztiok.

Xepe ez zen solasaldi hari zegokion umoreari heltzeko gauza.

– Nire etxean?

– Jakina, hire gonbidatuak gaituk. Ez al da hala?

– Bai zera!

Xepek zer esan asmatu gabe jarraitzen zuenez, Itsasok solasaldi hura bertan behera uztea erabaki zuen.

– Bueno, ba, kontuak kontu, hemen nagoenez, pote batzuk aterako dizkidak, ezta?

– Zer nahi dun?

– Hiru gin-kas, bi kuba-ron eta bi birra.

Gaizki pasatu zuen Xepek gin-kas eta kubaronak prestatzen, edari xelebre haien ohiko neurriak ez baitzituen ondo ezagutzen. Itsaso zalantza traketsez egindako bere mugimenduei begira egongo zela pentsatzeak are urduriago jartzen zuen gainera.

Xepek bi garagardoak eta bi kuba-ronak barran utzi zituenean, lau edalontziak eskuetan harturik galdu zen jende artean Itsaso. Berriro barrara hurreratu, zazpi tragoak ordaindu eta Xepek barra gainean utziak zituen gainerako hiru edalontziak hartu zituen. Jiratu eta berriro jende artean galdu baino lehen begi kliskada iradokor batez egin zion keinu Xeperi despedida gisa.

Hiru gin-kas, bi kuba-ron eta bi garagardo, zazpi laguneko baska zen gau hartan Itsasorena. After-punk itxura dotoreko zazpi lagunek osatutako baska, neska-mutil itxurazko eta ederrak guztiak. Itsaso eta beste hiru lagun azkoitiarrak ziren baina gainerako hirurak Eibarkoak, bi mutil eta neska bat, Xeperentzat ezezagunak guztiak. Pipi eta Antijosi erreleboa utzi, barratik irten eta Mirari, Txus, Periskopio, Lu eta Kantxarekin elkartu zenean, Itsaso eta bere lagunengan zuen gogoa Xepek, eta, bai gaztetxean eta bai gainerako tabernetan, parean izanez gero baska hartakoak zeuden aldera begiratzen zuen zeharka behin eta berriro. Ez zion Xeperi konfiantza handirik ematen bere bihotzeko Itsaso desiratua

lagun haiekin ikusteak. Haiek ez ziren bera bezalakoak. Mundu sofistikatu hartako mutilak ote ziren Itsasori gustatzen zitzaizkionak?

Goizaldeko bostak inguruan hiruzpalau baska baino ez ziren geratzen gaztetxean, Itsaso eta bere sei lagunena horietako bat, eta Xepe, Mirari, Txus, Periskopio eta abarrena beste bat. Xepe komunetik buelta egin eta berriro bere baskakoengana itzultzen ari zela, Itsaso, bere baska utzirik, harengana hurbildu zen.

– Hi, Xepe, mesede bat eskatu nahi diat –esan zion, leun, apal.

– Esan.

– Hik hemen egin behar duk lo gaur, ezta?

– Bai, beti bezala, badakin...

– Kontua duk ba... nik ere ez daukadala gaur etxean lo egiterik eta inporta ez bazaik hemen geratu nahi nikek...

Une batez amets batean zegoela iruditu zitzaion Xeperi, bihotza lehertzear zuela.

– Bai, ondo... Lekua nahikoa zagon...

– Zenbat koltxoi dauzkak?

– Hiru edo lau zauden baina bi oso-oso zaharrak...

– Eta mantak?

– Dexente. Eta lo egiteko zaku bat ere bai behar izanez gero.

– Hortaz, moldatuko gaituk. Hik aldameneko gelan lo egiten duk, ezta?

Xeperen burua nahastuta zegoen. Berez oso garbi zegoen arren, ez zen artean ere neskak benetan zer nahi zuen ulertzeko gauza.

– Bai...

– Ba koltxoi bat eta manta batzuk hona ekarri eta gu hementxe moldatuko gaituk –urduri samar mintzatu zen une hartan Itsaso, aretoari gainbegirada bat ematen zion bitartean–. Ez diagu molestatuko.

Jakina. Ezin zen bestela izan. Eibarko guaperas haietako baten ondoan egin nahi zuen lo Itsasok, tarteka belarrira kontu txikiak esaten aritu zitzaion harexekin seguru asko.

Ez zebilen oker Xepe. Gainerako guztiek aldegin eta gaztetxea itxi zuenean huraxe izan zen Itsaso eta berarekin batera geratu zen bakarra. Eibarko beste neska-mutilak ere joanak ziren, autoa hartu eta beren herrira itzuliak seguru asko, baina beste hura ez, beste hura hantxe ze-

goen artean ere, Xepek beretzat nahiko zukeen altxorraren jabe: gau oso bat Itsasoren aldamenean.

Itsasok planeatu bezala, areto nagusira koltxoi bat eta burusi batzuk eraman eta hantxe egin zuten lo eibartarrak eta biek. Loak hartu aurretik, ordea, gaztetxeko horma zaharretatik zehar Xeperen belarrietaraino mingarri heldu ziren aiuri, alarau, urruma, orroa, marruma eta arrantzak eginarazi zizkien plazerraren zoramenak.

Ez zitzaion erraza izan loak hartzea baina eguna ondo argitua zen Xepe esnatu zenerako. Itsaso eta eibartarra ere esna zeuden, areto nagusitik Xeperen gelaraino heltzen ziren hainbat mugimenduren zarata definigaitzek salatzen zutenez. Halako batean oinotsak entzun zituen Xepek areto nagusitik kanpora, korridorean lehendabizi eta eskaileretan behera gero.

Pixagalez larri, jaiki eta, galtzontzilotan, komunera jo zuenean, gaztetxean bakarrik geratu zelakoan zegoen Xepe, baina ezustean Itsasorekin egin zuen topo korridorean. Komunerantz

zihoan hura ere, baina Xepe baino are biluziago, larrugorri bizian.

– Barkatu –esan zuen Xepek dardarka, baina ez zuen atzera egin. Errotik moztua zitzaion pixagalea. Itsasoren gorputzari begira geratu zen liluratuta.

– Ez zagok zer barkaturik, Xepe –naturaltasun osoz hitz egin zion Itsasok, biluztasun erabateko hartaz lotsatu gabe, ezer estaltzeko keinurik egin gabe–. Hiri tokatzen zaik lehena joatea komunera, heure etxean hago eta.

Aztoraturik, urduri, komunean sartu eta, estuasun hartan, pixa egiteko gauza ere ez zen izan Xepe. Irten zenean Itsaso komunerako txandaren zain aurkitu zuen, bularretakoak eta kuleroak jantzita ordurako.

Itsasok komunetik irten eta arropa guztiak jantzi zituenean, bion artean eraman zituzten koltxoia eta burusiak areto nagusitik Xeperen gelaraino. Emandako laguntza guztiarengatik eskerrak eman zizkion Itsasok Xeperi gaztetxetik irten baino lehen.

– Portatu haiz, Xepe. Tipo legala haiz benetan.

Diskogailuan musikarik jarri gabe, areto nagusiko leihotik kale aldera begira geratu zen Xepe. Gaztetxeko kanpoko atetik irteten ikusi zuen Itsaso, bere amets galdua, kalean aurrera gero eta urrunago, etxerako bidean. Itsaso begien bistatik galdu eta gero ere leihotik begira jarraitu zuen Xepek. Ez zegoen mugimendu handirik. Gazte jenderik batere ez. Ogia eta egunkaria eskuan hartuta etxera itzultzen ari ziren gizonezko zein emakume asko, bakarrik gehientsuenak. Batzuk hala ere presarik gabeko berriketan lotzen ziren kale erdian.

– Ba al dakik zer etorri zitzaidan burura Itsaso gaztetxetik irteten ikusi eta gero? –galdetu zidan Xepek, Itsaso biluzik ikusteko hain abagune iheskorra eman zion egun hartako gertaeren kontaketa amaitu zuenean–. Aspaldian ikusi gabeko lagun zaharra: nire Mobylette gorria. Hura behar nian gaztetxetik eta herritik ihes egiteko.

Baina ez zuen kontsolamendu hori ere izan, motorra gurasoen etxapeko garajean ondo gordea zegoen eta.

Ez dut uste loak hartzeko adina barne bake izango zuenik, baina leihotik begira aspertu zenean ohean sartu zen berriro Xepe. Asanbladan erabaki bezala, Pasaiako badiako sarraskia salatzeko enkartelada egitekoak ginen eguerdi hartan eta kartelen bila gaztetxera joan ginenean hantxe aurkitu genuen Antijos, Xingular eta hirurok. Beheko pisuko armairu zahar baten barruan giltzapean gorderik geneuzkan kartelak eta Xeperen gelaraino sartu behar izan genuen hari armairuko giltza eskatzeko.

– Oraindik lotan, Xepe? –komentatu zion txantxetan Xingularrek–. Horrela ez diagu berehala reboluzioa egingo.

– Buru barruan izango dik honek reboluzioa seguru asko, ez al da hala, Xepe? –komentatu nuen nik, txantxa giro hari egoki iritzirik, Antijos eta Xepek astebete lehenago izandako liskarra gogoan.

– Beheko armarioko giltzarik ba al daukak? –galdetu zion, lehor, txantxarik gabe, Antijosek.

Altxatu gabe eta ezer esan gabe, gaumahaitik giltzatakoa atera eta Antijosen eskuetara bota zuen Xepek.

– Gaur ez al daukak telefonoak txikitzeko gogorik? –bota zion mesprezuz Antijosek gelatik irten aurretik–. Gaurkoa duk ba egun aproposa horretarako.

Xingular eta biok ez genuen asmatu zer esan eta Xepek ere ez zion ezer erantzun Antijosi. Gorputza jiratu eta burua besoekin estaliz guregandik isolatzeko keinua egin zuen.

Antijos eta Xingular korridorean zirela, lehengusuari animoak emateko ahalegin txiki bat egin nahi izan nuen.

– Hator gurekin, Xepe. Erakutsi iezaiok Antijosi barruan daukaan indar hori.

Besoak destolestuz eta burua altxatuz isolamendua hautsi eta haserre egin zidan oihu orduan:

– Nik ez zaukaat inori ezer erakutsi beharrik. Sartu ezazue zuen reboluzio perfektu hori ipurtzulotik!

Xepe gabe egin genuen, noski, enkartelada eguerdi hartan. Hogeita hamar lagun inguru bildu ginen eta, nahiz eta, igande eguerdiko ordu

batetik aurrera beti gertatu ohi zen bezala, jende asko ibili kalean, ez zen batere istilurik sortu. Hori bai, badaezpada ere eguerdi hartan egin behar zuen emanaldia bertan behera uztea erabakia zuen aldez aurretik Udal Musika Bandak.

Gu kalean enkartelatuta geunden bitartean, gelan zeuzkan trasteak plastikozko boltsa batean bildu eta boltsa eskuan hartuta etxera jo zuen Xepek isil-isilik. Lau asteko erbesteratze baten amaiera zen hura. Lau aste gogor eta ahaztezin baitzituen emanak Xepek etxetik kanpo, gaztetxean apopilo.

Amak zabaldu zion atea etxean, besarkadarik gabe, musurik gabe, ezpainetaratu nahian zebilkion irribarrea uxatzeko ahaleginetan.

– Etorri zara azkenean ere. Pasa, pasa, eta dutxa bat har ezazu oraintxe bertan, Jainkoaren izenean. Hori da hori kristauaren itxura!

Etxe barruan sartu eta korridorean pixka bat aurrera eginik, aldamenera begiratu eta Joxe Ramon eta aita ikusi zituen egongelako telebista aurrean eserita, tenis partidu bati begira. Egongelan sartu gabe, ate ondotik agurtu zituen

Xepek aita eta anaia. Ez zekien zer esan, zer egin, non sartu.

– Zer? Interesantea partidua?

– Bizi al haiz? –esan zion aitak, besaulkitik altxatu gabe–. Konturatu al haiz behingoz etxean baino hobeto ez hagoela inon? Ba ez ezak sekula ahaztu ikasitako lezioa. Aditu al duk?

– Ikusteko dago honek ezer ikasi ote duen, aita –pozoina zerien Joxe Ramonen hitzei–. Oraingoz bazkari gozoaren usainera etorririk izango da hau, aspaldian ganorazko jatordurik egin gabe egongo da eta.

Ezer gehiago esan gabe dutxara jo zuen Xepek, Anjel Mari –inguruko herriren batera futbol partidua jokatzera joana seguru asko– etxean ez egokitzea zorte handia zela pentsatuz, bestela seguru asko are gogorragoa izango baitzen une zail hura.

Bazkalorduan, aitzitik, ez zen inor sartu Xeperekin. Aldez aurretik Xeperi errietarik edo galdera konprometiturik ez egiteko ados jarriak zirela zirudien. Baina hala ere amak nahigabe handia eman zion zorioneko lan eskaintzaren misterioa argitzean. Aurrezki Kutxa Munizipalak tele-

bistarako egin behar zuen *spot* publizitarioan parte hartzeko aukera zuen Xepek, baina oso lan eskasa zen hura: ordubete baino gehiago ez zuen pasatuko estudioan, ez zen segundu bakar batean baino agertuko pantailan eta irabaziko zuen dirua huskeria miserablea izango zen, bidaia eta bazkaria ordaintzeko lain doi-doi. Gezurra izan gabe ere, tranpa ustela izan zen, beraz, lan eskaintzarena, nahiz eta amak bazuen erabilitako amuaren eskasia zuritzeko arrazoibiderik: apala izan arren, eskaintza hura beste bat edo batzuen abiapuntu izan zitekeela agian... Xeperen arima ez zegoen, ordea, egun hartan esperantzarekin adiskidetzeko moduan, nahigabearen eta etsipenaren mende baizik. Geratzen zitzaion ilusio bakarra zapuztua zion albisteak.

Bazkalondoan, loroari eta Mobylette gorriari heldu zien Xepek etsi-etsian, munduarekin lotzen zuen soka bakarra azken lau asteetan berarengandik urrun izandako bi gauza haiexen hariek baino osatuko ez balute bezala. Loroan RIPen zinta sartu, bolumena altuenean jarri eta, aurikularrak belarrietara itsatsita, Urrategi mendi auzunera jo zuen motorrean, Mahoma

kantariaren ahotsak akuilatua: «*Enamorado de la muerte, su belleza me atrapó...*» Ondo ezagutzen zuen bide hura eta, aldapak eta motorraren indar eskasak uzten zion neurrian, bizi-bizi jo zuen gorantz, zuzenguneetan azeleragailua azken muturreraino teinkatuz eta bihurguneetan ahalik eta gutxiena nasaituz. Gora heldu baino kilometro eta erdi bat lehenago bazen beti azeleragailua doi-doi nasaitzea eskatzen zion bihurgune itxi samar bat. Handik pasatzean beti galdera bera bururatzen zitzaion: zer gerta ote zitekeen bihurgune hura azeleragailua nasaitu gabe ematen saiatuz gero? Baina egun hartan –bere barruko desosegu amorratuak hartaraturik– galdera temoso hari behingoz erantzun zuzena aurkitzeko egin beharreko ikerlanari ekiteko prest zegoen Xepe.

– Banekian erori egin behar nuela, banekian, eta erori egin nahi nian, zartada handia hartu nahi nian... Baina bai zera! Belaunean urratu txiki bat besterik ez... Motorra, berriz, hura bai ederki, bere kasa tranbalaka bidean aurrera lehenengo eta pendizean behera gero, txikitu arte. Kaka zaharra!

–IX–

Ezertarako gogorik, ilusiorik, umorerik eta kemenik gabe, hurrengo egunetan ez zen etxetik irten ere egin Xepe. Bere gelan eman zituen ordurik gehienak, musika entzun eta komikiak irakurtzen. Egongelan telebistari begira gainerakoak. Asteazkenean zuen Aurrezki Kutxa Munizipalaren *spot* publizitarioa egin behar zutenek jarritako hitzordua, baina orduan ere ez zen etxetik irten.

Goizeko zazpietan deitu zion amak, ohetik altxatu, jantzi, prestatu, gosaldu eta Donostiarako autobusa har zezan. Amari ezer esan gabe ohean bira egin eta bertan geratu zen ordea Xepe.

– Tira, Martin, almortzua preparatuta daukazu –ohartarazi zion amak berriro pixka bat geroxeago, semeak ohean jarraitzen zuela ikusirik–. Ez zaitez hain nagia izan, lo egiteko nahikoa denbora izan duzu eta. Autobusa galduko duzu segituan jaikitzen ez bazara.

– Ez naiz joango, ama –erantzun zion Xepek, begiak zabaldu ere egin gabe–. Hementxe geratuko naiz.

– Zer esaten ari zara ordea? Zu ez zaude burutik sano! Joango zinela esan zenien eta zure zain egongo dira. Ezin zara ohean geratu. Joan egin behar duzu.

– Konponduko dira, ama. Ez naiz joango. Ez dut jende nazkagarri horrekin txoripitoarena egiteko batere gogorik.

– Baina, baina, Jainko maitea! –asaldatu zen izeba Claudia–. Oraindik horrelakorik! Esaten dut ba nik, bai, infernuko etsaia daukazula barru-barruan sartuta. Hara, jo eta txiki-txiki egingo zintuzket oraintxe bertan!

Xeperen oheko maindire-burusiak alxatzen hasi zen baina Xepek gogor eutsi zien estalkiei.

– Tira, jaiki behingoz ohe horretatik, aditu? Zuk zer uste duzu? Beti nahi duzuna egitea daukazula? Nik erakutsiko dizut zuri...

Amore eman behar izan zuen amak semearen egoskortasunaren aurrean. Atzera jo zuen, haserre bizian. Besoak antxumaturik zituela eta

goitik behera zorrotz begira bota zion azken mehatxua.

– Ikusiko duzu, bai, aitari esaten diodanean. Hark konponduko zaitu, premia ederra badaukazu eta. Guri disgustuak ematen besterik ez dakizu. Hau zigorra Jainkoak zurekin eman diguna!

Aita bazkalorduan etxeratu zenean ohean zegoen artean ere Xepe, gainera zetorkion trumoi latzaren jakinaren gainean. Ama eta aitaren arteko solasaldia entzun zuen ohetik. Xepek Donostiara ez joatea erabaki zuela esan zion amak aitari.

– Eta non dago orain alfer zikin hori?

– Ohean oraindik. Ez dakit zer egin, Pedro!

Abisurik gabe, garrasi batean sartu zen aita bat-batean Xeperen gelan.

– Hau duk hau koadroa! Oraindik ere ohean! Mekaguen La India! Behin izango duk zeozer egiteko aukera eta eguerdira arte ohean, alajainkoa! Alfer zikina! Nik erakutsiko diat hiri lotsa zer den!

Amak goizean baino indar handiagoz egin zuen tira aitak maindire-burusietatik eta Xeperen gorputz argala galtzontziloak eta barruko

elastikoa beste janzkirik gabe geratu zen agerian estalkirik gabeko ohean. Ezer esan gabe, aztoratuta, zer egin eta nola jokatu ez zekiela, ohetik jaiki zen.

– Ez ezazu jo, Pedro, mesedez –entzun zuen amaren ahotsa gelako ate ondoan–. Jo ez ezazu egin behintzat.

Jo ez zuen egin, baina Xepe besoetatik heldu eta korridorera atera zuen aitak, zakar eta gogor. Sarrerako atea zabaldu eta etxetik kanpora, eskaileretara egotzi zuen gero bultzaka, ohetik irten bezala, galtzontzilotan. Semea ate ondoan utzirik etxe barrura sartu eta atea itxi zuen osaba Pedrok.

– Orain geratu hadi hortxe –egin zion oihu aitak Xeperi ateaz bestaldetik–. Geratu hadi hortxe lotsa zer den ikasi arte, txotxolo mengel odolik gabekoa!

Amaren ahotsa ere entzun zuen, askoz baxuago heldu bazitzaion ere.

– Tira, tira, Jainkoaren izenean, Pedro, ireki iezaiozu atea. Zer esan behar dute aldamenekoek gure semea eskaileretan galtzontzilotan ikusten badute?

– Galtzontzilotan ez, larrugorritan atera eta atzera sartzen ez laga sekula, hori da kalamidade horrekin egin beharko nukeena, besterik ez du merezi-eta esker txarreko mamorro alu horrek.

Ate ondoan guztiz abandonatua geratu zen Xepe, hotzez, besoekin soina ahal bezala babesten saiatuz.

Bost minutu baino ez zituen egin egoera xelebre, erridikulu eta deseroso hartan, baina salbazioa ez zitzaion gustuko bidetik etorri: igogailua parean gelditzen zela aditu eta Anjel Mari ikusi zuen handik irteten.

– Baina zer da hau? –galdetu zion, harri eta zur hasieran eta irribarrez gero, anaiak–. Zertan ari haiz hemen?

– Zaharrak kanpora bota naik.

– Horrela? –gero eta nabarmenago irria ezpainetan–. Galtzontzilotan?

– Zabaldu ezak behingoz. Hotzak nagok!

– Esan beharko didak ba zergatik bota hauen. Egingo huen zeozer orain ere.

– Badakik, ez gaituk ondo konpontzen. Zabaldu ezak atea behingoz!

– Ba hemen biziko bahaiz –ume bati ari balitzaio bezala leundu zuen doinua, burlaizean– aitarekin hobeto konpontzen ikasi beharko duk. Ez al zaik iruditzen, Martintxo?

Xepek ez zion erantzun. Sarrailari tinko begira geratu zen, zain, geldi eta mutu. Azkenean ere halako batean Anjel Mariren giltzak atea nola zabaltzen zuen ikusi zuen. Anaiari aurre hartu eta, inori kasurik egin gabe, korridorea ziztu bizian zeharkatu eta zuzen-zuzenean sartu zen gelan, bere «refujio atomikoan». Ohean sartu zen berehala, besoekin burua estaliz, mundutik aparte eta isolaturik geratu nahian bezala.

Ama etorri zitzaion gelara pixka bat geroxeago, ea ez al zuen ezer jan behar galdezka, baina Xepek ezetz erantzun zion, ez zuela goserik eta bakean uzteko.

– Hutsik sentitzen ninduan –azaldu zidan behin Xepek, etxetik irten gabe pasatutako egun hits haiek gogoan–. Hutsik baina ez benetan gaizki ere. Ez zitzaidaan ezer ere inporta. Munduan ez banengo bezala zuan, ezerekin zerikusirik ez

banu bezala. Ezta sekula izateko batere asmorik ere.

Letargo etxetiar ganoragabe hark luze iraun zezakeen beharbada, ostiral eguerdian jasotako ezusteko gutun batek bat-batean eten ez balu. Azkoitiko Udalak egindako salaketa baten ondorioz, beste hamabi gazterekin batera –Antijos, Xingular, Urrategi, Esther, Leon, Txus, Kantxa eta Presto horien artean–, ekainean epaitu egingo zutela iragartzen zion Bake Epaitegitik heldutako gutun hark Xeperi, eta, horrenbestez, hurrengo astean bertan Bake Epaitegira joan beharra zuela lehen deklarazioa egitera. Azkoitiko Udalaren salaketak aipatzen zituen karguen artean udal batzarra «bahitzea» eta inoren etxean –gaztetxe okupatuan– legez kanpo sartzea zeuden.

Arazo haren aurrean nola jokatu jakiteko, iluntzean etxetik irtetea erabaki zuen Xepek. Gaztetxeko areto nagusian sartu zenean asanbladan bilduta geunden eta Xingular ari zen hizketan. Jende asko ginen egun hartan bilduak, ohiko asanbladetan baino gehiago, inkulpatutako guztiak eta gaztetxearen inguruan ibiltzen

ginen ia-ia guztiok. Txakurrak ere –lau hankakoak diot– bileraren garrantziaz oharturik ziren nonbait, Beltza eta Trasez gain beste bi baitzeuden egun hartan aretoan.

– Itxi ateak! –komentatu zuen txantxetan Periskopiok, Xingularren jarduna etenez, Xepe sartzen ikusi zuenean–. Juizioa hasteko moduan gaudek. Oraintxe ez duk inor falta, inkulpatutako guztiak zauzkaagu hemen.

– Eta hi zein haiz ba? –jarraitu zion txantxari Xepek, urduri, jende guztia, Itsaso ere tartean, berari begira sentituz–. Jueza ala?

– Ez, motel, ni abokatu defenditzailea.

– Urkamendira goazak zuzen-zuzenean hortaz –sartu zen orduan tartean Xingular.

Txantxa giro haren ondoriozko algara eta komentario arinen ondoren, Xingularrek lehengo hariari heltzeko ahalegina egin zuen.

– Ederra egin diagu... Zuen txorakeriekin ahaztu egin zaidak zer esaten ari nintzen.

– Porro gehiegi erretzen duk, Xingu –bota zion Leonek bere betiko doinu afektatuarekin–. Neuronarik gabe geratzen ari haiz.

– Zer esaten ari haiz, Leon? –harrituarena egin zuen Urrategik txantxa giroari eutsiz–. Hik ba al dakik ba neuronak zer diren?

– Txikitako oroitzapenak izango ditun –erre-matatu zuen txistea Periskopiok. Ondoan eserita zuen Txusek pasatu berri zion porroa ezpaineta-ratu eta mesprezuzko keinua egin zuen Leonek, esanez bezala eztabaida hark berarentzat bate-re interesik ez zuela.

– Orain akordatu nauk –serioago hitz egiteko ahalegina egin zuen Xingularrek–. Zera esan behar nian, juizioaren kontua baino gogorragoa iruditzen zaidala gaztetxe berriaren proiektuare-na. Guri ezer esan gabe, hiru kiloko presupues-toarekin gaztetxe berria egiten ari omen duk Aiuntamentua, herriko plaza nagusian bertan, Jubilatuen Elkartearen azpiko lokalean. Eta hori dena guri ezer esan gabe pentsatu dutenez, kon-ponbiderik ez duen akats grabea izango dik lokal horrek hasieratik: kontzertuetarako txikiegia izango dela. Oso argiak eta oso azkarrak dituk benetan gure agintariak!

– Betiko kontua duk –komentatu zuen Urrate-gik–. Behetik sortutako mugimenduak kontrola-

tzea besterik ez ditek nahi. Mugimendurik ez dagoen artean dena ondo zagok, bake-bakean. Inor mugitzen hasten bada orduan haren ideiak berentzat hartu nahi izaten ditiztek, baina kontrolpean jarrita beti ere. Progre itxurak egin eta gero atzetik ostikoa eman, horixe duk horien azpijoko nazkagarria. Guk gaztetxea okupatu dugunez, eta gaztetxeen aurka daudela esaterik ez dutenez (nola ba, Gazteriaren Nazioarteko Urtean gainera?), ba orain gaztetxe berria sortu nahi ditek, gurea pikutara bidaltzeko aitzakia izan eta dena kontrolpean izateko. Hori ikusita zagok.

– Ba, dena den, niri berez gaztetxe berriarena ez zaidan gaizki iruditzen –esan zuen Pipik–. Edifizio hau zaharra dun eta ez dun betiko izango. Gaztetxe berria beharrezkoa dela ere iruditzen zaidan. Eta egiten eta prestatzen ari badira...

– Hi lasai, Pipi, guri ez zigutek emango eta –moztu zizkion hegoak Antijosek–. Hori seguru. Gaztetxe hori beraien erara zabaldu nahiko ditek, hor zagok koska: estatutuak, presidentea, sekretarioa, batzordea, reglamentua... Garbi zagok ez dutela modu asanblearioan antolatuta-

ko gaztetxe autogestionarioa onartuko. Hori duk benetan beldurtzen dituena.

Periskopiok ez zuen umoreari heltzeko aukera hura alferrik galdu.

– Neu jarriko nauk presidente eta dena konponduta.

– Okerrena duk hori ere aldez aurretik prestatzen ariko direla kabroi horiek –argudiatu zuen Urrategik, seriotasunez erantzunez Periskopiok txantxa gisa egindako proposamen sinpleegiari–. Seguru ezertan hasi baino lehen hori dena EGIko jendearekin lotu nahian dabiltzala. Betiko kontua: botazioa, manipulazioa eta gu txakurraren salara!

– Argi ibili beharko dinagu hortaz –esan zuen bere ondorioak ateraz Mirarik–. Nik garbi ikusten dinat zein den gure borroka. Gaztetxe berria geurea izan artean ez zienagu hau botatzen laga behar.

– Horrek kaña sartzea eskatuko din –esan zuen serio Xingularrek–. Azken bolada honetan nahiko apalankatuta egon gaitun baina hemendik aurrera buila atera beharra izango dugula

uste dinat. Eta hasteko, juizioen aurkako mobilizazioek izan behar diten lehen pausoa.

Mobilizazio horien guztien aurretik beste endredu batzuk izan zituen hala ere Xepek ostiral hartan bertan. Asanblada amaitu zenean, Periskopio, Mirari, Txus eta Kantxarekin elkartu zen.

– Zer moduz etxean? –galdetu zion Mirarik.

– Ba ez ondo, ez gaizki eta ez ezer.

– Eta lanarena?

– Gezur hutsa.

– Gezurra?

– Huskeria nazkagarri bat zunan eta ez zinan merezi.

– Ba al hator gurekin Arrasatera, Xepe? –eten zuen solasaldia Txusek–. Eskorbuto eta RIPek jotzen ditek.

– Eskorbuto eta RIP?

– Kostoa nahi adina –animatu zuen Periskopiok–. Niri tokatu zaidak sorteoan.

– Bola bat?

– Pelota borobila –txamarraren poltsikotik plastikoan bildutako haxix bolatxoa atera eta erakutsi zion–. Badakik: «Hamar gramo palili».

– Eta hauts pixka bat ere bazaukaagu –gaineratu zion Txusek Periskopioren proposamen tentagarriari.

Barre egin zuen Xepek, urduri. Letargoa amaitutzat jo eta arazoak tarte batez badarik ere ahazteko abagune egokia zen. Ilusioa berreskuratu zuen aspaldiko partez: betiko lagunak, Eskorbuto, RIP, haxixa nahi adina, *speed* pixka bat ere bai, eta gau osoa aurretik...

Periskopioren aitak erosi berri zuen autoa zuten egun hartan Arrasaterainoko bidea egiteko.

– Karro guapoa erosi dik zuen zaharrak, e, Kopio? –esan zuen autoa ikustean harrituta Xepek.

– Bai, baina kamioneta zaharrarekin jarraitzen diat oraindik lanean. Eta nik dakidan batekin Galiziako Tourra egin zuenetik jubilazio eske ari zaidak egunero katxarro zaharra.

Autoan sartu ziren bostak. Txus Periskopioren ondoan, eta Kantxa, Mirari eta Xepe atzeko

eserlekuan. Zabala zen autoa barrutik eta eroso sentitzen ziren eserleku abegikor haietan. Eskorbutoren zinta jarri zuen martxan Periskopiok kasetean.

– De la hostia aditzen duk musika hemen –esan zuen Txusek, eta, auto berriarekin liluratuta, haren barruko bazter guztiak jakinminez miatzen hasi zen.

– Alferrik duk jardutea –jarraitu zuen Periskopiok bere arrangurekin, Txusen lilurari kasurik egin gabe–. Zaharrak karro honetan gastatu dik dena eta orain kamioneta berria erosteko xemeikorik ere ez.

– Kamioneta zaharra jubilatzen duzuenean Xepek pena hartuko dik –esan zion Mirarik Periskopiori.

– Jakina! Elkarrekin halako erromantzea izan eta gero!

– Oroitzapen gozoa zaukaat, bai –aitortu zuen Xepek irribarrez.

– Ez huke hainbeste maiteko kamioneta harekin nik adina ibili behar bahu –erantzun zion Periskopiok.

– Ba ni buga honekin ari nauk enamoratzen, Kopio –esan zuen Txusek–. Egun batean lapurtu egin beharko diat.

– Bueno, hi, esplikazio lehorrak laga eta atera ezak hautsa –eten zion liluraldia Periskopiok Txusi–, amorratzen nagok eta. –Txus txamarraren patrikatik ateratzen ari zen papelinei begiratu zien. Xeperengana jiratu zen gero–. Ba al dakik zer den hauts hori, Xepe?

– Ez al da ba *speed*-a?

– Ez, motel, gaur zeozer berria probatu behar diagu –esan zuen Txusek–: heroina, Xepe. Jakoa! Zaldia!

– Hostia! Eta zainetatik sartu behar al duzue?

Txamarraren beste patrika batetik xiringa atera eta goian eutsi zion eskuarekin Txusek, Xepek ikus zezan.

– Horrekin sartu behar al duk? Ba al dakik zertan ari haizen? Zaldia kontuz ibiltzeko materiala duk gero!

– Lasai, motel, dena kontrolatuta zagok. Bazakiat honekin zer egin behar den. Leonek ezagutzen dik honekin asko ibilitako jendea eta bazakiat zertan ari naizen.

– Leonek? Eta Leonekin fiatzen al haiz?

– Kontu hauetarako bai.

– Ez zakiat ba. Nik, egia esanda, nahiago diat beste baterako laga.

– Guk ez diagu zainetatik sartuko, Xepe –lasaitu zuen Mirarik–. Sudurretik sartuta ez ziguk kalte handirik egingo.

– Baina behin zaldia eduki esku artean eta sudurretik sartzea ere...

– Bueno, gaur aproba egingo diagu eta hurrengo batean ikusiko diagu –esan zion Periskopiok.

– Eta hik, Kantxa, zer egin behar duk? Sudurretik hik ere?

Ezer esan gabe, besoa agerian utzi eta pikoa sartzeko keinua egin zuen Kantxak irribarrez.

Periskopio hiru arraia prestatzen hasi zen karnetaren gainean. Txusek ere, ume baten pozez eta ilusioz, bere lanari ekin zion. Xiringa ezezik, gainerako guztia ere prest zuen txamarraren poltsiko ugarietan: botilatxo bat ur, koilaratxoa, limoia, besondoa estutzeko goma... Hautsa goilaratxo barruan ur eta limoiarekin nahastu eta pizkailuarekin berotzen hasi zen. Nork

bere dosia nork bere moduan harturik, Arrasaterako bideari ekin zioten azkenik, Eskorbutoren zinta bolumen altuan zutela bide osoan: *«Mucha policía, poca diversión! ¡Un error! ¡Un error!...»*; *«¿Quién tiene el dinero, quién? ¿Quién tiene el poder? ¿Quién tiene el futuro? ¿Quién lleva la ley?...»*

Hiruzpalau geldialdi labur egin behar izan zituzten bidean goragalea izan zutelako. Oso arin eta aise egiten zuten, dena den, botaka, garbigarbi. Autotik irten, bota beharrekoa bota eta berehala sartzen ziren autora, ezer gertatu ez balitz bezala. Ez ziren harritu. Bazekiten horixe zela heroinak aurreneko aldietan izaten zuen eraginetako bat.

Sekulako giroa zegoen Arrasaten kontzertuaren aurretik. Bereganaturik zuen herria punki oldeak. Era guztietako punkiak ikusi zituzten hanhemenka, txukun eta dotoreak batzuk, narrats eta zakarrak besteak, kaleko edozein koskaren gainean taldeka eserita, edozein bazterretan pixa egiten. Garagardoa uholdeka, haxix usaina non-nahi, eta, noski, ezkutuagoan, *speed*-a, perika, zaldia eta tripi bat edo beste.

Euforia gozo bat jabetu zen Xeperen arimaz, porroen, garagardoen eta giroaren baina, ororen gainetik, heroinaren ondorioz. *Speed*-ak sortu ohi zion ezinegon errearen aldean askoz ere atseginagoa zen betetasun sentsazio aratz hura.

Kontzertua bikaina izan zen. Barruan zuten dena utzi zuten musikariek eszenategi gainean, bi kantariek bereziki, Josuk eta Mahomak. Aretoa –Arrasateko kiroldegia– zabala izan arren, estutasuna, kabitu ezina eta kaosa ikaratzekoak ziren, Cirrosis, Optalidón, Basura eta Odiok Azkoitiko gaztetxean jo zutenean baino handiagoa. Xepe eta bere lagunek ahal bezain aurrean kokatu eta gozatu ederra hartu zuten itsaso zakar hartan kulunkan.

Kulunka horietako batean Ute ikusi zuen batbatean Xepek, bera baino pixka bat aurreraxeago, inguruko guztiei bultza eta bultza etengabe, Azkoitiko gaztetxeko kontzertuan bezalaxe.

Kontzertua amaitu zenean Uterengana hurreratu eta besarkada estu batean bildu zuen. Lagunak ahazturik, Ute eta Donostiako bere baskarekin galdu zen Xepe Arrasateko tabernetan. Konturatu gabe joan zitzaion denbora, amets ba-

tean bizi balitz bezala, Uteren etengabeko txantxa eta ateraldiekin entreteniturik. Goizaldean, baska osoa Amnistiaren Aldeko Batzordearen txosnan zegoela, Xepe besarkatzen eta musukatzen hasi zen Ute, goxo-goxo, inoiz geldirik egoten ez zekien neska bizi hura ere nekatuta baitzegoen gaupasa luzearen ondoren. Donostiako adiskideek etxera joateko asmoa zuten, ordea, eta Utek adio esan behar izan zion Azkoitiko bere maitale samurrari.

Bakarrik geratu zenean lagunekin elkartu eta etxera itzultzea erabaki zuen Xepek. Ez zituen, ordea, lagunak inon aurkitu eta ezin zuen gogoratu Periskopiok autoa non aparkatu zuen bezperan. Lagunak Azkoitira itzulita egongo zirelakoan etsita, taberna atari bateko koskan eseri zen Xepe, festa punkiaren azken hondarrei begira: gaupasaren ondoren neka-neka egindako baska punkiak, kale erdian elkar musukatzeko lotsarik ez zuten bikoteak, kale garbitzaileak hautsitako botila eta edalontzien beira zatiz eta pixa errekaz zipriztindutako zoru zikin eta likinari lehengo itxura itzultzeko ahaleginetan, gaua ohean igaro

ondoren goiz esnatutako lehen herritar zintzoak lanerako bidean edota paseoan...

Koska hartan eserita tarte luze samarra eman ondoren, ezertarako presarik gabe, Zumarragarako autobusak noiz ziren galdetu eta haietako bat hartu zuen. Bere atzean eseritako bi emakumeren arteko solasa entzutea egokitu zitzaion bidaian zehar.

– Aditu al duzu zer esan duten, Valentina? Felix karnizeroaren eskaparatea apurtu omen dute goizaldean gazte batzuek, badakizu, punk edo dena delako mamorro beltz horietakoek.

– Jesus, Maria eta Jose! Ez da giro oraintxe! Jakina, gauean musika izan dute-eta... Nahi dutena egiten uzten diete eta gero zera... Kalea ere txukuna utzi dute ba, dena hautsitako botilaz eta basoz beteta.

– Nik ez dakit nondik atera duten gaurko gazte hauek dena apurtu behar hori. Badirudi ezer apurtu barik ezin dutela ondo pasatu.

– Hala da, bai. Dena apurtu egin behar, dena txikitu... Ezin dut entenditu zer irabazten duten horrekin. Ezin izango dut sekula entenditu.

Ondo sentitu zen Xepe berriketaldi hura entzuten, buruan La Polla Recordsen *Venganza* jirabiraka zuela: *«Somos los últimos, los peores. Somos pequeñas bombas de odio. ¡No hay esperanza! ¡Venganza!...»*.

Gero Urolako trenean egin zuen Zumarragatik Azkoitirainoko bidea. Zurezko aulkiak eta trenaren tranbalak horretarako egokienak ez ziren arren, lo egin zuen azken bidaia horren zati handi batean.

– Oso lasai nengoan. Dena armonian zegoela iruditzen zitzaidaan, gauza bakoitza bere lekuan, eta ni, aingeru bat bezala, munduan galduta. Ez zagok horrelako drogarik!

Inoiz baino okerrago zeuden Xepe eta bere etxekoen arteko harremanak. Hilabete batzuk lehenago pentsaezinezkoak izango ziren puntuetaraino ziren iritsiak liskarrak azkeneko boladan. Baina hala ere ez zen gehiegi larritu ostiral iluntzean irten ondoren, aldez aurretik etxean ezeren abisurik eman gabe, larunbat eguerdian etxeratu zenean. Zorte handia izan zuen gaine-

ra. Gizonezkoak txikiteoan ziren eta ama bakarrik etxean. Bakarrik eta larri, etxeko lanak egiteko ganorarik gabe, Xeperen edo Xeperi buruzko berrien zain.

– Baina, baina, jakin al daiteke non demontre sartu zaren? –oihu egin zion amak Xeperi, semea etxera heldu bezain laster–. Hara, amorratzen nengoen, non egongo ote zinen pentsatzen. Telefonoak jo eta berri txarren bat jasotzeko ikaratan.

– Arrasaten izan ginen kontzertu batean eta...

– Arrasaten? Eta ez al dago telefonorik Arrasaten? Ai ene, jainko maitea! Hau da hau kalbarioa daukaguna zurekin! Amari disgustuak ematen besterik ez dakizu. Baina, baina –gora begira–, Jainko maitea, zer egin dut nik baina, zer?

– Baina, ama, nik ez nekien noiz etorriko nintzen. Noiz hots egin behar nizun? Goizeko bostetan ala? Gozoak jarriko zineten ba!

– Zure ama aspaldidanik dago ohetik jaikita –gero eta haserreago–, aditzen al duzu, Martin, aditzen? Ohetik jaikita eta zuregatik penatzen

ohean ez zeundela ikusi dudanez geroztik, ideiarik beltzenak buruan bueltaka.

– Ama, gaur egun horrela ibiltzen gara gazteok, eta normala da. Ohitu egin beharko duzu.

– Ohitu? Ez dizu aditzen zure aitak, Martin! Ez dizu aditzen! Jainkoari eskerrak emateko moduan zaude. Pare-parean ailegatu zara etxera. Oraintxe puntuan aitaren bila irten eta guardia zibiletara jotzekotan nintzen.

– Guardia zibiletara? Bueno, bueno, ama... Gaupasa egin dut, horixe da dena. Makina bat gazte zegoen gaur Arrasaten gaupasa eginda, goizeko hamarrak inguruan. Eta zer? Horrelakoxeak dira gauzak gaur egun.

– Makina bat gazte? Zu bezalakoak horratik! Alproja, narrats eta alferrenak, horixe! Inon diren porrero eta drogazale guztiak! Goiko Andoni ez zen han izango, ez. Haren fintasunaren eta ganoraren laurdena izango bazenu...!

– Andoni, Andoni, zorioneko Andoni... Andonik bere bizimodua du eta nik neurea, ama... Zergatik konparatu behar nauzu beti Andonirekin?

– Bai, horixe, ez dakit nola konparatzen zaituztedan. Gezurra dirudi zuek biok edade berekoak izatea. Andoni gizon bat egina dago eta zu gero eta umeago. Horixe! Gero eta umeago! Zure ama hemen zuregatik direnak eta ez direnak sufritzen eta zu hor taberna zulorik zikinenetan sartuta, auskalo zer jendilaje motarekin, auskalo zer narraskeriatan. Hara, ez dut pentsatu ere egin nahi! Hori da kristauaren burubidea! Lotsa eman behar lizuke.

Negarrez hasi zen Xeperen ama. Ordura arte gordetako tentsioa deskargatzeko premia bide zuten haren nerbio sufrituek. Xepek ohera jo zuen zuzenean eta hantxe geratu zen igande eguerdira arte.

Epaiketari buruz hitz egitean, deklaratzeko deialdiari jaramonik ez egitea erabaki zen asanbladan, hau da, deitutako inor ere ez joatea Bake Epaitegira deklaratzera. Horretaz gain, Udalaren gazte-politika eta gazteen aurkako epaiketak salatzeko protestaldia zegoen deitua igande eguerdirako. Ez genuen manifestazio edo enkar-

telada arrunta egin nahi izan. Zerbait koloretsuagoa egitea genuen pentsatua. Egun hartan ere, turuta joz Udal Musika Banda isilarazi zutenean bezala, nik ez nuen parte hartzerik izan, tabernan lana nuelako, baina, beti bezala, berehala heldu zen gertatutakoaren berri Atraskura.

Eguerdiko ordu bata inguruan irten ziren gaztetxetik hogeita hamar edo berrogei gazte inguru. Oihal berdez eta makilaz egindako herensuge mozorro erraldoiaren azpian sartuta egin zuten enparantzarainoko bidea batzuek; beste batzuek, Xepe horien artean, altzairuzko errodamendu txiki batzuen gainean ezarritako zurezko etxola moduko bati bultzaka: *«Fatxari tiro. Tiro al facha»* zioen etxolak oihalez estalita zuen aurrealdeko hormaren goiko parteko letreroak, eta atzealdean, berriz, pankarta handia zuen erantsia, *«Epaiketarik ez!»* zioena; Xingular eta Prestok lastoz egindako panpina bat zeramaten, soinean Azkoitiko alkatearen izena idatzia zuena; gainerakoek turuta jo eta buila egin zuten bidean. Kale Nagusian eta enparantzan harri eta zur geratu ziren igande eguerdiko paseatzaile dotoreak gazteei begira.

Herensugea plazan batera eta bestera mugitzen zen bitartean, oihala kendu eta *«Fatxari tiro»* egiteko barraka prestatu zuten beste batzuek: zurezko hiru panpina ageri ziren barruan, buruan alkatearen eta zinegotzi biren argazkiak kolatuak zituztenak; pirataz mozorrotutako gazte batek pilotak banatzen zizkien etxola barruko fatxa haiei tiro egiteko aukera izan nahi zutenei. Xingular eta Prestok, buru-estalkiak jantzita, enparantzako etxe bateko konponketa lanetarako ezarrita zegoen 15 metrotik gorako garabi garaiaren besoraino igo eta, epaiketaren aurkako komunikatuaren kopia ugari jaurti eta zabaldu ondoren, alkatearen izena soinean idatzia zuen lastozko panpina urkatu baten gisa eskegi zuten bertatik, behetik begira zeuden gazteen txaloak jasoz eta herritar zintzoen sumindura errea eraginez. Umoretsu eta koloretsua izateaz gain, eraginkorra ere izan zen protestaldia. Makina bat arratsaldeonen komentario eskandalizatuak aditzea egokitu zitzaidan niri egun hartan Atraskuko barran!

Gauean, ordea, telebistan Espainiako futbol ligako partiduei buruzko erreportaiak amaitu eta azken arratsaldeonek aldegin zutenean, bestelako hizketa gaiak izan genituen Xepe, Xingular, Mirari eta laurok, ondo animatu eta girotuta, garagardo batzuk edan eta porro batzuk erretzen, Atraskuko barraren barruan ni eta barraz bestaldean beste hirurak.

– Ba niri ez zaidak iruditzen horrela hartu behar dugunik –esan zuen Xepek, eztabaidagai genuen gaiaren inguruan Xingularrek agertu berri zuen iritziari aurre eginez–. Zein naiz ni edo zein haiz hi junkie bati ezer esateko? Berak ikusi behar dik. Bakoitzak bere aukera egitea zaukak.

– Bai, Xepe, tipo batek horrela bizi nahi badik, nahiz eta niri gustatu ez, hori bere erabakia duk –erantzun zion Xingularrek–. Oso ondo. Konforme horretan. Baina gaztetxea historia horretan sartu gabe. Peligro handia zagok: gaztetxea junkieen *ghetto* bihurtzearena.

– Zerk kezkatzen hau? Gaztetxearen irudiak? Jarraitxoek bezala hasi behar al dugu?

– Ez, ez duk hori. Baina ni kezkatu egiten naik zaldiak, Xepe, eta iruditzen zaidak aurre egin

behar diogula, bestela denok jango gaituelako. Kaka hori gaztetxetik atera beharra zaukaagu. Hori Poliziak sartu dik Euskal Herrian, hemengo gazte jendea apalankatzeko. Pasibidadea zabaldu eta mobida politikoak geldiarazteko. Eta lortzen ari dituk gainera, hori duk okerrena.

– Horiek jarraitxoen parabolak iruditzen zaizkidak niri –sartu zen eztabaidan Mirari–, eta nahiko txotxoloak gainera. Nik beti uste izan diat Poliziak inondik inora ere nahi ez duena guk ongi pasatzea dela.

– Ba nik oso garbi zaukanat. Oso-oso garbi gainera. Horretarako ekarri diten zaldia hona, dudarik gabe. Ez dun horrelakorik letuko *El Diario Vasco*-n, ez diten hori esango telebistan, baina mundua horrela zaukaten montatua.

– Baina hala balitz ere, lehenago esan diadana esaten diat berriro –tematu zen Xepe–. Zein naiz ni edo zein gara gu inori ezer esateko? Eta zergatik gaztetxean alkohola, kostoa eta *speed*-a nahi adina eta zaldia debekatua? Nola entenditzen da hori? Askatasunaren alde gaude ala gu ere jarraitxoen pare geratzen gara, droga onak eta txarrak bereizten?

– Kontua ez duk lege batez debekatzea, junkieei lekuz kanpo daudela sentiaraztea baizik. Ezagutzen duk esaldia, ezta?: «Heure burua hil nahi baduk, aurrera, baina ingurukoak zipriztindu gabe». Lehenengo eta behin modu onean eskatu eta kasurik egiten ez badute aurpegi txarrez begiratu gutxienez, erakutsi nazkatuta gauzkatela... Ez zakiat...

– Eta hala ere kasurik egiten ez badute, zer? Hostiatu? Horretara ere iritsi beharko al dugu? Errepresiora?

– Ez diat uste, Xepe, ez diat uste. Baina gure eskuetan dagoena egin beharra zaukaagu. Zaldia zer den eta zer arrisku dituen, informazioa zabaldu, geuk ez hartu eta hartzen dutenei ez hartzeko esan. Mugitzen ez bagara, laster gaituk denok txuta besotik zintzilik dugula, ikuiluko behiak baino apalankatuago.

– Ez zakiat ba, ez zakiat. Nik herenegun sudurretik sartu nian eta primerako puskerra izan zuan, batere problemarik gabekoa.

– Bai, behin eta sudurretik sartu huelako. Baina horrekin segitzen baduk, laster gramo erdi bategatik hire ama saltzeko prest egongo haiz.

– Zertarako diat ba nik ama?

– Berdin zaiok. Beste zeozer hortaz...

– La Polla Recordsen zinta? –bururatu zitzaion bat-batean Mirariri, Xeperen gustuak ederki ezagutzen baitzituen.

– Hori –baietsi zuen Xingularrek–. La Polla Recordsen zinta.

– Harrituko nindukek! –esan zuen irribarrez Mirarik–. Honek La Polla Recordsen zinta infernura eramango dik hil eta gero ere.

– Martxa pixka bat beharko diten behealde horretan ere, ezta? –esan zuen Xepek, adia pixka bat galduta, burua beste nonbait balu bezala.

– Ez zagok kuidadorik, motel –txantxa giroan sartu zen Xingular ere–. Inon egotekotan han egongo duk martxa, ez zeruan. Ez nikek nik behintzat zerura joan nahi. A zer muermoa izango duten han goian!

Solasaldiaz deskonektatuta, pentsakor geratu zen une batez Xepe. Ezer esan gabe, mostradore ingurutik urrundu eta zurezko mahai karratuetako batera hurbildu zen. Tripako min jasanezin batek eraso balio bezala, eskuak sabeleratu eta gorputza bihurritu eta barnebildu zuen, be-

launak apurka-apurka tolestuz, belauniko jarri arte. Eskuak sabel ingurutik atera eta aurrerantz eramanik, ahuspez etzan zen artean erratzez pasatu eta fregatu gabe nuen zoru narratsean, mahaiaren ondoan.

– Zer duk, Xepe? –galdetu nion harrituta–. Zertan ari haiz baina?

Ez genekien zer egin, nola erreakzionatu. Donostiako *casting*-ean egin zuena etorri zitzaidan niri gogora, baina inoiz halakorik begi aurrean ikusi gabea nintzen artean. Mirari, Xingular eta Periskopio ere ni bezain harrituta zeuden.

– Tipo hau kolgatuta zagok! –komentatu zuen Periskopiok irribarrez.

Mahaiaren hankari helduta zutitzen hasi zen Xepe, mantso-mantso, *ralenti*-an, kamera mantsoan ikusten diren irudien antzera, baina sekulako ahalegina egiten ari zelako plantak eginez. Nola edo hala mahai gainera heldurik, ahuspez narrazean pasatu zen mahaiaren bestaldera, eta gero handik beherantz egin zuen; eskuak zoruraino luzatuz poliki-poliki eta kolpe bortitzik gabe amildu zuen Xepek bere gorputz argala beheraino. Zoru narratsaren gainean arrastaka jarraitu

zuen harik eta eskuarekin hurrengo mahaiaren hanka ukitzera heldu arte. Bigarren mahaira lehenengora bezala igo zen, *ralenti*-an eta ahalegin handia antzeztuz, eta lehendabiziko mahaiko mugimenduak errepikatu zituen haren gainean ere...

Mutututa eta paralizatuta geunden guztiok Xeperi begira, ahoa bete hortz, hipnotizatuen moduan, hark bere mugimendu makal eta sufrituekin mahairik mahai jarraitzen zuen bitartean. Azkeneko mahaitik erori ondoren zoruan arrastaka jarraitu zuen ate ondoraino. Atearen eskutokiari heldu eta atea zabaltzeraino zutitu ahal izan zen, kostata, ezinean, azken-azkeneko indar hondarrak ahitzear balitu bezala. Atea zabalduri k, zoruratu berriro eta narrazean irten zen kalera.

Antzezpen arraro hura amaitutzat emanik Xepe aurki berriro gure artera etorriko zela uste izan genuen, baina ez zen tabernara itzuli. Kanpoan ote zegoen begiratzera irten ginenean ez zen inor ageri kalean.

– Jendea harrituta uztea gustatzen zaidak. Lerdokeriaren bat egin eta denak flipatuta geratzen dituk.

–X–

Xepek aktoretzarako zuen grina bitxia zen oso. Ez zen kanpora begirako aktoretza. Motorea barru-barruan zuen Xeperen aktore grina *sui generis* hark. Barruan konpondu ezinezko nahasketa bat zuenean, barrua korapilatuta sentitzen zuenean jotzen zuen, nire ustez, gure Xepe ilun, isil, uzkur, izuak ezusteko antzezpen harrigarri haietara, borondatea bahituko liokeen trantze erdi-mistikoan sarturik bezala. Aktore ere ez baitzuen Xepek nolanahiko aktore izan nahi. Mahaitik mahaira narrazean ibili zen gau hartaz geroztik behin baino gehiagotan izan zituen halako ateraldiak Atraskuan –taberna itxi eta barruan adiskide giroan geratu ondoren beti, noski–, gehientsuenetan antzezpen bat eta bera eginez, berak maiteen zuen rola jokatuz: Donostiako *casting* hartan edota gaztetxeko telefonoa txikitu ondoren egin zuen berbera, balaz zauritu eta hiltzera doanarena. Oihu egin, eskuak zauriaren aldera inguratu, gorputza bihurritu, nola edo hala ibiltzen saiatu, zabuka, alderoka, ezinean,

ia-ia erortzear, eutsi hala ere eta azkenean bazter batean ahuspez erori eta hilotz geratzea gustatzen zitzaion. Zirrara berezia sentiarazten zion hain berea zuen antzezpen sinple hark.

Horrelako rolak ziren Xeperenak, hitzik gabekoak guztiak. Hitzik gabeko aktorea izan nahi zuen bereziki Xepek. Gorputz soilaren adierazkortasun hutsez kanporatu nahi zuen barnean gorderik zuen mundu iluna. Hitzik gabe, imintzio eta orroarik harrigarrienak eginez agertu nahi zuen bere burua, eguneroko bizimoduak ixten zizkion ateak zabaltzeko.

Ilun, isil, uzkur, izu. Halakoxea zen Xepe. Bai, halaxe esan nien *Interviú*-koei, eta ez nuen gezurrik esan. Hala ere zenbaitetan argitasun eta ziurtasun harrigarria erakusteko gauza zen, eta mugarik gabeko ausardia, ezeren lotsarik edo beldurrik izango ez balu bezala. Donostiako *casting*-ean bezala, edo gure aurrean mahaitik mahaira narrazean ibili zenean bezala, hitz bakar bat ere esan gabe baina egoera guztiz bere mende harturik, dena hankaz gora jartzeko gauza zen batzuetan, aurrean harrapatzen zituen guztiak zur eta lur utzirik, «flipatuta», berak

zioen moduan. Nik uste dut une berezi horiekin lotuta zegoela nagusiki Xeperen aktoretza. Ez zuela harenak ez Aurrezki Kutxa Munizipalaren *spot* publizitarioekin, ez Hollywoodeko izarren lilurarekin eta ez antzeko ezerekin zerikusirik.

Horrelako kontuekin baino zerikusi zuzenagoa zuen, esate baterako, Xeperen aktoretzak kaleko borrokarekin, barrikadekin, pintadekin, batzokiaren zein udal batzarraren okupazioekin... Bere saltsan sentitzen zen horrelako ekimenetan. Bere antzezpen harrigarriek bezala, ekintza zuzenaren berotasunak ere barruko korapiloak askatzen laguntzen zion Xeperi, bestela ezin kanporatu zituen indarrei irtenbidea ematen, bizirik zegoela sentitzen, Xepe izaten azken batean, eta aukera egokitzen zen bakoitzean hantxe zen, isilik beti baina adi, bere lekuan, edozertarako prest. Oso maitea zuen Xepek ekintza zuzenaren indarra ederki adierazten zuen kanta bat, *Canción de cuna* izenekoa: *«En las barricadas aún se puede luchar. Allí el sudor se siente y la sangre se ve correr...»* La Polla Records, noski.

Okupazio garaiko eta gaztetxearen lehen aldiko istilu eta borroka gogorren ondoren, nahiko bareturik egon zen tarte batean Udalarekin bizi genuen gatazka, eta gaztetxea –nahiz eta inoiz onarpen eta ezagutza ofizialik ez izan– Azkoitiko eguneroko bizimoduan integratzen hasi zen ezarian-ezarian, tartekako mobida solte batzuk gora-behera beti ere. Baina hamahiru gazteren epaiketa deiarekin eta gaztetxe berriari buruzko lehen albisteekin batera aurki berotu zen berriro giroa gaztetxearen inguruan. Horregatik, alkatea irudikatzen zuen panpinaren urkaketa egin zen eguneko mobidekin hasita, ekintza zuzenarekin lotutako aktoretza modu bitxi hori, ekintza zuzenarena, lantzeko aukera ugari izan zuen berriro ere Xepek. Beste batzuenaren alderantzizkoa izan baitzen beti haren joera: zenbat eta gatazkatsuagoa giroa, orduan eta gaztetxearekin lotuago Xepe.

Gehientsuenetan aldez aurretik pentsatu eta prestatuak izaten ziren Udalarekin edota bere ordezkariekin izaten genituen kale-borroka zuze-

nak, baina inoiz edo behin egin genituen gure gorrotoaren adierazpen guztiz espontaneoak ere, udaletxeari harrika ekin genionekoa esate baterako.

Vioch-R taldearen emanaldia izan genuen gaztetxean apirileko ostiral hartan. Nahiz eta oso kanta gogorrak jotzen zituen –*Zipaioak hormara* deitzen zen horietako bat–, ez zen oso talde ezaguna eta ez zuen kanpoko jende asko erakarri Azkoitira. Baina etorri zen jendearen artean –taldekideak barne– jende bitxia zegoen, bronkarako gogo handikoa. Antijos, Xingular, Urrategi, Esther, Presto, Pipi eta zazpiok ere nahiko animatuta genbiltzan gau hartan. Etxe-Aitzetik irten eta Dean tabernarako bidean gindoazela, Antijos, Esther eta Pipi Plaza Berrin aparkatutako kotxeen gainera igota ibili ziren paseoan. Gero, Antijos, Presto eta hirurok elizako ate nagusiaren kontra pixa egiten hasi ginen, eta, atzera begiraturik, Xingular guregana hurreratzen ikusi genuen, mimika bidez guraizeak eskuan harturik gure zakilak ebakitzera zetorrelako keinuak egiten, barrezka.

Dean tabernaren aurreko sakakuloan elkarri bultzaka eta zoroarena egiten ari ginela hasi zen gau hartako benetako mobida. Ez dakit nork eta nola sortu zuen iskanbila, baina kontua da halako batean, ni ohartu nintzenerako, hamar-hamabi bat gazte eskuan zituzten garagardo botilak eta edalontziak Dean tabernaren ataritik aurrez aurre zuten udaletxearen kontra jaurtitzen ari zirela. Botila eta edalontzirik gabe geratu zirenean harriak botatzeko txanda iritsi zen. Egun batzuk lehenago Xingular eta Prestok alkatearen panpina urkatzeko erabili zuten garabiaren inguruko obretan material ugari zegoen eta hara jo genuen hasieran parte hartu ez genuen beste askok ere, harriak bildu eta udaletxearen kontra jaurtitzera. Aurki entzun ziren leihoetako kristal hautsien zaratak, eta zarata horien ondoren bozkariozko eta animozko oihuak. Bat-bateko eta ezusteko errebelio espontaneoa izan zen hura. Eromena!

Harri jaurtiketan pare bat minutu eman eta gero, udaletxearen aurkako eraso bortitz hura jada atertzear zegoelarik, Roberto sarjentua eta beste udaltzain bat agertu ziren enparantzan,

ateetan *«Azkoitiko Udaltzaingoa»* errotulua idatzirik zuen beren 4L auto txuri-urdinean. Zenbait kanpotarrekin batera, Xepe eta Antijos izan ziren udaltzainak ikusi arren harriak jaurtitzen jarraitu zuten azkoitiar bakarrak, eta Roberto sarjentua autotik jaitsi eta Antijosengana zuzendu zen berehala, haserre bizian, hura harturik iskanbila haren sortzaile, arduradun eta burutzat. Xepek ez zuen atzera jo orduan ere. Antijosen ondoan geratu zen, udaltzainei aurre egiteko prest.

– Orain zer? –esan zion zakar eta harro Robertok Antijosi, burua altxatuz–. Nahi al duk guardia zibilei hots egitea?

– Hots egin iezaiek, bai, hots egin iezaiek –erantzun zion kokildu gabe Antijosek–, lagun minak izango dituk eta.

– Kontuz gero zer esaten duan! Ni ez nauk txakurren laguna.

– Ez ezak pentsa urdinez jantzita hagoelako oso diferentea haizenik. Hi ere polizia hostia bat besterik ez haiz.

– Ni ez nauk polizia, aditu? –asaldatu zen zeharo Roberto–. Ni alguazila nauk, herritarren zerbitzura nagok eta hik baino askoz gehiago egiten

diat herriaren alde. Aditu al duk ondo hori, kabroi horrek? Eta ba al dakik zergatik? Abertzalea naizelako! Zuek sekula ez duzue entendituko zer den hori, zuek parasito hutsak zarete.

– ¡Un patriota, un idiota! –bota zion orduan bat-batean Xepek, begietara tinko begira.

– Hi, Larrañaga, egon hadi isilik, gizarajo hostia hori! –erantzun zion sarjentuak, Xeperen begiradari eusteko ahaleginean. Antijos eta Xeperen atzean geunden guztioi begiratu zigun gero–. Horixe zarete denok. Gizarajoak, gizarajo errukarriak! Pena ematen didazue, hara, pena!

Robertori txistua jotzen hasi ginen denok batera.

– Oso aktore txarra haiz, Roberto! –egin zion oihu Xingularrek.

– Egon hadi isilik, zipaio urdin hostia hori! –bota zion Vioch-Rkoen emanaldira etorritako kanpotar batek.

Sarjentuak eta bere lagunak ez zuten zer eginik. Erridikulua egiten ari ziren. Bazekiten Antijos eta Xepe atxilotzen saiatuz gero ez geniela utziko eta sekulako zalaparta sortuko zela. Etsita,

autoan sartu eta aldegin zuten. Gogotik jo genien txistua begien bistatik galdu genituen arte.

Hamar bat minutu geroago guardia zibilak agertu ziren bi lanroberretan, baina orduan bake-bakean zegoen enparantza. Autotik irten eta, kaskoak jantzita eta pilota jaurtigailuak eskuetan zituztela, Dean tabernaren aurreko arkupeetara begira egon ziren minutu batzuetan. Han, berriz, berrogei bat metrora, haiei begira, gazte mordo handi samarra geunden. Batzuk beldurrak airean, beste batzuk edozertarako prest. Xepe, Antijos, Xingular, Urrategi, Presto eta beste zenbait harri koskor batzuen ondoan kokatuta zeuden, guardia zibilak pilotak jaurtitzen hasiz gero kontraerasoari ekiteko gertu.

– Gustura hasiko nindukek ba oraintxe bertan harri tiraka! –esan zuen ahapeka Xepek.

– Ez zakiat ba ez ote garen hasi beharrean izango, horiek borrokarako gogoz daudela iruditzen zaidak eta –komentatu zuen Antijosek.

Minutu batzuen ondoren, ordea, lanroberretan sartu eta etorritako bidetik itzuli ziren atzera guardia zibilak.

Gaztetxearen aldeko eta agintarien aurkako ekintza zuzenak bere barruko korapiloak askatu eta hobeto sentitzeko lagungarri zitzaizkion, baina heroinarena oso korapilo zaila izan zen beti Xeperentzat, zalantza eta kontraesan ugariren sorburu.

Droga hark berekin zuen ospe gaiztoaren eraginez edota xiringaren beldurrez, Xepek, Periskopiok, Mirarik eta Luk uko egin zioten heroinari, baina Txus eta Kantxa, Leon eta Itsasoren baskako David, Poli eta inguruko beste zenbait gazterekin batera, bete-betean murgildu ziren beren artean *bakailao* izenez deitzen hasi ziren hauts zuriaren munduan, nor bere baskatik eta gaztetxekoon baskatik urrunduz, zaldiaren bitartez lotutako baska berezi eta apartekoa osatuz: junkieen baska, *bakailaotarrak*.

Bakailaoa gure inguruko jendearen artean zabaltzen hasi zenean Azkoitiko junkieek trapitxeoa egiteko ez zuten ezkutuko toki baten beharrik. Herriko enparantza nagusian bertan, Dean tabernaren ataritik udaletxe ondoraino dauden harmailetan eserita egon ohi ziren maiz,

eguerdi aldean edo bazkalondo garaian bestela, denak batera edo talde txikietan banatuta, materiala ekarriko zuenaren zain, gero banaketa hantxe bertan batere arazorik gabe egiteko, agerian. Hasiera batean behintzat ez zegoen kamellorik; denen artean dirua bildu eta junkieetako bat kanpora joan ohi zen bakailaoaren bila, Otxarkoagaraino batzuetan edota gertuagoko beste herriren batera beste batzuetan. Gero bai, denborarekin, diru premiak eraginda, bertan ere trapitxero lanetan hasiko ziren batzuk.

Astegun buruzurietako eguerdietan aurrez aurre izan ohi zuten junkieen mugida hura Dean aurreko sakakuloetan biltzeko ohitura zutenek. Xepe maiz izaten zen han eta baita neu ere Atraskuko barran egon beharrik ez nuenean.

– Ez zakiat Polizia ote den bakailaoa hona ekarri duena –komentatu nuen behin, horrelaxe, eguerdi batean, Xepe, Mirari, Esther, Lu eta Prestoren ondoan sakakulo batean eserita, bakailaoaren eguneroko mobidari begira nengoela–, baina gauza batean arrazoia zaukak behintzat Xingularrek: bakailaoa hartzen hasten direnek

beste ezer ez zaukatek buruan, horretarakoxe besterik ez dituk bizi. Osterantzeko dena akabo.

– Bai, motel! –baietsi zuen nik esandakoa Mirarik–. Batzuen kasuan hala duk behintzat. Txus eta Kantxa ondo aztoratuta zabiltzak azken bolada honetan. Ez zaidak batere gustatzen daukaten roiloa.

– Horiekin alferrik dun –esan zuen Prestok–. Nik garbi zaukanat: junkieekin argi! Hi hor eta ni hemen, badaezpada ere.

Xepek ez zuen hitzik ere esan. Barruko korapiloa askatu gabe zuen artean seguru askorik. Baina niri Prestoren hitz beroegiek erantzuna behar zutela iruditu zitzaidan.

– Bueno, bueno, kontua ez duk hori ere, Presto –izan zen atera zitzaidana–. Niretzat kolegak dituk horien arteko gehientsuenak.

Ez zen hura bakarra izan. Solasaldi eta eztabaida ugari izan genuen bolada hartan heroinari eta junkieei buruz. Eskema asko apurtu zizkigun hauts zuri arriskutsu hark baskako zenbaitengan izan zuen eragin galgarriak. Gogoan dut, hala

ere, Joseba abertzalearekin junkieei buruz hizketan hasi ginenean oso bestelako bide batetik jo zuela eztabaidak.

Larunbat gaua zen, nahiko berandu. Jende gutxi geratzen zen jada Atraskuan eta aurki ixtekotan nintzen. Beste askotan bezala, Joseba mozkortuta zegoen, niri bere penak eta arrangurak kontatzen, kaka esplikatzen. Gaztetxea itxi ondoren, Atraskura etorri ziren Xepe, Mirari, Periskopio, Xingular, Pipi eta Antijos. Poza hartu nuen, Josebaren esplikazio lehorren zama lagun guztion artean banatzeko aukera eman baitzidan haien bisitak.

Txus, Kantxa eta Leoni buruz hizketan hasi ginen, heroinari eta junkieei buruz, eta Josebak, nahiz eta bakarrik egon barraren bazter batean, ez zuen bere iritzia emateko aukera galdu zertaz ari ginen jabetu zenean.

– Ba al dakizue zer gertatzen den hemen? –egin zuen oihu, gure arteko solasa eten eta denok berari begiratzera behartuz–. Putakume asko dagoela herri honetan. Eta horietako asko hemen ikusten ditiat egunero, gaztetxearen inguruan, de guay, zuek esaten duzuen moduan.

– Zer hostia esaten ari haiz? –egin zion aurre, zakar, Antijosek–. Hik zer dakik horretaz?

– Nik dakidan gauza bakarra duk txakurrak pozik daudela junkieekin, oso pozik, hauts pixka bategatik direnak eta ez direnak kantatzeko problemarik ez daukatelako.

– Baina, Joseba, junkie guztiak ez dituk berdinak –gaztigatu nion nik eroapen handiko tabernariok ohikoa dugun doinu ulerkorrez, Txus, Kantxa eta Leon gogoan nituela batik bat–. Ez ditek denek berdin jokatzen. Gainera, ulertu egin behar duk nola ailegatu diren horretara. Ez zagok putakumea zein den hain arin erabakitzerik.

– Putakumea putakumea duk eta kito! –berotu zen Joseba, hain berea zuen sermoilari doinua bereganatuz–. Eta aditu ezak esango diadana, ondo aditu: txakurrek Euskal Herria putakumez josi nahi ditek, sekula ez dadin libre izan. Eta kalera irten eta putakumea besterik ez duk ikusten –amorru bereziz ahoskatzen eta ahogozatzen zituen hitzak, *putakume* bereziki–, gero eta putakume gehiago, gero eta klase gehiagokoak, putakumea hemen, putakumea han, putakumeak

leku denetan, eta laster ezin izango diagu kalera irten ere egin, bebarrutik irten orduko putakume batekin egingo dugulako topo... Putakumea, putakumea eta putakumea...

– Ondo gustukoa duk hitza, ezta, Joseba? –jo zion adarra Xingularrek.

– Ea, Joseba –sartu zen adar jotze girora Periskopio–, esaiguk: zer da hiretzat putakume bat?

– Putakumea duk hemen Euskal Herriaren kontra dagoena, Euskal Herriari kalte egiten diona. Entenditzen al duk? Euskal Herriaren kontra, euskararen kontra eta euskal presoen kontra dagoena. Garbi zagok, ezta?

– Ba nik ezagutzen ditiat Euskal Herriaren alde eta euskararen alde dauden putakume galantak ere –esan zion Antijosek, zorrotz eta serio.

– Baina euskalduna euskalduna duk, eta hala izango duk beti. Euskal Herria euskaldunok egiten diagu, era batera edo bestera pentsatuz baina beti euskaldun izanda.

– Ba PNVko asko euskaldunak dituk, eta baita Euskadiko Ezkerrako *txorroskiloak* ere. Eta zer?

– Nahiz eta gauza batzuetan beste era batera pentsatu, nik neurri batean errespetatu egiten ditiat. Aditu ondo, e!: neurri batean bakarrik. Baina errespetatu. Gutarrak dituk horiek azken batean.

– Gutarrak? Egon hadi isilik! Zer esaten ari haiz? Herri honetan dauzkagun putakumerik handienak euskaldunak dituk. Euskaldunak, euskaltzaleak eta nazionalistak: alkatea, kontzejalak, enpresari jendea, munipak, batzokiko baska osoa... Euskaldunak dituk horiek denak herri honetan. Hori duk hemengo errealitatea, egunero-egunero begien aurrean daukaguna, eta horri egin behar zioagu aurre txorakeriak eta zurikeriak lagata.

– Ez al duk entzun Hertzainak taldearen *Drogas AEK'n*? –galdetu zion burlaizean Josebari Xingularrek–. Ba hiretzako egina ematen dik –eta kantuan hasi zitzaion–: «*Zetako? Ez dabe entenditzen, ez dira behin bez kalean bizi izan, eta oraindio ez dabe betiko eskemak apurtu: Jaungoikoa, Lege Zaharrak eta HBri botua eman...*»

Xeperi, ordea, egokiagoa iruditu zitzaion Eskorbutoren *A la mierda el País Vasco*, eta huraxe kantatzeari ekin zion..

– *«Oh pueblo, qué bien te guarda tu ertzaina, con sus normas, leyes y trampas... Zona Especial Norte... Oh pueblo, a la mierda el País Vasco, Euskadi sigue rodando por el laberinto vasco... A la mierda el País Vasco, A la mierda el País Vasco...»*

– Hi, zer hostia pentsatu duk hik, hankamehe xixtrin kakatzu horrek? –haserretu zen Joseba Xeperekin.

– Lasai, Joseba, lasai... Hau ere euskalduna eta jatorra duk –esan zuen Xingularrek.

– Ematen ez badu ere –erematatu zuen algara artean Periskopiok.

Txikitandik hitz egin izan dugu euskaraz, eta euskara bizirik izan dugu beti inguruan, ahozko harremanetan bederen. Seguru asko horregatik ez gara inoiz oso euskaltzale sutsuak izan. Abertzaletasunari beti egin izan diogun muzinean ere izango du eraginik horrek, nahiz eta horretan beste motibo batzuk ere kontuan hartzekoak diren, noski: oso kontuan izan dugu beti, adibi-

dez, hitz hori nola itzultzen den aldameneko hizkuntzetara. Kontuak kontu, ez dut pentsatu ere egin nahi zer ondorio aterako zituzketen *Interviú*-koek gure artean izaten ziren horrelako jardun xelebreen berri eman banie.

Trapitxeoa agerian eta aire librean egiteko oztoporik ez bazuten ere, arazo latzagoak zituzten Azkoitiko junkieek pikoak sartzeko toki ezkutu eta egokien bila. Tabernetako edo gaztetxeko komunak erabili ohi zituzten horretarako hasieran, baina aurki sortu zitzaizkien ezinak. Tabernari gehienak komunak giltzaz ixten hasi ziren, edota, gutxienez, komunean inork pikorik sar ez zezala kontrolatzen. Gurean, Atraskuan, ez zen arazo handirik izan, Paulok errespetu handia sortarazi baitzuen junkieen artean. Gaztetxeko asanbladak ere –ez gaiaren inguruko eztabaida sakonik gabe– bertan inor bakailaoarekin ikusiz gero gaztetxetik kanporatzeko erabakia hartu zuen, gaztetxea heroinaren eta junkieen aterpe eta bilgune bihur ez zedin.

Hala ere, oso nekeza zen gaztetxeko komunean sartzen zirenak kontrolatzea, eta are nekezago Xepe etxera itzuli zenez geroztik tabernari finkorik ez zegoela kontuan harturik. Gaztetxean zer jende zegoen begiratu eta aurre egingo zien inor ez zegoela irizten bazioten, komunean sartzen ziren junkieak txutatzera. Diru premiak eraginda eta zainak egunero zulatu beharrak itsututa, babes handirik izaten ez zuen gaztetxeko barrako kaxatik dirua lapurtzen ere hasi ziren batzuk.

Lehendik ere gure aurkako nahikoa esames eta maiseaketa bazen, baina junkieen mobidak aukera berriak zabaldu zizkien auzi guztiak berehala erabakitzen zituzten mihi pozoitsuei. Alkatearentzat eta EAJkoentzat aukera ona izan zen hura berriro ere gaztetxearen aurka jokatzeko. Gaztetxeari droga trafikatzaileen habia izatea leporatu zioten herri osoan zehar banatu zuten komunikatu batean. Gurea zen, haien esanetan, heroina Azkoitiraino iritsi izanaren errua. Horrek ez gintuen hala ere gehiegi harritu. Askoz ere harridura eta asaldura larriagoa sortu zuen gure artean Azkoitiko HBk ere antzeko komunikatu

bat ateratzeak, «*gaztetxean drogarekin trafikatzen dutenak eta gazteen mugimendua izengabetzen dutenak*» ez zituztela onartzen esanez, eta, horrenbestez, ez zutela Azkoitiko Gazteen Asanbladaren borrokarekin bat egiten. Lehendik ere nahiko ospe txarra bagenuen herrian, horien guztien ondoren inoiz baino bakar eta baztertuago geratu ginen. Bakarrik eta etxe barruraino sartua zitzaigun arazo korapilatsu hura ezin konpondurik.

Arazo hura bezalaxe, korapilatsua eta konpontzen zaila zen Xeperi buru barruraino iritsia zitzaion nahasketa ere, eta une mikatz askoak pasatu behar izan zituen nahasketa haren ondorioz.

Astegun buruzuri bateko arratsalde batean, bertan bizi izan zeneko garaiak gogoratuz, gaztetxeko tabernari lanetan geratu zen Xepe Pipiren ordez. Erratza eta fregona pasatzea izan zuen lehendabiziko lana. Gero, bakarrik artean ere, gustuko musika entzun eta *Resiste* aldizkariaren ale bat irakurtzen ari zen, Txus, Kantxa eta Leon sartu zirenean.

– Iepa, Xepe! –egin zion oihu sartu orduko Txusek–. Berriz ere etxetik ihes eginda ala?

Hasieratik hartu zion susmo gaiztoa Xepek hiru adiskideen bisitari.

– Ez, motel, barrako turnoa hartu diat. Pipiren txanda zuan baina bihar unibertsitatean esamina inportantea omen zaukak eta bere partez etortzeko eskatu zidak. Zer hartuko duzue? Birrak?

– Atera itzak batzuk, bai.

Garagardoak ateratzeko bizkarra eman orduko marmarrean sumatu zituen hiru lagunak. Jiratu zenerako Leon areto nagusitik irtena zen.

– Hi, hasieratik gauzak garbi! –bota zien batbatean Xepek Txus eta Kantxari–. Zertara etorri zarete?

– Baina zer gertatzen zaik, Xepe? –erantzun zion Txusek, harritu itxurak eginez–. Nerbioso al hago?

Barratik irten, areto nagusia zeharkatu eta korridorean barrena komuneko ate ondoraino jo zuen korrika batean Xepek. Barruko krisketarekin itxita zegoen atea.

– Hi, Leon, hemen ez zagok txutatzerik –esan zuen arnasestuka eta ahots larriz–. Irten hortik kanpora! Agudo!

– Zer duk ordea, Xepe? –erantzun zion barrutik Leonek–. Ez al daukagu gaztetxean kaka lasai egiterik ala?

– Kaka zeuek egiten diozue zeuen buruari. Eta guri ere egin nahi diguzue burutik behera.

– Zer esaten ari haiz? Laga nazak bakean, Xepe, hitz egingo diagu gero.

– Atea behera botako diat ez bahaiz oraintxe bertan irteten.

Txus eta Kantxa ere korridorera irten eta komuneko ate ondora hurreratuak ziren.

–Ez hadi paranoikoa izan –esan zion Txusek Xeperi, adiskidearen jokabidearekin benetan harrituta–. Erotu egin haiz ala?

Xepek ez zion kasurik ere egin.

– Ez diat berriro esango, Leon. Atea behera botako diat, entzun?

Ezkerreko sorbalda mehearekin ahal bezainbat indar eginez bultzatu zuen komuneko atea Xepek. Ez zen oso ate sendoa baina bai Xeperen eraso ahulari eusteko lain. Bigarren erasoak ere

ez zion zirkinik eragin ateari, baina hala ere Leon etsi-etsian atea zabaldu eta kanpora irten zen bigarren kolpe haren ondoren, haserre bizian.

– Mekaguen Dios, Xepe! Baina zer hostiatan habil? Estupa sartu haiz ala? Ondo zagok, bai, ondo zagok. Ikusi diagu nolakoa haizen. Kontuan hartuko diagu hemendik aurrera.

– Xepe, mesedez, ez hadi horrela jarri –Leon baino askoz ere leunago mintzatu zitzaion Txus, gaztetxean pikoa sartzeko esperantza guztiak galdu gabe artean ere–. Ez duk inor enteratuko, eta nahi baduk gramo erdi bat lagako diagu heuretzat. Ez zabilek inor hemen. Ez dik inork ezer jakingo.

– Ezin diat, Txus, ezin diat. Benetan, niri ere min handia ematen zidak honela jokatzeak baina ezin diat. Nik ere...

– Laga iezaiok, Txus, alferrik duk eta –etsi zuen Leonek–. Txakurren moduan hitz egiten hasi duk hau ere: «Nik ordenak bete, besterik ez diat egiten». –Xeperi begira mintzatu zen ondoren–. Orain, badakik, izan hadi txakur txintxoa eta kontatu dena hire nagusiei, emango ditek eta zeozer, hezurren bat edo.

Bere onetik irtenda, Leonen gainera oldarturik, bultzakada bortitz batez oreka galarazi eta zorura bota zuen Xepek.

– Egon hadi isilik, kabroi zikin hori! Hemen ez zagok nagusirik!

Zorutik altxatzen lagundu eta adiskidea kanporantz bideratzen saiatu zen Txus.

– Goazen hemendik, Leon, alferrik ari gaituk eta.

– Bai, estupa batekin hitz egitea txorimalo bati jardutea bezalakoxea duk, alferrikakoa.

Barruan zuen amorruari eta ezinegonari ahal bezala eutsiz, Xepe begira geratu zitzaien korridorea zeharkatu eta eskaileretan behera jaisten hasi ziren arte. Areto nagusira jo zuen gero pauso makalez eta han Txus, Kantxa eta Leoni ateratako edalontzi garagardoz beteak ikusi zituen. Amorruaren amorruz, besoaren kolpe bakar batez pixka bat lehenxeago fregatu berria zuen zorura jaurti zituen guztiak. Eskuei begira geratu zen. Dardarka zituen eta ezinezkoa zitzaion dardar hura geldiaraztea.

–XI–

Gure erreibindikazioei eta negoziazio proposamenei jaramonik egin gabe, gaztetxe berria noiz eta nola zabalduko zen argitu baino lehen hartu zuen udal batzarrak gaztetxe zaharraren edifizioa behera botatzeko erabakia. Ez zuten data zehatzik aipatu baina aurki gaztetxea hustu eta utzi egin beharko genuela gaztigatu ziguten, eta egoera hartan bide bakarra ageri zitzaigun berriro ere begi aurrean: kaleko borrokari ekin eta gure gaztetxeari eutsi. Orduan, bide horretatik, ideia berezi eta anbiziotsua bururatu zitzaigun, itxura batean eraginkortasun handikoa izan zitekeena baina baita oso gogorra ere, batzuen aldetik behintzat oso sakrifizio handia eskatzen zuelako: gose greba indefinitua. Bost bolondres aurkeztu ziren asanbladan asmo hura aurrera eramateko prest: Antijos, Xingular, Urrategi, Trino –Itsaso, David, Poli eta abarren baskako mutil isil bat– eta Xepe.

Osteguna zen, 1984ko apirilak 26, arratsaldeko zazpi eta erdiak inguruan, bost gose greba-

lariak, baimenik gabe baina haiekin bat egiten genuen hogeita hamar bat gazteren laguntzaz, udaletxeko batzar areto nagusian sartu zirenean. Ez genuen oztoporik izan barrura sartzeko. Ate guztiak zabalik eta libre aurkitu genituen, udaltzainek ez baitzekiten mobida hura egiteko asmoa genuenik. Gure erreibindikazioak agertzen zituzten pankartak ezarri genituen hormetan. *«Gaztetxearen alde gose greban»*, jartzen zuen gose grebalarien egonlekuaren atzealdeako prestatu genuen pankarta erraldoiak; besteetan ohiko leloak ageri ziren, *«Gure etxea, gaztetxea»* eta antzekoak. Airean berehala zabaldu genuen haxix usaina bitxia gertatzen zen hain areto ofizial, dotore eta handi-mandian. Zorua, berriz, han eta hemen sakabanatutako trastez beteta zegoen: ur botilak, gose grebalarien koltxoiak, lo-zakuak, liburuak –Eneko Landaburuk horrelakoetarako aholkuak emanez idatzitakoa ere han tartean zen, noski–, arropa poltsak... Aurretik abisatua zegoenez, *Egin* egunkariak Azkoiti-Azpeitietan zuen korrespontsala ere etorri zen Azpeititik, argazki kamerarekin eta apunteak hartzeko koaderno txikiarekin. Mugimendu han-

dia izan zen arratsalde osoan baina, jakina, iluntzean gure bost heroiak bakarrik utzirik etxera joan eta afaltzeko ordua iritsi zen guretzat. Esther, Presto, Lu eta beste batzuek, hala ere, gauerdira arte hantxe geratuko zirela erabaki zuten, gose grebalariei laguntzen.

Biharamunean jakin nuen nik, ikaratuta, gau hartan gertatutakoaren berri. Gaueko hamaikak inguruan, kolore batekoa zein bestekoa Polizia beti Polizia dela erakutsiz, eta beti bezala Udalaren aginduak zintzo jarraituz, udaltzainek, Roberto sarjentua buru zutela, porrak astinduz eta gas negarrarazleak jaurtiz, udal batzar areto nagusitik egotzi egin zituzten bost gose grebalariak eta haiekin batera geratzen ziren hiruzpalau lagunak, istilu latzen ondoren. Gazteak udaltzainen erasoari eusten saiatu ziren eta oso gogorra izan zen bi aldeen arteko borroka: porrakada, ukabilkada eta era guztietako kolpe ugari, aulki eta mahaiak airean, kristal hautsiak, denak gasaren indarrak ito beharrean...

– Ez zegoan nirekin ahaztuta putaseme hori –komentatu zidan Xepek biharamunean, eskuineko betondoa ubeldu eta handiturik zuela, Ro-

berto sarjentuari buruz hizketan–. Ondo berotu naik txapete hostia horrek, bai, baina bereak ere hartu behar izan ditik, ez pentsa! Txakur kabroi zikina!

Ez dakit inoiz egin izan ote den mundu osoan Antijos, Xingular, Urrategi, Trino eta Xepek apiril hartan egin zutena baino gose greba laburragorik. Apenas gosetzeko astirik ere utzi zieten! Hobe izango zuten Eneko Landabururen aholkuen ordez karate pixka bat ikasteko eskulibururen bat izan balute eskueran. Baliagarriagoa izango zuten, alafede!

Pipik berriro ere esamina garrantzitsua zuenez, gose greba frustratuaren biharamun arratsaldean ere gaztetxeko barraren ardura hartu zuen Xepek. Etxetik gaztetxera bidean zihoala, herriko enparantza nagusitik pasatzean junkieak, ohi bezala, enparantzaren atzealdean ikusi zituen, Dean tabernaren ataritik udaletxe ondorainoko tarteko harmailetan eserita: Txus, Kantxa, Leon, David, Poli, Sanson... Xepe ikusi bezain laster, eserita zegoen harmailatik jaiki eta harengana

hurreratzen hasi zen Txus, eskua altxatuz eta adiskideari deika.

– Xepe! Xepe!

Aurreko astean Leon eta Txusekin izandako iskanbila gogoan zuela, urduri samar zeharkatu zuen Xepek enparantza Txusengana hurreratzeko.

– Hi, Xepe, kontu bat... –hasi zen herabe eta apal hizketan Txus biak enparantza erdian elkartu zirenean, baina, Xeperen begitartearekin harriturik, ezin izan zuen jarraitu–. Baina zer egin diate begian?

– Sarjentu hostia hori.

– Bart gaueko mobidan?

– Bai.

– Putaseme horrek ez zaukak barkamenik.

– Eman nioan bueltakoa ere, ez pentsa! Eta berriro ere aukera izanez gero...

– Hi, Xepe, mesede bat egin behar didak –eten zion Txusek, bereari heltzeko presaka.

– Heuk esan.

– Ez haiz nirekin moskeatuta egongo, ezta?

– Ez, motel! Zergatik ba?

– Joan den astekoarengatik.

– Ni hirekin ez behintzat. Eta heu nirekin?

– Ez, ez. Guk geurea egin nahi genian baina hik ere egin beharrekoa egin huen. Horrelaxe tokatu zuan, besterik gabe. Horrelaxe izaten dituk askotan kontuak, ez al zaik iruditzen?

– Ez zakiat. Gero pentsatzen jardun nian, eta igual gogorregi jokatu ote nuen ere...

– Bueno, ahaztuta zagok hori orain, Xepe. Eta ez duk berriro antzekorik gertatuko. Orain mesede bat eskatu nahi diat... Mila duroko bat behar diat zor batzuk pagatzeko. Laster bueltatuko dizkiat, datorren astean bertan, seguru-seguru, Xepe.

– Mila duro? Ederrari eskatu dizkiok! Hik badakik nik ez daukadala zakarrik, Txus.

– Mila duro ez bada ere talego bat izango duk gutxienez, ezta? Ez al gara ba lagunak, Xepe?

– Aspaldikoak gainera... Baina... –mila pezetako biletea atera zuen poltsikotik.

Burura etorri bazitzaion ere, ez zuen bihotzik izan Txusi diruarekin zer egin behar zuen galdetzeko. Eskaleei limosnatxoa eman eta ardotan ez gastatzeko ohartarazten dietenen jokabide hipokrita gogorarazi zion galderak.

– Lasai, datorren astean eskuan izango duk berriro –esan zion Txusek, Xepek poltsikotik ateratako biletea eskuan hartu eta atzera beste junkieak eserita zeuden harmailetarantz itzuliz–. Portatu haiz, Xepe!

Enparantza erdian bakarrik eta geldirik ez zuela ezer egiten konturatuta, gaztetxerako bideari jarraitu zion Xepek.

Arratsaldeko laurak inguruan, erratza pasatu ondoren gogo handirik gabe zorua fregatzen ari zela, ezusteko bisitaldia izan zuen.

– Hara gure gose grebalaria fregona gogotik astintzen –ezustean harrapatu zuen Itsasoren ahotsak atzealdetik.

– Gogotik, gogotik, ez oso gogotik, ez pentsa –erantzun zion urduri Xepek Itsasori, fregona astintzeari utzita, eta bere ametsetako neska ez zela gaztetxean bakarrik sartu ikusi zuen, lanbide heziketa eskolan ikaskide zuen beste neska batekin baizik, Nerearekin.

– Hostia! –atera zitzaion Itsasori Xeperen betondo ubela ikustean–. Begikoa bart egin al diate?

– Bai, sarjentu putaseme horrek. Berak ere jaso zitinan batzuk, ez merezi adinakoak baina... Zer hartuko duzue?

– Bi birra.

Fregona eta kuboa barra atzean utzi eta garagardoak ateratzen hasi zen Xepe.

– Hartu ezak heuk ere beste bat –gonbidatu zuen, eskuzabal, Itsasok.

– Nik beste bat? Baina... –urduritu zen berehala Xepe.

– Bai, motel, hartu heuk ere garagardo bat eta konta iezaguk bart gaueko abentura hori. Detaile denak jakin nahi ditiagu.

– Bale, bale... –amore eman zuen Xepek–. Gero ere egongo dun fregatzeko astia, eta fregatu gabe lagata ere...

Mostradore gainean utzi zituen hiru garagardo botilak.

– Eta nolatan zuek hemen? –galdetu zien neskei, urduritasuna ezin disimulatuz artean ere, nahiz eta zer kontatua izatea abantaila handia zela jakin.

– Hementxe, piper egiten –esan zuen Nereak, poltsikotik haxix bolatxoa atera eta porroa egiteko lanari ekinez.

– Beti bezala –zehaztu zuen Itsasok–. Normalean Etxe-Aitzera joaten gaituk kafetxo bat hartzera baina gaur hona etortzea pentsatu diagu bart gertatutakoen berri jakiteko. Ikaragarria izan omen duk, ezta, Xepe?

Urduri samar egon bazen ere, izan zuen behintzat Itsasorekin zertaz hitz egina Xepek arratsalde hartan. Ordubete inguru egin zuten Itsaso eta Nereak Xeperekin berriketan, bezpera gauekoaren kontaketarekin hasi eta gaztetxearen arazoarekin jarraituz.

– Nik uste diat oso ondo egon nintzela –esan zidan egun batzuk geroago Xepek, solasaldi hura gogoratuz–. Lasai eta normal, hizketan, behar bezala. Ondo. Txukun. Neure buruarekin harrituta geratu ninduan. Eta pozik.

Berak ere ez zekien zergatik, baina Itsasorekin maiteminduta jarraitzen zuen. Hala uste zuen behintzat.

– Ez zakiat, Niko, ez diat ulertzen zer gertatzen zaidan Itsasorekin. Hortera hostia bat dela

iruditzen zaidak batzuetan, *snob* nazkagarria, baina gero dardarka jartzen nauk harekin pentsatze hutsarekin. Zoratu egiten naik. Zeharo.

– Eta ez al diok sekula ezer esan behar?

– Zertarako? Hik uste al duk Itsasok nirekin...? Ez, ez zaidak buruan sartzen.

Udaltzaingoak ostegun gauean erakutsitako jarrera errepresiboa salatzeko, gaztetxetik abiatu eta alkatearen etxeko kanpoaldeko hormetan pintadak egitera joan ginen tropelean larunbat eguerdian. Hogeita hamar inguru lagun ginen. Tabernan egon beharrik ez nuenez, neuk ere parte hartzea erabaki nuen, eskuetan esprai potorik hartu gabe baina hantxe, nire laguntza emateko prest. Herriko kaskotik aparte samar zegoen alkatearen etxea, eta alkatearen aurka eta gaztetxearen alde oihuka joan ginen haraino. Bidean, nahiz eta gu nora eta zertara gindoazen ez jakin, hainbat arratsaldeonek errietaka ekin eta iraindu egin gintuzten, lotsarik ez genuela, kartzelara joatea merezi genuela eta antzekoak esanez. Alkatearen etxe atarira heldu ginenean,

gure oihuak aditurik, haren emaztea eta seme-alabak –bi neska-mutil txiki, hamar urtetik beherakoak biak– atera ziren balkoira. Alkatea ez zen ageri. Kanpoan izango zen. Gu ikusi bezain laster, izuturik, etxeko leiho guztiak itxi zituen alkatearen emazteak.

Ni ez nintzen batere eroso sentitzen. Banekien arrazoirik ez zitzaigula falta egiten ari ginena egiteko, baina min egin zidaten herritarren irainek eta gogorra iruditzen zitzaidan alkatearen emazte eta seme-alaben egoera. Beldur nintzen, gainera, udaltzainak etorri eta berriro ere istilu latzak ez ote ziren sortuko. Dena lehenbailehen amaitu eta handik alde egitea beste pentsamendurik ez nuen izan buruan Xepe, Xingular eta Luk hormetan gaztetxearen aldeko eta alkatearen aurkako pintadak egiten zituzten bitartean: *«Errepresiorik ez»*, *«Gaztetxea gurea da»*, *«Alkaterik gabe hobeto geundeke»*, *«Autogestioa»*, *«Burgesak hil»*, *«No future»*, *«Punk's not dead»*, zirkulu barruan sartutako `A´ handia... Oso luzea egin zitzaidan tarte hura, amaiezina. Xepek, aitzitik, ez zuen beldur edo kezka handi-

rik. Gogotik astindu zuen hark eskuan zuen esprai potoa barruko pintura guztia ahitu arte.

– Bueno, Xepe, nahikoa duk –esan zion Xingularrek, egindakoari aski iritzi zionean–. Goazen orain trago batzuk hartzera, gaurkoz nahiko lan egin diagu eta.

– Egon hadi pixka batean, oraindik ere bazagok hondar bat poto honetan.

Ezeren jabetzarik gabeko galtzaile marjinala baino ez izan arren, esku artean azken hondarretan zegoen esprai poto haren antzeko gauza ustez baliorik gabekoak baino ez zituen arren, garai huraxe izan zen Xeperen arorik beteena. Xeperen urrezko aroa. Urre hori, azken batean, are galtzaileago izateko bidea baino ezin zabaldu zion borroka batek ematen zion, baina hori ez zitzaion axola. Benetakoa eta bere-berea zen urre hura eta hori zen funtsezkoena. Ez zen urrea irabazteko egindako borroka. Borroka bera zen Xeperentzat urregorri.

Ez zen haatik dena urre izan orduan ere, noski. Beste askotan bezala, etxean bereak eta bost

entzun beharra egokitu zitzaion Xeperi egun hartako bazkalorduan.

– Zuenak ez zaukak izenik, mekaguen La India! –esan zion aitak–. Zuek ez duzue ezer merezi. Hara, halako batean kartzelara eramango bahindute poztu egingo nintzatekeela iruditzen zaidak. Benetan esaten diat, aditu al duk? Ez pentsa nik ezer ere egingo nukeenik hi kalera ateratzearren.

– Tira, Pedro, Jainkoaren izenean, ez ezazu horrelakorik esan –asaldatu zen ama.

– Ba, egia esanda, merituak egin dituzte, ama, bai honek eta bai osterantzeko denek –zehaztu zuen, zorrotz, Anjel Marik–. Nik ez dakit nola ametitzen diegun egiten duten dena. Sekulako kaltea egiten ari zaizkio herriari eta guk hala ere dena libre lagatzen diegu. Dena barkatzea ere ez da ona.

– Pentsatu ere ez dute egiten hauek –eman zuen bere ikuspuntua Joxe Ramonek–. Aldrebesak dira, kalamidade hutsak. Ez hanka eta ez buru. Jakin jendea kontra jartzea besterik ez dutela lortuko baina hortxe hala ere, hautsi kristalak, egin pintadak, narrastu bazterrak...

– Ez al duk ezer erantzun behar? –ia-ia mehatxua zen aitaren galdera–. Kalean oihuka eta hemen mutu, ezta? Hemen jan, lo eta gurasoei dirua eskatu. Baina hitzik ere ez, ezta? Zertarako? Etxe honetan ez diagu zuen ideia handi horiek entenditu eta apreziatzeko argirik. Tontoegiak gaituk, ez al da hala? Txoroa halakoa! Gizarajoa!

– Mutu geratu behar al du orain gure aktore famosoak? –galdetu zion doinu ironikoz Anjel Marik–. Noiz ikusi da horrelakorik? Bere jokabideak defenditzen ere ez dakien aktorea. Aktorea hi? Pailazo galanta bai!

Isilik geratu ziren guztiak une batez. Ilun, isil, uzkur, izu, ezer esan gabe, egoerari nola edo hala aurre egiteko erabakiari tinko eutsiz, bere buruari gogor eginez, Xepe batere gogorik gabe ari zen platereko xerra zatitu eta ahoratzen, aitaren eta anaien erretolika entzungo ez balu bezala, ezer gertatuko ez balitz bezala. Niri Atraskuan behin baino gehiagotan aitortu zidanez, horrelako egoera gogorretan purrustada, errieta eta mehatxu guztiak «seinale onak» zirela pentsatzen ahalegintzen zen Xepe, egoera istilutsu

haiek bizirik zegoela erakusten ziotela eta pozgarritzat jo zezakeela, azken finean, halakoak aditu behar izatea. Une haiei aurre egiteko lagungarri zitzaizkion pentsamendu horiek.

Isilunea hautsiz, ulerkorra izan nahi zuen doinuan, Xeperen aurkako erauntsiari jarraipena ematea erabaki zuen Joxe Ramonek.

– Hara, Martin, sikiera HBkoa izango bahintz, ba, bueno, ez gintuzkek ados egongo baina, muga batzuen barruan, onartzeko modukoa izango lukek. Elkar ulertzeko moduan izango gintuzkek. Presoen alde, independentziaren alde, tira... oso ondo. Horiek denak bidezkoak izan litezkek, edo diskutigarriak gutxienez. Baina zuekin alfer-alferrik duk. Aurrean harrapatzen duzuen dena txikitu eta kito! Ideia on bakar bat ere ez daukazue buruan. Horixe gertatzen zaizue zuei. Umeak zaretela, zenbat eta urte gehiago orduan eta umeago. Eta orain artean dena barkatu dizuegu baina egun batean, ikusiko duzue, nazkatzen bagaituzue gorriak ikusi beharrean izango zarete. Aditzen al duk? Gorriak gero! Eta ondo merezita, alajaina!

Xepek berean jarraitzen zuenez, isilunea egin zen berriro ere Joxe Ramonen hitzaldi-sermoiaren ondoren. Egongelatik telefonoaren txirrinaren soinua heldu zen jangelara. Ama jaiki zen deiari erantzutera.

– Zuretzat da, Martin –esan zion amak egongelatik bueltan.

Senideei begiratu gabe jaiki zen Xepe mahaitik egongelara joateko.

– Bai?

– Iepa, Xepe, Itsaso nauk –entzun zuen aurikularrean.

– Iepa, kaixo –erantzun zuen Xepek, ezusteak sortutako urduritasuna disimulatzen saiatuz.

– Gaur arratsaldean Bilboko nire lagun bat duk Azkoitira etortzekoa –ekin zion deiaren zergatia azaltzeari Itsasok aurikularraz bestaldetik–. Periodista duk, *Muskaria* rebistakoa, eta Azkoitiko gaztetxeko mobida musikalaren inguruko erreportajea egiteko asmoa zaukak. Ni jendeari hots egiten ari nauk, han denok juntatu eta horretaz hitz egiteko.

– Hitz egin? Eta zertaz hitz egin behar diot ba nik? Nik ez zaukanat horretarako kokorik. Ez naun batere egokia esplikazioak ematen.

– Eta zer uste duk, besteok hi baino hobeak garela ala? Denon artean hobeto egingo diagu, eta, erretratuak ere atera nahi dituenez, ba zenbat eta jende gehiago juntatu hobe.

– Ez zakinat ba –pozezko irribarreari ezin eutsirik–. Ez zidan ilusio handirik egiten erretratuan irteteko kontu horrek, egia esanda.

– Baina denok egongo gaituk han-eta!

– Bai? Zein dira ba agertzekoak?

– Ba oraintxe hasi nauk jendeari hots egiten eta heu izan haiz lehenengoa, baina jende askori hots egingo zioat. Xingular, Urra, Antijos, Pipi, Esther, Mirari, Periskopio, Niko, Lu, Trino... Zer? Etorriko haiz hortaz, ezta?

– Zer ordutan?

– Lau eta erdietan.

– Bale ba.

– Hori duk eta, Xepe! Gero arte beraz.

– Bai, gero arte.

Beltza, Tras eta beste txakur batekin batera, jende mordoska bildu ginen arratsalde hartan Itsasoren deiari erantzunez, baina elkarrizketak ez zuen asko iraun, kazetariak iluntzerako Bilbora itzuli beharra baitzuen, kontzerturen bat ikusteko. Gaztetxearen eta gaztetxeko kontzertuen historia kontatu genion labur-labur eta gero, agurtu aurretik, argazki bat egin zigun atarian, «*Gaztetxea*» zioen kartelaren eta haren inguruko grafiti eta irudien aurrean. Oraindik ere gordeta daukat argazki hura kaleratu zuen *Muskaria*-ren alea. Itsaso eta Xepe elkarren ondoan ikusten dira, aurreneko lerroan makurtuta, eta eskuineko eskua Xeperen ezkerreko sorbalda gainean pausatua du Itsasok.

Argazki hartarako prestatzen hasi ginenean Itsaso atzeko lerroan zutik kokaturik zeudenen artean egokitu zen, baina Xepe behean makurtutakoen artean zegoela ikusirik harengana inguratzea erabaki zuen.

–Ni hire ondoan, Xepe –esan zion, eskua Xeperen sorbalda gainean pausatuz–. Erretratu hau historiara pasatuko duk.

Ez zen sintoma bakarra izan. Xeperekin hitz egiteko eta Xeperengana hurbiltzeko gogoa zuen, antza, Itsasok egun hartan. Beren baskako David eta Poli heroinarekin endredatu zirenez geroztik, Itsaso eta Trino maiz bildu ohi ziren gurekin, poteak hartzeko, gaztetxean egoteko edota baita kanpoko kontzerturen batera joateko ere. Azken finean, baska bakar batekoak baikinen denok, gaztetxeko baskakoak. Gau hartan ere gurekin ibili ziren poteoan biak, gaztetxean, Atraskuan, Deanen eta Etxe-Aitzen, eta Itsasok eta Xepek bion arteko solasaldi luzeak izan zituzten. Garbi zegoen ez zela Xepe bere ametsetako neskarengana gerturatu nahian trebe eta ausart jokatzen ari zelako, Itsasok Xeperekin hitz egiteko gogoa eta interesa zuelako baizik.

Xepe, ordea, beti bezain ilun, beti bezain uzkur, ez zegoen bere amodio istorioa bide onetik ziholakoan.

– Bueno, Xepe, oraingo honetan ez didak ukatuko Itsaso hire atzetik dabilela –komentatu nion irri maltzurrez, burlaizean, biharamun

gauean Atraskuan–. Makina bat kontu bazian behintzat hiretzat atzo, bai arratsaldean eta bai gauean. Txora-txora eginda daukak, Primo.

– Ez ezak adarrik jo –erantzun zidan–. Hik badakik nolakoa den Itsaso. Ez duk ni bezalakoa, hark bazakik jende artean mugitzen. Bazakik hizketan, bazakik jendea tratatzen. Dena zakik demonio horrek. Eta niretzat lotsa pasarazteko moduko hurreratzea dena harentzat oso kontu normala duk. Beste era batera ohituta zagok, horixe duk dena. Ez diat uste hortik aparte inolako misteriorik dagoenik. Atzokoak ez dik ezer esan nahi.

– Ez duela ezer esan nahi? Bueno, bueno, Xepe... Zer nahi duk ba? Ea berarekin oheratu nahi al duan galde diezaan ala?

– Kezkatuta zagok bere baskakoen mobidarekin. Badakik, Poli eta David bakailaotarren mobidan sartuta zaudek, Txus eta Kantxa bezala, eta kontu horiek komentatu nahi zitian nirekin. Azken batean, beren baskan eta gurean antzeko historiak zaudek. Horixe duk misterio guztia.

– Baina horixe bera ere adiskidetasun handi baten hasiera izan zitekek, Xepe –saiatu nintzen

animoak ematen, burlaizeko irri maltzurrari uko egin gabe bazen ere–. Imajinazioa eta ilusioa eskatzen ditik amodioak. Hik zer uste duk ba? Hik dena eskura jar diezaaten nahi duk eta horrelako txoilorik ez zagok inon. Arriskatzeko prest egon behar dik enamoratuak. Jai zaukak bestela.

– Egon hadi isilik. Ez hadi horteroa izan. Eta, gainera, ea, esaidak: heu zer? Zertan dituk hire imajinazioa eta hire ilusioa? Ejenpluarekin predikatzen hasten ez haizen bitartean ez diat kasurik egingo, Niko.

– Ni ez nagok enamoratuta, Xepe. Gainera, ni...

Ez zitzaizkion nire aitzakiak interesatzen. Beste kontu batzuk zituen buruan eta ez zuen zalantzarik izan nire jarduna bat-batean eteteko.

– Ba al dakik zer esan zidan? –galdetu zidan halako doinu misteriotsu batez, esan behar zidana harrigarria zela gaztigatuz bezala.

– Zer?

– Ba batzuetan bakailaoa hartu izan duela berak ere. Zainetatik. Dena dela, bere burua kontrolatu egiten duela, ez duelako Poli eta Daviden antzera ibiltzen hasi nahi.

Ostegun buruzuri batez, maiatzaren 3an, goizeko zazpietan, aldez aurretiko inolako gaztigurik gabe (gaztetxea utzi behar genuela esana ziguten, baina epea zehaztu gabe), barruko traste guztiak kanpora atera eta gaztetxeko edifizioaren ate-leihoak blokez eta porlanez ixteari ekin zioten udal langileek Udaltzaingoaren zaindaritzapean.

Ezin izan genuen ezer egin. Ezustean eta ezer prestatu gabe harrapatu gintuen une hark. Berria jakin eta elkarrekin biltzen hasi ginenerako zintzo eta ondo beteak zituzten langileek Udalak emandako aginduak. Estherrek deitu zidan gertatutakoa kontatzeko eta nik, era berean, Xeperi deitu nion. Goizeko hamar eta erdiak inguruan heldu nintzen ni gaztetxeko atarira. Antijos, Xingular, Urrategi, Esther, Mirari, Lu, Trino eta beste batzuk ikusi nituen han. Beltza eta Tras ere han ziren, inguruan zituzten lagunei antzematen zieten tristura berenganaturik. Xepe pixka bat geroxeago heldu zen. Periskopio, berriz, harri eta zur geratu zen kamionetarekin par-

tiketa lanetan ari zela handik pasatzerakoan, eta lana utzi eta gurekin geratu zen hura ere. Pixkanaka-pixkanaka gero eta jende gehiago ginen etxe itxiaren atarian ikus zitekeen koadro goibel hari begira geundenak: nolanahi pilatuta zeuden han gaztetxeko aulkiak, tabureteak eta mostradorea, garagardo, ardo, mosto, batido eta freskagarri botilaz betetako kaxak, mota guztietako pattar eta likoreak, diskogailua, pletina, anplifikadorea, bozgorailuak, disko, zinta eta maketa mordoa, fanzineak, aldizkariak eta liburuak, pankarta, kartel eta argazki zaharrak, rock eta punk taldeen entsegu gelako anplifikadoreak, gitarrak eta baxuak, bateriako tanborrak han-hemenka sakabanatuta... Han ziren Xepe gaztetxean bizi izan zen garaian haren loa babestu zuten koltxoia eta maindire-burusiak ere.

Eguerdira arte jardun genuen abandonatutako traste haiek guztiak Periskopioren aitaren almazenera eramaten, eta eguerdiko hamabi eta erdiak inguruan udaletxera jo genuen hamabost bat lagunek, alkatearekin hitz egiteko asmotan. Sarrerako atean Roberto sarjentuak eta beste hiru udaltzainek itxi ziguten bidea.

– Zer hostia da hau? –esan zuen zakar Antijosek–. Ez al daukagu udaletxean sartzeko eskubiderik ere? Alkatearekin hitz egin nahi diagu.

– Alkatea kanpoan zagok. Gaur ez duk etorriko.

– Ba kontzejalen batekin hortaz.

– Denak batera ez. Gehienez ere biri pasatzen lagatzeko agindua zaukaagu.

Oihuka eta txistuka hasi ginen denok, erabaki hura gaitzetsiz.

– Faxistak! –egin zuen oihu Prestok–. Horixe zarete zuek, Franco baino faxistagoak.

– Zuek ere txakurrak zarete! –ekin zion manifestazio batean balego bezala kantatuz Periskopiok, eta lelo bera oihukatzen hasi ginen berehala gainerako guztiok ere.

– Zuek ere txakurrak zarete! Zuek ere txakurrak zarete!...

Udaltzainek ez zuten hala ere beren jarrera aldatu.

– Zeuek ikusi –esan zigun, hotz, Roberto sarjentuak–. Edo bi bakarrrik edo inor ez.

Amore eman eta etsi-etsian ordezkaritza bidaltzea hobe izango zela erabaki genuen azke-

nik. Antijos eta Urrategi igo ziren gora eta gainerako guztiok Atraskura etorri ginen, Periskopio izan ezik, utzitako lanari berrekin behar izan baitzion. Haren ordez Pipi bildu genuen gure artera, Donostiatik, unibertsitatetik, orduantxe heldua. Jakinaren gainean jarri behar izan genuen, noski, ez baitzuen gertatutakoaren berri.

Hamar bat minuturen buruan heldu ziren Antijos eta Urrategi. Ez zuten aparteko berririk ekarri. Gaztetxea zikina zegoelako eta bertan droga asko sartzen zelako erabaki omen zuen udal batzarrak ixtea. Gaztetxe berriari buruz, berriz, ez omen zieten ezer esan. Zerbait erabakitzen zutenean abisatuko zigutela, horixe besterik ez.

– Zer egin dezakegu orain? –galdetu nuen nik Antijos eta Urrategik emandako informazioa jaso ondoren–. Kale gorrian geratu gaituk.

– Zer egin? –bota zidan zakar bat-batean Xepek–. Ez al zaik iruditzen nahiko garbi dagoela zer egin? Gaztetxe berria okupatu! Ez zagok beste biderik kabroi zikin horiei aurre egiteko.

– Erraz esan duk hori baina ondo pentsatu beharreko kontua dela iruditzen zaidak niri –esan zuen orduan, beti bezain zuhur, Pipik–.

Gainera, Aiuntamentuak hiru kilo gastatu baldin baditu gaztetxe berria egiten, laster zabaldu egin beharko dik.

– Ez zaukaagu horien zain egoterik, Pipi –argudiatu zuen Antijosek–. Garbi zagok horiek zer nahi duten: EGIkoentzat egokia izango den gaztetxea, goitik behera kontrolatutakoa.

– Lehen ere saiatu gaituk alkatearekin negoziatzen –gogorarazi zion Urrategik Pipiri, Antijosen arrazoiak indartuz– baina ikusi duk zein izan den beraien erantzuna.

– Alferrik duk burua nekatzea –esan zuen ziurtasunez Xepek–. Ez zagok beste biderik. Gaztetxe berria okupatu behar diagu. Ezin zieagu kabroi horiei burutik behera kaka egin diezaguten laga. Potroetan emango zieagu!

– Redios, Xepe! Bero-bero eginda hago –bota zion barrez Xingularrek–. Politikoa ematen duk kanpaina bete-betean...

–XII–

Arrazoi zuen Xepek. Ez genuen beste biderik. Derrigorrezkoa zen gaztetxe berria okupatzea. Hala erabaki genuen egun hartantxe bertan, iluntzean, Atraskuan egindako asanbladan.

Herriko enparantza nagusian zegoen Udalak ondo itxita gorderik zuen gaztetxe berria, junkieen biltoki izan ohi ziren Dean tabernatik udaletxe ondorainoko harmailen aurrez aurre. Azoka plazaren sarrerako edifizioaren lehendabiziko solairua zen, Jubilatuen Elkartearen azpiko lokala hain zuzen ere. Lehenengo gaztetxea okupatzeko erabilitako burdinazko palanka handia ondo gordea zuen gurasoen baratzako etxolan Antijosek, eta huraxe hartuta joan ginen berrogei lagun inguru larunbat arratsaldean, 1984ko maiatzak 5 zituela, gaztetxe berriaren atzealdera, giltzarik gabe eta palankaren indarrez sartzekotan handik errazagoa izango genuelakoan.

Uste genuena baino zailagoa izan zen eta uste genuena baino txikizio handiagoa egin behar izan genuen leiho batetik zehar Udalak,

hiru milioi pezeta gastatuz, ustez eta teorian behintzat, herriko gazteontzat prestaturik zuen lokal hartan sartzeko.

Sartu ondoren, harriturik, lilura batean, guztiz aztoratuta ibili ginen guztiok batetik bestera gaztetxe berria ezagutzen, urrats bakoitzean deskubrimendu berria eginez. Txukun eta berri zegoen guztia, estreinatzeko prest. Ez zuen gaztetxe itxurarik. Baldosa zuri garbiak zituen zoruak eta zuriak ziren hormak ere. Dena hain zuri izan ez zedin edo, horma barrenetan arrosa kolorez pintatutako egur xaflak zeuden itsatsiak, laurogei bat zentimetroko altura zutenak.

– Gaztetxea baino gehiago anbulatorioa ematen dik honek –komentatu zuen Xingularrek–. Edo okerrago: batzokia. Kolore hauek ez zaizkidak batere gustatzen.

– Bai, hemen ere pintatu beharko dituzue paretak, Xingu –esan zion Periskopiok adar joka–. Ea gaztetxe zaharreko paretetan lortutako maila gainditzen duzuen.

– Ez, ez, guk egin genian gurea –erantzun zion atzera Xingularrek–. Oraingoan beste batzuen txanda izan behar dik.

– Aditu duk, Kopio –esan zuen Estherrek, Xingularren ideia berretsiz–. Hasi hadi pareta hauek nola pintatuko dituan pentsatzen.

– Bai, egon hadi lasai, pentsatuko dinat eta... pentsatuko dinat zeini pintarazi...

– Toki pixka bat bazagok sala honetan –komentatu zuen Antijosek–. Igual kontzerturen batzuk antolatzeko aukera ere emango ziguk.

– Igual bai –baietsi zuen Antijosen iritzia Pipik–, baina talde ezagunegirik ezin ekarriko diagu, bestela lehertu egingo duk eta...

– Ikusten al duzue hau? –esan zuen Urrategik mostradore atzeko trasteei begira–. Kafetera eta guzti zaukaagu barren! Sekulako adelantuak zauzkak gaztetxe honek!

– Musika ekipoa ere potentea dun –komentatu zuen Pipik.

– Eta kristoren bistak ditik –esan zuen enparantza nagusira begira zeuden aurreko hiru leihoak zabalduz Xingularrek.

Izan ere, zabala zen, bai, gaztetxe berriak zuen ikuspegia. Herriko enparantza nagusia ia osorik ikusten zen hiru leiho haietatik. Aurrez aurre, enparantzaren bestaldeko muturrean,

junkieen harmailak genituen begien aurrean, eta haien atzean herriko jauntxo aberatsenetako baten jauregi zaharra, Zelaiarena; junkieetako batzuk han zeuden orduan ere baina beste batzuk –Txus, Kantxa eta David bai gutxienez– gurekin ziren, okupazioan. Eskuinaldera begiratuta, udaletxea ageri zen; aurrealdeko fatxadan Atano III.a pilotari handiaren omenez ezarritako bustoa eta haren azpiko iturria oso ondo ikusten ziren, bertatik bertara ia. Ezkerraldera begiratuz gero, berriz, sakakuloen arkupeak eta, haien ondoren, Dean tabernaz haratago, Goiko Losa aire zabaleko pilotalekua.

– Munipak gu botatzera etortzen badira, hemendik ederki asko kontrolatuko ditiagu –komentatu zuen Urrategik Xingularrek zabaldutako leihoetako batetik begira.

– Laga itzan munipak bakean oraingoz eta lagundu iezadan pankartarekin –esan zion orduan Antijosek Urrategiri, aldean zeraman poltsatik bezpera gauean Atraskuan prestatu genuen pankarta handia atereaz.

Xingular eta Xepek ere lagundu zieten Antijos eta Urrategiri, eta lauron artean ezarri zuten

kanpoko leihoetatik zintzilik letra handiz *«Okupazioa»* zioen pankarta.

Gainerako guztiok gaztetxe berriko bazterrak miatzen jarraitu genuen bitartean. Tabernaren aretoaz eta komunaz gain, beste bi gela zituela ikusi genuen: neurriz ia taberna adinakoa zen gela zabal hutsa eta sukalde txiki bat, gas-bonbona eta guzti, jatorduak prestatzeko moduan atondua.

– Tortila ederrak egin behar ditiagu hemen –esan zuen Prestok, eskuak igurtziz, ilusionatuta, sukaldea ikusi zuenean.

– Hostia! –eten zuen bat-batean ordura arteko giro alaia Urrategik–. Txakurrak dituk! Txakurrak zatozak gaztetxea txapatzera.

Leiho ondora inguratu ginen denok trumilka, Urrategik esana egia ote zen egiaztatzera. Bi lanrober eta 4L auto txiki bat zeuden gaztetxe aurrean. Kotxetik jaitsi eta gaztetxearen beheko sarrerara jo zuten zuzenean guardia zibilek. Sakakuloen arkupeetan jendea biltzen hasi zen, ezusteko ikuskari harrigarri hari so.

– Zoratuta zaudek Aiuntamentuan! –bota zuen ikusten ari zena ezin sinetsita Xingularrek–. Txakurrei hots egin ez zietek ba!

– Zer egingo dugu orain? –galdetu zuen, urduri, Pipik.

– Ez zakiat –erantzun zion Xingularrek–. Hauek ez dituk munipak. Hauek edozer gauza egin zezaketek.

Ez genuen zer egin erabakitzeko asti handirik izan. Aurki ziren ate ondoan.

– ¡Guardia Civil! ¡Abran la puerta! –entzun genuen ateaz bestaldetik.

Prestok zabaldu zuen, serio eta lasai, atea. Lauzpabost guardia zibil sartu ziren, lasaitasunez, porra eskuan hartuta, pistolak gerrikoaren maginan sartuta.

– ¿Quién es el responsable? –galdetu zuen haien buru egiten zuenak.

Ez zuen inork erantzun.

– Bueno, es igual. Tenemos orden de desalojarlos de aquí. Nos van enseñando el DNI y van saliendo de uno en uno.

– Yo no tengo –bota zuen serio-serio Antijosek.

– Pues hay que tenerlo siempre, ¿entendido?

Ez zion inork erantzun.

– Por hoy es igual. Van saliendo fuera y en paz. Y que no se les ocurra volver a entrar, que será mucho peor. Venga, venga, desfilando... ¡Rápido!

Udaltzainak izan balira, eutsiko geniokeen gaztetxeari baina eraso hari aurre egiteko bestelako prestakuntza behar izango genuen. Berdez jantzitakoei obeditu eta lekuak hustu beste erremediorik ez genuen izan. Irteteko, gaztetxeko atea zeharkatu ondoren, enparantza nagusiraino iristen ziren eskailera batzuk jaitsi behar ziren, eta horietatik pasatzean tarte hura zaintzen ari ziren guardia zibilen porrakadak eta ostikadak jaso genituen batzuek, baina ez zen izan hala ere benetako mina emateko moduko kolperik. Guri beldur pixka bat sartzea besterik ez zuten nahi izan, antza.

Atzealdetik sartu baina gaztetxearen aurrealdetik irten ginen behintzat okupazio frustratu haren ondoren, eta horrek ere izan zuen bere balioa. Enparantza nagusian utzitako autoen ondoan, armak eskuan harturik zituztela, zelatan ge-

ratutako guardia zibilen ondotik banan-banan pasatzen ikusi gintuzten sakakuloen arkupeetatik begira zeuden begiluzeek. Atraskuko bezero eta arratsaldeon asko zegoen arkupeetan; Xeperen anaia Joxe Ramon ere han zen, andregaiarekin. Egia esanda, nik uste dut harrotasun puntu bat sentitu genuela guk denok une hartan, herriko jendearen aurrean guardia zibil armatuen mehatxupean gaztetxe okupatutik enparantza nagusira irtetean. Izan ere, garai hartan Guardia Zibila etsai izatea, artean ere, edonoren ohoregarri zen herritar gehienen begietan.

Garaiak aldatzen hasita zeuden ordea. Gure ikuspegitik eskandalagarria zen herriko alkate euskaldun eta ustez abertzale batek nori eta guardia zibilei deitu izana herriko gazteen aurka egiteko, baina berak uste baino ere hobeto atera zitzaion jokaldia alkateari, inork ez baitzuen txintik ere atera. Herritar zintzoek eta arratsaldeon gehienek ontzat eman zuten alkatearen jokabidea. Ontzat eman ez zutenei ere beste erremediorik ez zuela izan iruditu zitzaien, eta, azken

batean, alkatearen larruan egonez gero antzeratsu jokatu izango zutela beharbada.

Egoera ez zen batere egokia guretzat. Etsipena izan zen nagusi biharamunean Atraskuan egin genuen asanbladan. Bildu ere jende gutxi bildu ginen orduko hartan.

Xingular, beti bezala, egoeraren alderdirik onenaren bila saiatu zen orduan ere.

– Dena dela, gaztetxea egon bazagok Azkoitian. Egina zaukatek, herriko gazteentzat. Eta egina daukatenez zabaldu beharra zaukatek derrigorrez. Eta gu gaituk herri honetan gaztetxe baten alde antolatu eta mobitu garen bakarrak. Gaztetxe horrek gurea izan behar dik kontu pixkatekin jokatzen badugu.

– Kontu pixkatekin? –galdetu zuen Xepek, harrituta–. Horiekin kontu pixkat? Horiekin gogor jokatu behar duk, Xingu. Kaña emanez handik eta hemendik, ahal den tokitik eta ahal den moduan. Ez ditek beste hizkuntzarik entenditzen.

– Bai, hori bazakiat, Xepe –erantzun zion Xingularrek–. Esan nahi diat oso ondo pentsatu behar dugula nola jokatu. Oso une delikatua dela iruditzen zaidak.

– Niri ez zaidak iruditzen gaztetxea derrigor zabaldu beharra daukatenik –komentatu zuen Antijosek–. Beti izango ditek kulpa guri botatzeko aukera. Ez ditugula arauak errespetatu nahi eta horrelakoak esan eta hor konpon! Pikoloak bialduko zizkigutenik ere ez genian asko uste, baina orain zer? Bialdu zizkigutek eta hemen ez duk ezer gertatu. Gero eta errazagoa zaukatek nahi dutena egitea.

– Bai, baina orduan zertarako egin dute gaztetxea? –sartu zen eztabaidan Urrategi–. Orain horrekin zeozer egin beharra zaukatek eta horrekin presionatu behar ditiagu.

– Nik uste dinat komunikatu bat eskribitu eta herrian zabaldu behar dugula –proposatu zuen Pipik–, bizi dugun egoera salatuz: gaztetxea eginda eta prest dagoen arren herriko gazteak kale gorrian gaudela, alegia. Herriaren aurrean zeozer egin beharra izango diten.

– Urruti samar zaudek hurrengo elekzioak –erantzun zion Xingularrek–, baina, bueno, igual balioko dik zeozertarako.

– Komunikatuekin al gara berriro ere? –haserretu zen Presto–. Berriz nazkatu behar al ditugu

bazter guztiak? Horiek alferrikako kontuak dituk. Potrorik badago, sartu berriro gaztetxean eta ez laga pikoloei pasatzen...

Barregura eman zigun gehienoi Prestoren jarrera oldarkor itsuak. Urrategi, aitzitik, haserre zegoen Prestoren hizketa moduarekin.

– Hara, nik ez zaukaat potrorik, Presto. Beraz, hori zuen eskuan laga beharko diat.

– Eta nik ere ez –berretsi zuen Urrategiren teoria Estherrek–. Eta ba al dakik zer esaten diaten? Ba gaztetxea lortzea ala ez lortzea potroen gora-beheran badago, nik ez dudala gaztetxerik nahi.

– Bueno, bueno, ez zaitezte horrela jarri –desenkusatu zen Presto apaltasunez–. Hitz egiteko modu bat besterik ez dun. Nik esan nahi dinat –berriro ere indarra berreskuratuz– alfer-alferrik gabiltzala komunikatuekin eta putetxeko madrearekin. Xepek esan duen bezala, horiek entenditzen duten hizkuntza bakarra biolentzia dun. Osterantzekoak ez zaizkien inporta, dena ondo lotuta zaukaten eta. Denetarako zaukaten arrazoia eta aitzakia. Komunikatuak egiten ez

zienagu sekula irabaziko. Horretan gu baino askoz gehiago ditun.

– Eta indarrean ez al dira gu baino gehiago? –arrazoitu zuen Xingularrek–. Eskuak lotuta zauzkaagu, Presto. Ez gaudek pikoloei aurre egiteko preparatuta. Hori duk errealitatea.

– Ondo zagok, Xingu, ondo zagok –amore eman zuen Prestok azkenean–. Konforme. Primeran. Arrazoia daukazue. Hasi zuek komunikatua egiten. Nik bitartean porro handi bat egingo diat, ea barruan daukadan hostia txarra kentzen laguntzen didan.

Gaztetxerik ezean, herritik kanpoko gau girorik moderno eta *after-punk*-enera jotzea erabaki zuten hurrengo asteko larunbat gauean Mirari, Periskopio eta Xepek: Itziarko Mandiope diskotekara. Azken orduko rock musika, garagardoa eta *speed*-a ziren Mandioperen berezko ezaugarriak. Janzkera normal samarrarekin joandakoa bitxi geratzen zen han, lekuz kanpo erabat, are gehiago arropak kolore argietakoak izanez gero. Xe-

peren janzkera, oso modernoa ez izan arren, iluna zen behintzat, eta horrek salbatzen zuen.

Hango giroan guztiz integratu gabe, aspertu samartuta, garagardo bana esku artean hartu eta porro bat erretzen, horma ondoko besaulkietan eserita zeudela, Itsaso hurreratu zitzaien ustekabean. Mirari, Periskopio eta Xepe ez bezala, Itsaso Mandiopeko giro biziarekin bat egina zegoen. Diskotekako beste bezero askok bezala, ahoan zuen txikleari bueltak eta bueltak eragiten zizkion etengabe. Musika oso altu zegoen eta oihuka hitz egin behar izan zuten.

– Zer? Herrian martxarik ez zegoela eta Mandiopera zuek ere?

– Lehen sikiera gaztetxea geninan baina orain ezta hori ere –azaldu zuen Periskopiok–. Kanposantua ematen din hark.

– Eta zer iruditzen zaizue hau?

– Lehen ere egon izan naun batzuetan baina ez zaidan gustatzen –erantzun zion Periskopiok–. Beti hemen lau pareta artetik irten gabe egoteak ito egiten nain. Nik nahiago dinat taberna batetik bestera ibili.

– Ba niri gustatzen zaidan –eman zuen bere iritzia Mirarik–. Jartzen duten musika ondo zagon eta herrian baino lasaiago sentitzen naun. Hemen behintzat ez hau inork gaizki begiratzen itxurarengatik.

– Eta hik zer esaten duk, Xepe? –burua Xeperengana jiratuz.

– Ez zagon gaizki. Lehen Buzzcocksen kanta bat jarri diten behintzat.

– Arraiatxo bana nahi al duzue? –galdetu zien bat-batean Itsasok.

Elkarri begiratu zioten Xepe, Mirari eta Periskopiok.

– Pixka bat girotzeko zeozer beharko dugula uste dinat –erantzun zion Itsasori Periskopiok, eta Xeperi begiratu zion gero, baiespen bila–. Ez al zaik iruditzen, Xepe?

– Zergatik ez ba?

– Joan den astean kristoren perika nian, oso ona, baina agudo gastatu zuan hura –esan zuen Itsasok, txamarraren poltsikotik papelina atereaz–. Dena dela, gaur daukadan *speed*-a ere ez zagok batere gaizki. Honekin segituan girotuko zarete.

– Barrara noan garagardo batzuk ekartzera –esan zuen besaulkitik altxatuz Mirarik. Itsasori begiratu zion gero–. Hik zer nahi dun?

– Kuba-rona.

Periskopiori eman zion papelina Itsasok. Periskopiok zutitu, txamarraren poltsikotik haxix puska bat atera eta Xeperi eman zion.

– Ni komunera noak arraiak prestatzera. Bitartean egin ezak porro bat, Xepe.

– Uste diat hiri ez zaiala toki hau asko gustatzen –komentatu zion Itsasok Xeperi, biak bakarrik geratu zirenean.

– Ba ez pentsa. Azkoitian ez dun hemen baino giro hoberik izango momentu honetan. Betiko lau mozkorrak eta betiko lau lerdoak ibiliko ditun kalean bueltaka. Tartean behin herritik irtetea ere ondo zagon.

– Orain, gainera, gaztetxerik gabe askoz okerrago, ezta?

– Bai, beste roilo bat dun. Ez dun gauza bera.

– Dena aldatu egiten duk bizimodu honetan –hasperen txiki batez indartu zuen bere komentarioa Itsasok–. Ni gero eta galduago sentitzen nauk. David eta Poli jakoaren mobidan, gazte-

txerik ez... Lehen lagun min nituen asko ia-ia ikusi ere ez ditiat egiten orain, edota ikusi bai igual, eta haiekin egon ere bai batzuetan, baina gure arteko roiloa ez duk ja lehengoa... Dena azkarregi aldatzen dela iruditzen zaidak eta beldurtu egiten naik horrek. Hik ere denbora gutxian gauza asko bizi izan dituk, ezta?

Xepek ez zuen ezer erantzuteko astirik izan. Mirari heldu zen eskuetan hiru garagardo botila eta kuba-rona zituela.

– Itoiz taldeko kantaria ikusi diat barran.

– Bai, askotan izaten dun hemen –komentatu zion Itsasok–. Ez dun urrutikoa izan ere, Mutrikukoa.

Igande arratsaldean gela ilun bateko ohe arrotzean esnatu zen Xepe. Ez zuen ezer ikusten, ez zekien non zegoen, ez zekien zer egun zen, ez zekien ezer. Ezeren arrastorik ez. Eztarria minduta zuen eta burua iltze handi batek alderik alde zeharkatuko balio bezala; ile guztia lehorlehor, guztiz lakartuta, bezperan garagardotan blai egina izatearen ondorioz, dudarik gabe; ga-

ragardo lehorraren kiratsa zerion oraindik bezperako arropek –zapatilak barne– janzten zuten gorputzari ere alde guztietatik.

Bezpera gaueko kontuak gogoratzen saiatu zen. Lanak eman zizkion bezperan Mandiopen izana zela gogoratzeak. Hasierako uneak garbi agertzen zitzaizkion baina zulo beltz handia baino ez zuen aurkitzen oroimenean lehen *speed* arraiaz geroztikoaren bila hasten zenean. Oso martxa handia egon zela baino ez zuen gogoan, aparteko uneak izan zirela, harrigarriak, liluragarriak, dena betiko aldatu zela iruditu zitzaiola... Bizi izandako zirraren aztarnak baino ez ziren, ordea, oroimenak eskaintzen zizkionak, inolako ekintza edo gertakari zehatzi lotu gabeko abstrakzio hutsak. Poz handi baten arrastoak sentitzen zituen barruan baina ez zen poz hura atzeman eta berritzeko gauza, eta ezinegona eta kezka nagusitzen zitzaizkion pozaren ordez.

Pixkanaka-pixkanaka, ahul eta ilunak baziren ere, irudi berriak hasi zitzaizkion agertzen oroimenean. Periskopio, Mirari eta berarekin batera ikusten zuen Itsaso, Mandiopeko besaulkietan, edaten, erretzen, barre egiten denak... Beste

jende askorekin hizketan ere ikusten zuen bere burua. Asko hitz egiten zuten denek, guztiak batera. Txiklea ahoan zutela eta etengabe hizketan sentitu zituen buruan ezezagun haiek guztiak. Lehendik zuen kaskarreko mina ez zen makala baina oroitzapen nahasi hark handitu egin zion, goragalea eragitearekin batera

Eutsi egin zion hala ere barrutik zetorkion oldarrari. Kostata, kontu handiz, bizkarra oheburuaren kontra jarrita esertzea lortu zuen. Arnasa sakon hartzeko ahalegina egin ondoren, eztulka hasi zen. Eztul gaizto eta gaixoa, birika zartatuen oihartzuna zekarrena.

Eztulka ari zela, bezperako oroitzapen batek asaldatu zion barrena. Bere burua Mandiopeko pistaren erdian dantzan ikusi zuen, dantza gero eta eroagoan, zalaparta bizian, besoak eta hankak pistan zeudenen aurka astintzeko beldurrik gabe, azkenean inguruko guztiak, dantzatzeari utzita, berari begira jartzea lortu arte, gogo onez batzuk, haserre samar besteak. Bultzaka pista libre utzi ondoren, bere gorputz argal eta traketsa modu harrigarrian mugitzen jarraitu zuen. Periskopio, Mirari eta, batez ere, Itsasok animo-

ak ematen zizkioten. Oso pozik zeuden lagunak bere erokeriei begira, barrez ito beharrean. Inguruan bildutako ikusleei eskuetatik garagardo botilak kendu eta haiek bere burutik behera husteari ekin zion Xepek orduan, keinu gero eta basatiagoak eginez... Ez zuen besterik gogoratzen, baina argi zegoen behintzat bere ileen lakartasunaren eta bere arropen kiratsaren jatorria.

Lasaitu barik, lehen baino are jausiago sentiarazi zuten oroitzapen haiek. Amesgaizto ilun eta ezin narrats eta lohiago batean zegoela iruditu zitzaion, eta nahi izanda ere ez zuela esnatzerik. Ez zen ausartu ohean lagunik ote zuen egiaztatzen. Itsaso etorri zitzaion burura. Atzeko horman haztaka, etengailu baten bila saiatu arren, ez zuen ezer aurkitu. Mugimendu hura egiten ari zen bitartean bezpera gaueko beste irudi bat etorri zitzaion bat-batean burura, aurrekoa baino gozoagoa izan arren lehen baino are ilun, narrats eta lohiago sentiarazi zuena: Itsaso eta biak Mandiopeko besaulki batean elkarri musuka. Benetan gertatua ala amets hutsa ote zen oroitzapen hura? Xepek ez zekien, eta zalantzak urduritu eta min egiten zion barrenean. Larritu

egin zuen Itsaso berriro ikustean nola jokatu ez zuela asmatuko pentsatzeak. Bien bitartean, nola edo hala amesgaizto hartatik lehenbailehen esnatu beharrean zegoen. Berriro hasi zen hormari haztaka baina han ez zegoen etengailurik. Oina pixka bat mugitu ondoren, eskuineko aldean ohea bukatu egiten zela ohartu zen, han oina airean geratzen baitzitzaion. Alde hartatik zutitu eta hormari haztaka jarraitu zuen gelan zehar, harik eta ate batekin topo egin zuen arte. Haren ondoan zegoen, azkenik, argiaren etengailua.

Argia piztuta, bakarrik zegoela konturatu zen Xepe, ez zegoela beste inor pertsianak itxita zituen gela txiki baina txukun hartan. Lasaitu egin zuen bakarrik zegoela jakiteak, nahiz eta dezepzio txiki bat ere sentitu zuen barruan. Burua minez lehertzear zuen, batetik etengailuaren bila egindako mugimenduek barruko iltzea mugitu egin ziotelako eta, bestetik, argiak ezustean harrapatu zituelako azken orduetan ilunean laketuriko begiak. Gelako hormetan David Hamiltonen argazki handi batzuk ikusi zituen itsatsita:

neska gazte lirain biluziak laino arteko paisaia edulkoratuetan.

Gelako atea zabaldu eta korridorera irten zen. Atea zabalik zuenez, sukaldea ere ikusi zuen korridore hartatik, sukalde berri eta modernoa. Ez zegon inor han. Lehenbailehen kanpora irtetea zen onena. Korridorean zehar kanpoko aterantz zihoala, gelan utzitako kiratsaz oroitu eta hara itzultzea erabaki zuen. Gela egurasteko asmotan leihoa zabaldu eta ezagutzen ez zuen herri bateko kaleak etorri zitzaizkion begietara, arratsaldeko eguzkiaren argitasun itsugarri eta –bai Xeperentzat une hartan behintzat– desatseginarekin batera.

Etxe ezezagun hartatik kanpora irten zenean, aurrezki kutxa bateko erloju digitalean irakurri zuen ordua: arratsaldeko sei eta erdiak. Nahi izan balu ere, ezin izango zukeen igandeari dagokion arropa txukun eta dotorez jantzita paseo lasai eta geldoan zebilen jende artean nabarmen uzten zuen arlote narrats itxura hura disimulatu. Bikote zoriontsuei begira Itsasoz oroitu zen berriro. Zalantza, urduritasuna, ezinegona, desosegua, beldurra, mina… Zirrara desatseginak baino

ez zizkion sentiarazten bezpera gauean Itsaso eta biak beharbada elkarri musuka aritu zirela pentsatzeak.

Inori ezer galdetzeko kemenik gabe, kale ezezagun haietan zehar ibili zen denbora puska batean, taberna eta dendetako letreroak irakurriz, ea bakarren bat ezaguna egiten ote zitzaion. Ez zuen bat bera ere ezagutzen ordea. Bide seinale batzuekin topo egitean ohartu zen non zegoen. Letreroak Elgoibar sei kilometrora zegoela zioenez, herri hark Eibar izan behar zuela kalkulatu zuen. Tira, bazekien behintzat zer ordu zen eta non zegoen. Etxera itzultzeko moduan zegoen azkenean ere.

Poltsikoan zituen azken txanpon hondarrekin Atraskura deitu eta, bere egoera azaldu ondoren, Periskopiorengatik galdetu zidan, baina hura ere bezperako parrandak utzitako ajea pasatzen egongo zen arratsalde hartan, ohetik irten gabe seguru asko. Presto izan zen autoarekin Eibarreraino joan eta Xepe jaregin zuena.

Etxera heldu zenean ez zuen, zorionez, inor aurkitu han Xepek. Dutxa bat hartu eta bere gelara jo zuen, gustuko musika entzun ondoren lo lasai egitera. Biharamuneko bazkarian ez zuen uste zuen adinako errieta eta istilurik izan. Izan ere, aitak karta bat zuen ezkutuan ondo gordea.

– Martin, egon hadi pixka batean, berri ona eman behar diat eta –esan zion aitak semeari, Xepe, gainekoa jan ondoren, ohi bezala, bere gelara joateko altxatzen hasi zenean. Ez zion susmo onik hartu Xepek aitak hura esatean erakutsi zuen pozari.

– Akordatzen al haiz Fidel Azpeitiko lehengusuarekin?

– Bai.

– Akordatzen al haiz non hengoen hi hura ezkondu zen egunean?

– Gaztetxean bizi nintzen garaian izan zen, ezta?

– Bai, jauna! –ordura arteko doinu gozo faltsua hautsiz, ahotsa altxatu zuen osaba Pedrok–. Nahiz eta hark borondaterik onenez gonbidatu, hik ez huen bere bodara joan nahi izan. Akorda-

tzen al haiz? Baina hark hala ere hiretzat lana topatu dik. Zer iruditzen zaik?

– Lana niretzat? Zer lan? –galdetu zuen, izututa, Xepek.

– Egurrak lijatzen, bere aitaginarrebak Landetan duen tailerrean.

– Egurrak lijatzen? Nik ez dakit ordea horretan. Nik ez...

– Et, et, et... Ez hadi orain aitzakiak jartzen hasi –eten zuen errotik Xeperen kezka eta zalantzen adierazpena osaba Pedrok–. Ez badakik ikasiko duk, eta gogorik ez badaukak ez diat etxe honetan sartzen lagako. Lehen ere probatua haiz etxetik kanpora bizitzen eta berriro probatu nahi baduk heuk ikusi. Hor konpon! Niri bost! Baina etxe honetan biziko bahaiz badakik zer egin behar duan. Nahiko argi esan diat, ezta?

Mutu geratu zen Xepe.

– Datorren ostegunean hasiko haiz, goizeko zortzietan.

Lehendik aski buruhauste eta nahigabe bazuen Xepek, eta lanaren albistea ez zitzaion ba-

tere lagungarri gertatu. Lur jota, astelehen hartan ez zen etxetik irten. Baina astearte gauean bere oroitzapenetan zeuden hutsarteak bete nahiak bultzatu zuen Xepe Atraskura. Ezin zen zalantza haiekin bizi. Larunbat gauetik igande goizera bitartean egindakoak berreraiki beharra zuen derrigorrez. Berak pentsatu bezala, ongi beteak nituen nik hutsarte haiek, ondo argituak Xeperen zalantzak, ez baitago guri, tabernarioi, ihes egingo digun funtsezko albisterik. Nahi izan gabe ere, dena jakiten baitugu guk azkenean.

Ia-ia hutsik zegoen taberna eta ixtekotan nintzen Xepe mostradorerantz hurreratzen ikusi nuenean.

– Hona hemen gure dantzari zoroa –agurtu nuen irribarrez–. Sekulako exitoa izan omen huen zapatu gauean Mandiopen.

– Exitoa? Zer ba? –galdetu zidan urduri.

– Pistako erregea izan omen hintzen.

– Ez duk harritzekoa. Harrapatu nuen zikloiarekin...!

– Eta neska kontuetan ere txapeldun, ezta? –azkar jo nuen harira–. Zorionak, motel! Zer moduz Itsasorekin?

– Itsasorekin? –urduri–. Zer dakik horretaz, Nikolas? Zer dakik?

– Ba, bueno, zuek biok gau hartan... Periskopio eta Mirari zuek han lagata bueltatu zirela behintzat...

– Gu han lagata?

– Goxo-goxo gainera...

– Hortaz, egia duk!

Behera begira geratu zen, pentsakor, Xepe. Garagardo bat atera nion tarte horretan.

– Eta orain zer egin behar diat nik Itsaso ikusiz gero? –azaldu zidan bere kezka.

– Bueno, bueno, Primo... Itsasorekin enroilatu nahi huela besterik ez huen esaten orain artean, eta orain, berarekin egon eta gero, lehen baino okerrago ikusten haut. Ez duk erraza hirea entenditzea.

– Ez nauk akordatu ere egiten. Zeharo mozkortuta nengoan. *Speed* hostia horrek sekulako egarria ematen zidak. Konturatzen al haiz? Hik esan artean ez nekian seguru benetan Itsasorekin egon ote nintzen ere. Eta oraindik ere ez zakiat nola egon nintzen. Bazakiat morreatzen jardun genuela Mandiopeko sofa batean, bai, justu-

justu bada ere, hori bazakiat behintzat. Baina hortik aurrerako ezerekin ez nauk akordatzen. Lo egin nuen etxea zein hostiarena ote den ere ez zakiat. Eta orain Itsasok... Zer arraio egin behar diat nik Itsasorekin?

– Ez ezak dramarik sortu, motel! Morreatzen jardun bazenuten ondo zagok. Orain lagunak zarete berriz, lehen bezala, eta beste zeozer izatera ailegatu nahi baduk lehen baino errazago daukak bidea.

– Lehen baino errazago?

– Orain behintzat badakik hirekin gustura egoten dela.

– Nik ez zakiat ezer, Niko. Nik gero eta gutxiago entenditzen diat dena.

– Berez erraza behar lukeena konplikatu besterik ez duk egiten.

– Egon hadi isilik –gero eta suminduago–. Gure ama ematen duk.

Xepek agindu bezala, isilik egon nintzen une batez. Baina banuen bestelako albisterik ere Xeperentzat.

– Hi... Beste kontu bat... Asanblea egin genian hemen atzo iluntzean. Ba al dakik Aiunta-

mentuak gaztetxearen gaineko bilera zabala antolatu behar duela, gaztetxearekin zer egin erabakitzeko?

– Bilera bat gaztetxearen gainean? Nolatan?

– Estatutuak onartu eta presidentea, bokalak eta tesoreroa aukeratzeko botazioa egiteko asmoa ditek. Seguru asko EGIko jendeari esan ziotek beraien arteko bat aukeratu eta asanblean denek haren aldeko botoa emateko. Susmo hori zaukaagu behintzat.

– A zer lerdokeriak! Eta zer erabaki zenuten atzoko asanblean? Bilerara joatea?

– Ba bai. Bilerara joan eta, ahal bada, gutariko bat presidente izendatzea lortu, nahiz eta gero presidente horrek ez duen ezer egingo eta erabaki denak asanblean hartuko diren.

– Hori erridikulua duk baina! Niregatik balitz, atea txikitu eta barrura berriz ere. Edo bestela egunero batzokira joan, hango jendea nazkatzera. Hainbeste bilera eta hainbeste txorrada!

– Baina ez al haiz konturatzen hori dela geratzen zaigun bide bakarra?

– Ba kaka zahar ustela duk bide hori! Niri berdin zaidak dena, Niko... Egun batean bronka bal-

din badago, azalduko nauk, baina bilera, botazio eta txorakerietarako batere gogorik ez zaukaat.

– Hori esatea erraza duk, baina zeozer egin beharra zagok, eta benetan zeozer egin nahi izanez gero asanblean parte hartu behar duk.

– Asanblea, asanblea... Hainbeste asanblea eta hainbeste putetxeko madre! Ez zakiat nik zer hostiatarako! Herri hau kaka bat duk, Niko! Eta geu ere bai... Ez zakiat zer garela uste eta kaka bat gaituk, puta mierda bat.

Aldameneko horman gure parean itsatsita zegoen kartel txiki bati begira geratu zen. Azkoitiko Gaztetxeko Zine-Klub Taldearen kartela zen. Ingmar Bergmanen *El séptimo sello* filmearen emanaldia iragartzen zuen, hurrengo ostiralerako, maiatzak 18, iluntzeko zortzi eta erdietan, Floreagako ikastetxeko zinema aretoan.

– Joan behar al duk? –galdetu nion, afixari tinko begira geratu zela ikusirik.

– Zer hostia da hori? –egin zuen oihu, nire galderari erantzun gabe.

– Zine-klubeko komisio bat sortu ditek. Pipi eta Urra zabiltzak horretan, eta neuk ere lagun-

tzen zieat. Diputazioak subentzioak ematen ditik pelikulak botatzeko eta...

– Komisioa? Pelikulak botatzeko? Diputazioaren subentzioarekin? –egin zuen oihu, haserre–. Ikusten al duk? Konturatzen al haiz? Horretarako al gaude gu? Pelikulak botatzeko? Nik ez diat ezer entenditzen.

– Benetan petralduta ikusten haut, Primo. Har itzak lasai gauzak, motel. Ez al zaik ondo iruditzen pelikulak botatzea? Etxean telebista ikusten geratu beharrean beste era bateko pelikulak ikusteko aukera izango diagu...

Ez zidan erantzun. Garagardo botila eskuan hartu eta, niri kasurik egin gabe jiratuta, aterantz zuzendu zen. Gure tabernatik irten eta pare-parean dago Azkoitiko eliza nagusia, eta haren hormetako baten kontra jaurti eta hautsi zuen botila etxerako bideari ekin aurretik.

–XIII–

Lan konturik ez zidan aipatu Xepek solasaldi trakets hartan, baina ziur naiz lan kontuek ere izan zutela eragin zuzenik bere jenio txarrean eta bere jarrera zakarrean. Mirari eta Periskopiok esanda jakin nuen, egun batzuk geroago, Xepe lanean hastekoa zela. Lan gogorrean gainera, alajaina! Baskako mutil asko aritu izan da, eta ari da, Azpeitiko Landeta auzoan, altzarien hiriburuan, egurrak lixatu eta garbitzen edo antzeko lan toxiko eta nazkagarrietan, eta ez dut egundo bat bera ere ezagutu bere lanarekin gustura zegoenik. Pentsatzekoa zenez, Xepe ere ez, noski.

Hamar ordu astegunetan eta bost larunbatetan, birikarik onenak ere izorratzeko moduko produktu toxikoak barneratuz arnasarekin batera, segururik gabe eta miseria hutsa den soldata baten truke, aginduak errieta gisa ematen dituen nagusi zakar, petral eta harroputz baten menpean. Hala zen, gutxi gora-behera, orain dela hamar urte eta halaxe jarraitzen du orain ere, gero eta okerrago gainera, nagusiak langa-

beziak sortzen duen premiaz baliatzen baitira errukirik gabe. Langileak ez badu haren eskaintza miserablea onartzen beti izango du nagusiak ordezkoa aise aurkitzeko aukera.

Ez zen bolada gozoa izan Xeperentzat. Bizitza aldatu zitzaion eta bera ere aldatu egin zen, sumindu, zakartu, petraldu erabat. Lehendik barruan zituen minak ez ziren gutxi izango, baina lanak lehertarazi egin zituen Xeperen baitako min haiek. Lanak nekatuta eta nagusiak umiliatuta etxeratu ohi zen iluntzero, lur jota, abaildu-ta, «musika entzuteko ere kemenik gabe», geroago aitortuko zidanez. Asteburuetan, «Itsaso ikusteko beldurrez eta beste inor ikusteko gogorik gabe», ez zen kalera jaisten. Puska batean ez genuen baskakook Xepe ikusi ere egin.

Baina gure artera ez etorri arren, egin zuen Xepek barrabaskeria bitxi bat asteburu haietako batean. Santa Engraziakoa bezala, sekretua izan zen hura. Nik dakidala, ez zion beste inori kontatu.

Xeperen nagusiak –Fidel bere Azpeitiko lehengusuaren aitaginarrebak– txalet handi eta dotorea zuen Azkoitiko mendi auzune batean,

Martirietan, piszina eta guzti. Oporretan eta udako zenbait asteburutan baino ez zen joaten hara nagusia familiarekin, eta gainerakoan hutsik egon ohi zen txaleta. Nagusiaren alaba gazteenak lehen jaunartzea zuen asteburu hartan eta Xepek bazekien txaleta hutsik egongo zela. Etxean asteburua mendian pasatzera zihoala esan eta, morralean, kasetarekin, hainbat zintarekin eta garagardo botila batzuekin batera, burdinazko palanka txiki bat sartuta, nagusiaren txaletera jo zuen oinez larunbat iluntzean. Hara heldu zenean, isilean eta kontu handiz, kanpoko pertsiana altxatu zuen palankarekin, gero harri koskor batekin leihoko kristala hautsi eta barrura sartu ahal izateko. Barruan zelarik, berriro pertsiana itxi eta etxearen jabe zen Xepe. Eskuetan zuen mendekuaren gozoa.

– Sekulako sentsazioa duk hori, Niko. Ez dakik zer poz sentitzen den barruan...

Txaletaren inguruan beste etxerik ez zegoenez, batere kezkarik gabe jarri zuen musika kasetean. Aldez aurretik errebobinatua zuen La Polla Recordsen zinta *Canción de cuna* kanta entzun ahal izateko, huraxe baitzen, zalantzarik

gabe, une hari ondoen egokitzen zitzaiona: *«Llegará, llegará, cada burgués recibirá su broma, su broma, se vengará la humillación...»*

Hantxe egon zen Xepe, bere erara, igande iluntzera arte, musika entzuten, telebista ikusten, lo egiten, bazter guztiak miatzen, dena hankaz gora jarri eta narrasten... Alde egin zuenean ez zen etxe barrura sartzean hautsitako kristala izan Xepek utzitako arrasto bakarra: altzari guztiak hankaz gora jarri zituen, ispiluak, lanparak eta hormetako koadroak txikitu, baita altzarien gaineko kristal zein buztinezko pitxer eta figura dotoreak ere, telebista zorura jaurti eta lehertarazi, bainontzian kaka egin, idiarena jo eta nagusiaren eta emaztearen bikote-oheko izara nahasien artean isuri hazia...

– Bueno, ez zuan Santa Engraziakoa bezalakoa izan, baina ondo egon zuan hala ere. Gustura geratu ninduan ni behintzat. Besterik ez zian merezi kabroi zikin horrek.

Lanean hasi zenetik lauzpabost bat aste baziren Xepe berriro kalera irten zenerako. Ekaineko

larunbat arratsalde batean izan zen. Mirari, Periskopio, Pipi eta Xingularrekin berriketan ari nintzen ni, Atraskuko barran, Xepe atetik sartzen ikusi nuenean.

– Hara zein dugun hemen! –esan nuen, harrituta, denak atzera begira jarriz–. Euskal langileriaren ordezkari sufritua!

– Kaixo, Xepe, aspaldiko! –agurtu zuen Mirarik, pozez eta adiskidetasunez–. Bizi al gara?

– Justu-justu, ez pentsa! –erantzun zuen Xepek, lagun guztiak berari begira izateak sortarazitako irribarre dardartia ezpain meheetatik egotzi nahi eta ezinean.

– Bueno, bueno, ez hadi orain negarrez hasi –zirikatu zuen Periskopiok, arratsaldeonen hizketa modua imitatuz–. Hiri gertatzen zaiana duk ondoegi ohituta hagoela, kolpe zorririk jo gabe bizitzen. Bahuen lana zer den ikasteko ordua. Horrek egingo hau gizon.

– Bai, bai, hik erraza daukak jarduna... Lana trukatuko diagu nahi baduk, Kopio... Hik ez huke bi ordu ere iraungo gure lantokian. Hire lana, berriz, gustura askorik hartuko nikek nik tailer nazkagarri horretakoaren ordez.

Laneko zein etxeko penak eta nekeak kontatu zizkigun arratsalde hartan Xepek. Nagusiaren txaletean egin zuenaz ez zuen ezer esan, noski. Hori egun batzuk geroago kontatu zidan niri, biok bakarrik geunden batean.

Hainbeste denbora lanetik etxera eta etxetik lanera pasatu ondoren, parrandarako gogo handia zuen Xepek egun hartan, eta guretzat ere parrandarako aitzakia ona zen Xepe aspaldiko partez gure artean izatea. Gau zoro samarra izan zen, bai, hura!

Barrako txanda amaitu nuenean, iluntzeko zortzi eta erdietan, Periskopioren aitaren autoan sartu eta Antzuolara jo genuen seiok, hango jaiak zirela eta. Autoak atzealde zabala zuenez, ederki sartu ziren Mirari, Xepe, Xingular eta Pipi atzeko eserlekuan; ni, berriz, Periskopioren ondoan eseri nintzen, kopiloto gisa. Bidaia girotzeko Zarama taldearen zinta jarri zuen autoko kasetean Periskopiok. Aurki itzaliko zuen, ordea, atzealdean sortutako eztabaida hobeto entzuteko.

– Egin al duzue azkenean gaztetxeko karguak aukeratzeko bilera eta botazioa? –izan zen

eztabaidari hasiera eman zion galdera. Xede txarrik gabekoa zirudien galdera hark, baina nik uste dut hasieratik zuela guri gureak eta asto zaharrarenak esateko gogoa Xepek. Laneko neke eta umiliazioek barruan utzitako amorrazioa kanporatzeko premia zuen, eta, jakina, aspaldiko partez baskakookin biltzea aukera aproposa zen horretarako.

– Ez al dakik oraindik ezer horretaz? –galdetu zion harrituta Xingularrek?

– Ez, motel! Egun hauetan ez nauk ezertaz enteratu.

– Hortaz, oraindik ez dakik zein izango den gaztetxeko presidentea? –bota zuen barrez Pipik.

– Ez badidazue zuek esaten...

– Hik zein uste duk aukeratu genuela?

– Ez al zuten EGIkoek irabazi?

– Ez, motel! Baskako jende mordoa izan gintuan eta irabazi egin genian –argitu zion Pipik–. Eta oraintxe bertan Presidente Jaunaren ondoan jesarrita hago.

– Xingu?!

– Gaizki iruditzen zaik ala? –galdetu zion irribarrez Xingularrek–. Ez al naiz ba presidente egokia hire ustez? Min ematen didak, Xepe.

– Ez zaudete burutik sano! –bota zuen, zakar, Xepek, ordura arteko txantxa giroa hautsiz. Orduantxe itzali zuen kaseta Periskopiok–. Absurdua duk!

– Baina hori dena tranpa hutsa duk, Xepe –argitu zuen berehala Pipik–, gaztetxea zabaltzea lortzeko trikimaina besterik ez. Aiuntamentuak bilera eta botazioa eskatu zian gaztetxea zabaltzeko eta orain lortu diagu gaztetxea zabaltzea. Datorren astean duk inaugurazioa. Xingu izenez besterik ez duk izango presidente. Asanblea izango duk benetan erabakiak hartuko dituena. Geure erara antolatzeko aukera izango diagu. Bestela ez genikek inola ere onartuko gaztetxea.

– Bai, bai, entzuna zaukaat ipuin hori lehen ere, Pipi. Ez daukak berriro kontatu beharrik. Baina ba al dakik zer iruditzen zaidan niri hori dena? Inondik inora ere ezin irents daitekeen kaka mokordo nazkagarria, horixe! Gaztetxearen alde kalean borrokatu beharrean, Aiuntamentukoekin hitz egin, presidentea izendatu eta

herriko intelektualilloentzako pelikulak bota, non eta Floreagan... Ba al dakizue zer esaten dizuedan? Gaztetxearen mobida bukatuta dagoela, hilda eta lurperatua... Ez dik ezertarako balio.

– Oso erraza duk hori esatea –azaldu zion Xingularrek–. Baina egin duguna egin badugu beste biderik ikusten ez genuelako izan duk.

– Lehen ikusten genitian ba beste bide batzuk.

– Zer bide? –galdetu zion Pipik Xeperi.

– Zer bide? Ahaztu al zaik ja musika bandari egindako sabotajea? Eta alkatearen monigotea nola zintzilikatu genuen gruatik behera? Edota alkatearen etxean egin genituen pintadak? Eta karreterako barrikadak?... Mila bide zaudek beti puteatzen hauenari kaña sartzeko.

– Baina ondo pentsatu behar dituk momentu bakoitzean eman beharreko pausoak –argudiatu zuen Xingularrek, ozen mintzatuz, ia-ia oihuka, ohi baino haserre eta minduago–. Eta beste gauza bat esango diat, Xepe: egin dugunarekin ados ez bahago eta bide egokiagorik ikusten baduk, badakik zer egin behar duan, ezta? Etorri asanbleara eta planteatu hire ideiak. Oso erraza

eta oso komodoa duk besteek egiten dutena kritikatzea. Norberak zeozer egitea, hori duk benetan zaila eta benetan balio duena.

– Egiten duen hori kaka mokordoa ez denean, esan nahiko duk.

– Hiri hala iruditzen bazaik, hala izango duk hiretzat... –etsi zuen Xingularrek, lasaiago ordurako, bere argudioak garbi utzi eta gero.

Gure artean esaten dugun moduan esateko, guztiz *destroy* zegoen gau hartan Xepe. *Destroy Total*. Antzuolara heldu ginenean ez zegoen hura errenditzerik. Gehiegi edan eta erre gabe ere, zoroarena egiteari ekin zion berehala: kalearen erdian, ibiltzeari utzi gabe, pixa egin zuen, udaltzain zahar samar bati buru gainetik txapela kendu eta airera bota, kale erditik pasatzen ari zen auto baten gainera jauzi egin, kale ertzean aparkatutako autoetara igo eta batetik bestera jauzi batean pasatu...

– Antijosen dizipulua nauk –egin zuen oihu auto artean jauzika ari zen bitartean–. Iraultza totalaren apostolua. Egin dezagun reboluzioa,

neba-arrebok. Iraultza perfektua, akatsik gabekoa. Egin dezagun borroka gogor, garaipenaren egun eder eta handia heldu arte...

Manifestazio bateko leloa kantatzen ariko balitz bezala hasi zen gero.

– Jo ta ke, irabazi arte! Jo ta ke, irabazi arte!...

Bere zorakerietan lagun niezaion nahi izan zuen orduan.

– Niko! –deitu zidan–. Hator hi ere auto gainera. Bion artean egingo diagu reboluzio perfektua. Banian hi Atraskuko mostradoretik kanpora ikusteko gogoa...

Horixe bera pentsatu nuen neuk ere. Banekien, bai, Xingular, Pipi, Mirari eta Periskopiori ez zitzaiela oso dibertigarria iruditzen Xeperen gau hartako jokabidea, baina niri oso tentagarria iruditzen zitzaidan Xeperen proposamen eroa. Arrazoi zuen lehengusuak. Nik ere banuen zorakeriak egiteko grina, Atraskuko tabernari enroilatu eta legala izateaz gain beste zerbait egiteko premia, nahiz eta zerbait hori zer zen oso garbi ez izan. Elbarria gurpil-aulkiarenetik bezala, nik ere Atraskuko barraren loturatik askatu nahi nuen. Xepek niregana luzatutako eskua hartu

eta autoaren gainera igo nintzen ni ere, barre urduria ezpainetan, txoke-auto batean lehen aldiz esertzen den haurraren antzera. Adiskideak gure ondoan ziren artean ere, eta, gogoa banuen arren, ez nintzen Xeperekin batera oihu egiten ausartu. Hark berean jarraitu zuen, dena den.

– Jo ta ke irabazi arte! Jo ta ke irabazi arte!...

Halako batean bi udaltzain ikusi genituen guregana lasterka bizian. Xepek txapela kendu ziona zen bietako bat; bestea, guregana arinen zetorrena, gazteago eta bulartsuagoa zen, sasoi onekoa. Auto gainetik jaitsi eta aldameneko kaleska estu batean sartu ginen Xepe eta biok korrika, neu aurrena eta hura nire atzetik. Zorionez, garai hartan ez ziren artean ere atezain automatikoak egoten herrietako etxeetan eta bebarru batean gorde ginen.

Arriskua pasatu zenean bebarrutik irten eta enparantza aldera jo genuen, berriro ere jende artean nahastera. Bakarrik geratu ginen Xepe eta biok. Ez genituen gau osoan gehiago ikusi adiskideak. Egia esanda, ez ginen asko ahalegindu haien bila. Zoroarena egiteko gogorik gabe utzi ninduen ni udaltzainek emandako ikaraldiak,

baina Xepe ez zegoen geldirik egoteko. Bere baitan ezin kabituta zegoen.

Xeperentzat beti-beti bereziki higuingarri izan den Egan plaza talde azpeitiarra ari zen jotzen gau hartan Antzuolako enparantza nagusian. Gurasoen arratsaldeonkeria eta gazteriarik zintzo, aspergarri eta inozoenaren horterismoa armonia okaztagarrian batzen zituen giro jasanezin eta zapaltzailea zuten guretzat, baskako guztiontzat, berbenek, plazetako dantzaldiek. Higuingarriak iruditzen zitzaizkigun plaza talde guztiak, eta Egan zen, dudarik gabe, higuingarrietan higuingarriena, melengakeria gorrotagarri haren guztiaren ordezkaririk zuriena. Xepek plaza talde guztiei, eta Egani bereziki, zien herra apartekoa zen ordea. Berbenetako oroitzapenez ere mintzatu zitzaidan behin Atraskuan, eta giro hartan beti baztertu eta gutxietsia sentitu zela azaldu zidan: neskek ez zuten Xeperekin dantza egin nahi izaten eta, horrenbestez, mutilek ez zuten egundo Xepe neskei dantza eskatzera joateko lagun egokitzat izan. Ez zen harritzekoa, horrenbestez, bolada hartan zein petralduta zebilen eta bereziki gau hartan nolako aztoramen

mailetara heldua zen kontuan harturik, Xepek Antzuolan Eganekoei eraso egiteko burutazioa izatea. Mendekurako grina piztu zion Egan hantxe aurrez aurre ikusteak.

Taberna batean sartu, garagardo bana eskatu, edalontzirik gabe, botilan, eta, hura eskuan genuela, tabernatik irten eta enparantzara jo genuen.

– Zer nahi duk? Eganekin dantza egin ala? –galdetu nion nik, enparantza aldera gindoazela konturatuta.

– Hi etorri hadi nirekin, Primo. Ikusiko duk.

– Ez nauk hirekin fidatzen, Xepe. Zeozer arraroa dabilkik hik bueltaka buruan.

– Lasai, motel! Ez duk ezer gertatuko. Eganen kanta batzuk entzuteak ez ziok inori kalte egiten.

– Harritzen naik hiri hori entzuteak.

Pixka batean bake-bakean eta geldi-geldirik egon ginen biok Eganekoei begira, elkarrekin loturik dantzan ari ziren bikoteen artean nahastuta. Beti handiegia geratzen zitzaiola iruditzen zitzaidan masta biko bere gitarra igurtziz, pastela baino gozoagoko kanta melenga ari zen kanta-

tzen Xabier Saldias, mugarik gabeko horterismoaren adierazpen gorena.

– Goazen hemendik taberna batera –esan nion Xeperi–. Hau mezatara joatea baino aspergarriagoa duk.

Ez zidan kasurik egin. Taldeari begira-begira jarraitu zuen. Beldurtu egin nintzen. Xeperen abentura zoroen berri izateak halako poz ganberro eta bihurria sentiarazi ohi zidan beti barrenean, baina gisa hartako une batean haren ondoan egotea beste kontu bat zen, oso-oso bestelakoa.

Halako batean esku artean zuen garagardo botila trago azkar batean hustu eta Saldiasengana jaurti zuen Xepek indarrez. Ez zuen asmatu. Kantariaren ezkerraldetik pasatu eta, oholtza gainean errebotatu ondoren, bateriaren ondora joan zen botila, baina ezusteko sustoarekin kanta eten egin behar izan zuten Eganekoek. Ez zien grazia handirik egin txantxa gaizto hark.

– Mesedez, hemen denok pasatu behar dugu ondo –esan zuen serio-serio mikrofonotik Saldiasek, masta biko gitarraren uhala askatu gabe–.

Horretarako gaude hemen, eta ea ondo konpontzen garen denon artean.

Ez zekien, ordea, nork bota zion botila. Pentsatzekoa da beharbada gure inguruko zenbaitek ikusiko zutela Xepe botila jaurtitzen, baina kontua da ez zigula behintzat inork ezer esan. Xepek hantxe jarraitu zuen, geldi-geldirik oholtza aldera begira, ezer gertatu ez balitz bezala. Lehengo kanta melenga berari berrekin zioten Eganekoek eta inguruko bikoteak dantzari lotu zitzaizkion berriro.

– Goazen hemendik, Xepe, goazen –esan nion, pixka bat lasaiturik, lehengusuari–, hemen ez diagu gauza onik egingo eta.

– Ez, ez –erantzun zidan irribarrez–. Orain hik, Niko, orain hire txanda duk.

– Hi burutik eginda hago, Xepe. Oso peligrosoa duk. Egurtu egingo gaitiztek.

– Benga, Niko –eutsi zion bereari, temati–, ez zagok inor begira eta.

– Ezetz ba...

Horretan ari ginela, niri bat-batean eskuetatik botila kendu eta hura ere Saldiasengana jaurti zuen Xepek, geratzen zitzaidan garagardo

hondarra hustu ere egin gabe. Masta biko gitarraren erdian jo zuen bete-betean botilak, Saldiasen esku geldotik oso gertu, eta berriro ere kanta melenga eten egin behar izan zuten musikariek, oso umore txarrez.

Orduan baserritar itxurako lau morrosko guregana hurbiltzen ari zirela erreparatu nuen, jende artean bultzaka, bizi-bizi eta haserre aurpegiz. Ez zegoen dudarik, ospa egin behar genuen handik lehenbailehen. Ezin ordea. Besotik heldu eta gaztigua eman nion berehala Xeperi, baina hark, nahiz eta morroskoak gureganatzen ikusi, ez zuen mugitzeko keinurik txikiena ere egin. Ez zuen beldurrik, edozertarako prest zegoen. Ni, aldiz, ikaratuta, dardar batean.

Ez dakit zergatik, gutaz gupidatu egin zirelako beharbada, edo ezustean harrapatu zituen gure jarrera pasiboak sortutako perplexidadeari esker akaso, baina ez gintuzten han bertan jipoitu behintzat. Bestela ez genuen figura ederra izango lau morrosko haien kolpeak jaso ondoren. Besterik gabe, ihes egin ez genezan, haietako bik gure beso meheak oratu zituzten beren esku sendo eta zailduekin.

– Eta orain zer, mekaguen Dios? –oihukatu zion Xeperi besoetatik eutsita zuen morroskoak–. Bukatu al zaizkik botilak? Ikusiko duk, txikito!, ikusiko duk! Zer uste huen, adarra joko higula? Ba damutuko zaik, bai, tontoarena egin izana, ondo damutuko zaianez, bai horixe!

– Geldirik denok! Zer gertatu da hemen? –entzun genuen orduan agintea adierazten zuen ahots baten oihua.

Ahots hura zetorren tokira begiratu eta arestian gure atzetik ibilitako udaltzain gazte sasoikoa ezagutu nuen. Atzeraxeago, udaltzain zaharra zegoen, Xepek txapela kasko gainetik kendu eta airera nola botatzen zion ikusi behar izan zuen berbera.

Gu esposatu eta Bergarako komisariako ertzainei entregatu gintuzten, zintzo-zintzo, Antzuolako udaltzainek, eta artean berri samarra zen komisaria hartako ziega ilun banatan pasatu genuen gaua, ohiko mortadela otartekoa jan ondoren. Tratua ez zen oso ona izan, baina jo ere ez gintuzten egin behintzat, eta ez da gutxi hori, Ertzaintzaren komisarietatik pasatutako baskako jende asko gogotik jipoitu baitute ertzainek. Nik

badakit baskako jendearen berri, uste dut igartzen diodala noiz ari zaidan bat egia esaten eta noiz gezurretan, eta entzun ditudan lekukotasun ugarietatik ateratzen dudan ondorioa da behin ertzainek atxilotu eta komisariara eramanez gero gutxien-gutxienez kolpe batzuk eta mila eratako irain umiliagarriak jasotzeko arriskua handia dela gu bezalako porreroentzat, eta areago tartean politika konturik baldin bada. Gure kasuan ez zuten alderdi horretatik inolako susmorik hartu eta horrek salbatu gintuen beharbada.

Igande goizean aske utzi gintuztenean, Xeperen aita joan zen autoan gure bila. Gogoan ditut gu ikusi bezain laster barru-barrutik atera zitzaizkion aurreneko hitzak.

– Ez al zarete lotsatzen? Mekaguen La India! Jo ta garbitu egingo zintuzketet!

Lankide batek eraman eta ekarri ohi zuen Xepe egunero Azkoititik Azpeitira eta Azpeititik Azkoitira autoan. Lankide hark Azpeitikoa zuen, ordea, andregaia, eta batzuetan, lankidea Azpeitian ge-

ratzen zenez, auto-stop eginez egin behar izaten zuen Xepek iluntzean itzulbidea. Txus eta Kantxak ekarri zuten behin Xepe Azkoitira, kolorea galdutako Dyane 6 zaharkitu batean.

– Seguru al gaude katxarro zahar honen barruan? –galdetu zuen Xepek autoan sartu eta atzealdean nolanahi utzitako arropak baztertu eta eseritzen zen bitartean.

– Kopioren zaharraren bugan baino askoz ere seguruago gaudek hemen, Xepe –esan zion bolantea askatu gabe burua atzerantz jiratuz Txusek–. Azeleradorea beheraino zapaldu eta zuzenzuzen pareta bat jota ere, bizirik aterako gintuan hemendik.

– Baina Azkoitiraino eramago gaitik behintzat, ezta?

– Problemarik gabe. Guk Elgoibarreraino joateko asmoa zaukaagu. Ez al duk gurekin etorri nahi?

– Elgoibarrera? Zertara?

– Materiala pasatzen digun batekin egotekoak gaituk han, eta gero Eibar aldera zeozer hartzera. Giro ona egoten duk hango tabernetan, eta oso jende legala. Ez al haiz animatzen?

– Zuetakoren bat joango balitz lanera nire partez bihar goizean...

– Lana material txungoa duk, Xepe. Guri ez eskaini horrelakorik.

– Material txungoa? Ederra definizioa! Horixe bera esango zioat zaharrari, ea zer irizten dion.

– Hi, eta beste kontu bat: zer moduz gaztetxe berriarekin? Aste honetan izango omen duk inaugurazioa, ezta?

– Hala ematen dik, bai.

– Ez al habil ba hi horretan sartuta?

– Lanean hasi nintzenetik oso-oso gutxi irteten diat kalera eta, gainera, ez zaidak gustatzen azken aldi honetako mobida. Baina... –pentsakor– oraintxe bertan ari zaidak okurritzen inauguraziorako ideia bat. Bai, bai..., akaso nik ere preparatuko diat zeozer inauguraziorako. Hiri gustatzeko modukoa izango dela uste diat gainera, Txus.

Arin egiten da autoan Azpeititik Azkoitirainoko bidea. Xepe ohartu orduko helduak ziren.

– Ez al hator gurekin hortaz?

– Ez. Gustura joango ninduan, benetan, baina bihar ere material txungoa sartu beharko diat zainetatik.

– Argi ibili, oso kaltegarria duk eta! Horrek bai izorratzen duela benetan odola!

Ez zuen aise hartu loak Xepe gau hartan. Txusek proposatutako Elgoibar eta Eibar alderako bidaia hura paradisu ezezagun baterako eskaintza izan zela iruditzen zitzaion, eta proposamen hari ezezkoa ematean urruti ederretara eraman lezakeen trena galdu zuela.

– Bazakiat hau esatea oso gogorra dela baina inbidia ematen zidatek batzuetan bakailaotarrek, Niko –aitortu zidan biharamunean Atraskuan, honetaz eta hartaz mintzatzen ari ginela–. Benetan. Horiek bazakitek behintzat zer nahi duten, bazakitek zer egin, nola jokatu, eta gaizki pasatzea tokatzen zaienean ba gaizki pasatzen ditek eta kito. Baina sikiera nahi izan dutena egiteko askatasuna izan ditek, aurrera jo ditek, eta horrek asko balio dik, hori la hostia duk.

Apez edo tabernari on gisa, saiatu nintzen Xeperi bere argudioen ahulezia erakusten, Elgoibar eta Eibar alderako bidaia hura destripatu eta

desmitifikatzen, junkieen bizimoduaren alderdirik ilunenak gogorarazten, baina ez zen batere erraza lilura hura Xeperen burutik kentzea.

Nolanahi ere, harritu eta poztu egin ninduen solasaldi berean Xepek gaztetxearekin nolabaiteko lotura izaten jarraitzen zuela konturatzeak.

– Zapatu gauean libre al hago gaztetxearen inaugurazioko kontzertua ikusteko? –galdetu zidan.

– Bai. Paulori aldatu zioat txanda. Aspaldian ez ditiat Jotakiekoak ikusi eta bazaukaat gogoa.

– Ba garaiz azaldu hadi, espektakulu ederra izango duk-eta kontzertua baino lehen. Gustatuko zaik.

– Kontzertua baino lehen? Zer esaten ari haiz? Kartelean ez dik ezer jartzen, eta Xingu eta hauek ere ez zidatek ezer esan.

– Beraiek ere ez zakitek oraindik eta... Teatro txiki bat egiteko asmoa zaukaat...

– Teatroa? –galdetu nion, harrituta.

– Akordatzen al haiz Txusek gaztetxean egin zuen *play back* harekin?

– Juleni batere gustatu ez zitzaiona?

– Bai, huraxe. Ba atzo Txusekin berriketan ari nintzela mobida harekin akordatu ninduan eta antzeko zeozer egitea pentsatu diat. Antzekoa baina beste era batera. Oraindik ez zakiat neuk ere oso ondo zer egingo dudan, baina okurrituko zaidak zeozer, eta bestela hantxe bertan irteten zaidana egin eta kito.

– Nahi al duk guk behetik txistua botatzea?

– Ba ez zagok gaizki pentsatuta, ez. Nahi baduzue... Indarra emango ziok horrek espektakuluari. Bost edo hamar minutuko teatro motza izango duk, baina nik uste diat mereziko duela.

– Bai, bai, seguru. Ni behintzat ikusteko amorratzen nagok –erantzun nion, ideiarekin ilusionaturik.

– Mesede bat egin behar didak.

– Heuk esan.

– Traste batzuk behar ditiat teatroa egiteko, ez dituk gauza asko ere, eta inporta ez bazaik zapatura bitartean trasteak zuen atzeko almazenean gorde nahi nitizkek.

– Ez zagok problemarik, Primo.

– Beste kontu bat, Niko –esan zidan, doinua aldaturik, modu intimoagoan hitz eginez, herabe antzean.

– Bota.

– Ba al dakik ezer berririk Itsasori buruz?

– Berririk? Ez, gauza handirik ez.

– Baina ikusiko huen, ezta? Izango huen noizbait hemen.

– Oso gutxi, egia esanda. Nik uste diat kanpora irteteko joera handia duela neska horrek.

– Mandiopekoa eta gero ez diat ikusi –aitortu zidan burumakur–, eta oraindik ere hura ikusteko beldur nauk. Bazakiat umekeria dela beldur hori, baina... Neura hori zaukaat buruan sartuta eta alferrik duk horri kontra egitea.

– Xepe, ez daukak erremediorik –esan nion txantxetan–. Erromantiko hutsa haiz! Aldrebes samarra baina erromantiko hutsa azken batean.

Gaztetxe berriaren atarian egin genuen inaugurazioko ospakizuna, hau da, herriko enparantza nagusian. Alegiako gazte batzuei alokatutako bideo pantaila handia ezarri Goiko Losa pilo-

talekuaren aurrean eta Monty Python zinemagile taldearen *La vida de Brian* eman genuen lehenik. Ondoren, hantxe bertan, ondo-ondoan ezarritako oholtza gainean, Jotakie eta Os Galiardos taldeen emanaldia zegoen iragarrita. Baina emanaldiaren aurretik azken orduan prestatutako ezusteko txiki bat genuen publikoari eskaintzeko: antzerki emanaldi labur eta bitxia.

La vida de Brian amaitu zenerako, antzerki emanaldi laburrarentzako eszenatokia prestatuta zegoen, ondoren egitekoa zen musika emanaldiarentzat atondutako oholtza berean. Eszenategiaren erdialdean, musika emanaldirako prestaturiko bateria, anplifikadore eta abarren aurrean, teleaparailu zahar bat zegoen, bata bestearen gainean ezarritako hiru tabutere idulki gisa zituela, metro eta erdi inguruko alturan kokatua. Goiko Losa aurreko bideo pantaila erraldoia itzali orduko, fokoek oholtza argiztatu zuten eta erdian kokatutako teleaparailu hura piztu egin zen. Arraia nahasiak baino ez ziren ageri pantailan. Xingular igo zen orduan oholtza gainera, kontzertuaren atariko antzerki emanalditxoa aurkeztera.

– Orain, nahiz eta programan horrelakorik ez zen esaten, Jotakie eta Os Galiardos taldeen kontzertuaren aurretik teatro emanaldi txiki bat ikusiko dugu. Ez dakigu zein den aktorearen izen artistikoa, ezta obrak zer titulu duen ere. Bost edo hamar minutu irauten duela eta tarte horretan La Polla Recordsen musika entzuten dela, horixe da dakigun dena.

Xingularren aurkezpen laburraren ondoren, La Polla Recordsen *Venganza* kantaren lehen akordeak entzun ziren bozgorailuetatik eta Xepe agertu zen fokoen argipean, oholtzaren atzealdetik aurrealdera eginez. Ia-ia biluzik zegoen, galtzontzilo hutsetan, eta gorputz guztia grasa beltzez zikindua zuen. Harrituta, Mirari, Periskopio eta ni biba eta txaloka hasi ginen; Jotakieren zain bide zeuden *fan* berantetsi batzuek, aitzitik, txistua jo zioten. Konkorduna balitz bezala, okeroker eginda zuen bizkarra, eta ibiltzean herren egiten zuen trakets, gurpilak hautsita zituen eta bete-bete eginda zegoela antzematen zen erosketa-gurdi zaharkitu batetik neke handiz tiraka. Evaristoren ahotsa entzun genuen bozgorailuetatik Xepe oholtzaren alde batetik bestera gisa

horretan zebilen bitartean: *«Voy arrastrando mi decepción, de un escenario a otro escenario. Voy arrastrándome sin nada que decir... Vamos arrastrando nuestra ruina. Estamos demostrando que nada nos motiva...»*

Mirari, Periskopio eta hirurok ginen Xeperen antzezpenari begira geratu ginen baskako bakarrak. Xingularrek gaztetxera jo zuen aurkezpena egin ondoren, barran lanean ari ziren Antijos eta Estherri laguntzera; Urrategi eta Pipi bideo pantaila handia ekarri zuten alegiarrei trasteak jaso eta furgonetara eramaten laguntzen ari ziren; Presto, berriz, Jotakie eta Os Galiardosekoekin afaltzera joana zen... Antolakuntza lan handia eskatu zuen inaugurazio jaialdi hark, eta nork bere zeregina zuen. Haren adiskide gutxik hartu genuen aintzat Xeperen emanaldia. Gainerakoan ere, oro har, oso jende gutxi zegoen antzezpenari begira. Jotakie eta Os Galiardosen emanaldia noiz hasiko zain zeuden han gehienak, porroak erretzen, garagardoak edaten eta berriketan.

Nahiz eta oholtza gainetik ikusten zuen panorama ez izan aktore bakartiari adorea emateko

egokiena, bereari eutsi zion hala ere, tinko, Xepek. Gurdi astuna herrestan eramanez, ibilera herren, neketsu, trakets, mantso eta mingarri harekin oholtzaren alde batetik bestera ibili zen tarte batez, minutu bat edo, eszenatokiaren erdian kokatutako teleaparailuaren aurrealdetik beti, harik eta, nekeak zutik irautea eragotziko balio bezala, oholtza gainera erori zen arte. Orduan oholtza gainean narrazean ibili zen pixka batean, baina gero, kostata, sekulako ahalegina egin eta ikaragarrizko oinazea sentituko balu bezala, nola edo hala jaikitzea lortu zuen, gurditxoa zoru gainean utzita. Teleaparailurantz jo zuen, bizkarra oker, herrenka, neke eta oinaze handiz eginez aurrera. Tabureteen atzealdera heldu eta bultzada batez eraitsi zituen aurrean zituen denak, hiru tabureteak eta teleaparatu zaharra. Kolpe lehor batean lehertu zen teleaparatua eszenategiko zoruaren kontra.

Ordurako baziren zenbait urte La Fura dels Baus sortu zela, eta lehenago Japonian egin omen zen gisa horretako antzerkia, are gogorragoa, are benetakoagoa. Baina gutako inork ez zuen artean horrelako ezer ezagutzen. Guretzat

berria zen hura. Xepek, guretzat behintzat, aurrea hartu zion antzeztalde katalanari, beste musika batekin jokatu arren eite berekoa baitzen haren antzezpena.

Ahalegin ikaragarria antzeztuz, ezinean, gurditxoa zegoen tokira heldu eta gurditxoa zorutik jasotzea lortu zuen, kostata, eta, beste pixka batez, beti bezain oker, herren eta trakets, gurditxotik tiraka ibili ondoren, gelditu eta gurditxoaren barrutik trasteak ateratzeari ekin zion. Gezurra zirudien gurditxo haren barrutik hainbeste traste zahar atera zitekeenik: garbigailu baten motoreko piezak, bizikletako gurpil eta eskuleku herdoilduak, hautsitako aterkia, josteko makina zahar hondatua, motozerra... Motozerra gurditxotik ateratzen ari zelarik, Txus, Kantxa eta Sanson ikusi zituen oholtzara gerturatzen, eta haien atzetik neska-mutil bikote bat, elkarri gerritik helduta eta musuka: Leon eta Itsaso ziren!

Eskuetatik ihes egin eta oholtza gainera erori zitzaion motozerra Xeperi. Bihotz-bihotzean tiroa eman baliote bezala, eskuak bular aldera eraman eta, herrenka orduan ere, oholtza gainean alderoka ibili zen aurrerantz, eta gero oholtzaren

aurrealdeko muturrean erori ahuspez, hilotz balitz bezala. Fokoen argiak itzali zituzten orduan. Antzezpen laburra amaitua zen.

–XIV–

– Gaztetxea lortu diagu azkenean, baina horrek ez dik esan nahi borrokan segitzeko motiborik ez daukagunik –ohartarazi zuen Xingularrek hurrengo asteartean, gaztetxe berrian egin genuen lehendabiziko asanbladan–. Seguru nagok gure aktibidadeentzat dirua eman beharrean gure kontra egingo dituela ahaleginak inondik ahal badu Aiuntamentuak. Hori beti izan duk horrela eta nik ez diat sinisten hori gaztetxe berri honekin aldatuko denik.

Ez ninduen harritu Xepe asanblada hartan ez ikusteak. Gainerakoan gehientsuenok geunden: Antijos, Xingular, Esther, Pipi, Urrategi, Presto, Periskopio, Mirari...

– Dena dela, nik uste diat garbi izan behar dugula gure borroka bakarra ez dela gaztetxea bera –zehaztu zuen Antijosek–. Gaztetxea ez duk helburua. Gure ideiak, gure mobidak eta sistemaren kontrako gure borroka aurrera eramateko bitarteko hutsa izan behar dik gaztetxeak. Nik behintzat oso garbi zaukaat hori. Gustuko musi-

ka entzun, porroak erre eta zerbeza edateko leku bat baino gehiago ez baldin bada, frakasoa izango duk gaztetxea.

– Ni ere sistema honen aurka nagok, eta borrokatzea beharrezkoa ikusten diat –azaldu zuen bere ikuspuntua Estherrek–. Baina iruditzen zaidak askotan gehiegi fijatzen garela kanpora begira egiten den borrokan, gure artean sistemak inposatutako eskemak itsu-itsuan erreproduzitzen ari garela konturatzeke, neska eta mutilen arteko harremanetan, hitz egiteko moduan eta beste kontu askotan. Gaztetxeak jokabide berrientzako espazio librea izan behar dik, gure arteko harremanak modu naturalagoan lantzeko tokia. Horretan ez badugu ezer aurreratzen, alferrik ari gaituk sistemaren kontrako borrokan, gure mundua azken batean gure gurasoena bezalakoa izango duk eta. Niri behintzat ez zaidak iruditzen orain artean horretan asko aurreratu dugunik.

– Zer esan nahi dun? –galdetu zion Prestok, jarduna eten gabe, begirunez–. Potroak gora eta potroak behera ibili beharrean beste era batera hitz egin beharko genukeela, esate baterako?

– Ez duk hori bakarrik, Presto –argitu zion Urrategik–. Hori ondorioa besterik ez duk, gure arteko harremanetan dauden akatsen ondorioa. Zuek igual ez zarete konturatu, baina asanblean ez duzue neska batek esandakoa mutil batek esandakoa bezala hartzen. Asanbleako emakumeok askotan hitz egin diagu horretaz geure artean eta ados gaudek denok: guk esandakoak zuek esandakoak baino askoz ere pisu txikiagoa zaukak asanblean. Hori hala duk.

– Nik horretan arrazoia ematen dinat, Urra –mintzatu zen orduan Mirari–. Baina problema jeneralagoa dun. Ez dun neska eta mutilen arteko harremanen kontua bakarrik. Gaztetxean juntatzen gaitun, elkarren ondoan borrokatzen dinagu, Aintamentuaren kontra, Ejerzitoaren kontra, sistemaren kontra, presoen alde, nahi dunan guztia, baina ez dinagu elkar ezagutzen, ez zaukanagu elkarren berri, ez zaigun batere inporta aldamenekoak zer problema dituen. Eta, Estherrek esan duen bezala, sistemaren kontra borrokatzea alfer-alferrik dun gu geu ez bagara barrutik aldatzen.

Asko ikasi genuen, mutilok batik-bat, asanblada hartan, eta baita gisa bereko mintzagaiak izan zituzten beste bilera askotan ere. Teoria asko ikasi arren, ez zait iruditzen, ordea, praktikan aurrerakuntza handirik egin dugunik egundo, ez garai hartan eta ezta geroago ere.

– Ba al duk Xeperen berririk? –galdetu zidan asanblada ostean Mirarik, adiskideei buruzko kezkaz esandakoak praktika zuzenean jarriz.

– Ez. Azkena plazako eszenario gainean ikusi ninan, teatroa egiten. Hik ere ez al dun harrezkero ikusi?

– Ez, eta kezkatuta nagok. Ez diat uste oso gustura geratuko zenik bere teatroak izan zuen exitoarekin.

– Bueno, ez dinat uste berak inportantzia handirik emango dionik horri. Teatroarena azken orduan okurritutako ideia txoroa besterik ez zunan izan. Gainera, nik uste dinat eszenariorik eta publikorik gabe egiten duela ondoena teatroa Xepek, gurekin, lagun artean.

– Bai, igual arrazoia daukak. Baina Xepek ez dik asko behar izaten lur jota geratzeko... Ea ez zaigun berriz ere etxean itxita geratzen.

– Ez dinat uste. Azalduko dun.

Ez nengoen oso ziur ordea. Antzezpenaren porrotaz gain, Itsaso Leonekin musuka ikusi izana gainditu beharko zuen Xepek eta ez zitzaion erraza izango. Ezin nion horretaz ezer esan hala ere Mirariri. Apezek bezala, tabernariok ere aitorpenaren bidez dakiguna isilean gordetzen dakigu.

Barruan gorderik zituen nahigabeei aurre eginez, hurrengo ostiralean gurekin biltzeko animoa izan zuen Xepek. Ni Atraskuko barran lanean nintzen bitartean, ostiral eta larunbateroko tabernen zirkuituan bueltaka ibili zen Mirari, Periskopio, Urrategi, Xingular, Antijos, Esther, Pipi, Presto eta beste zenbait lagunekin. Azkenean, taberna guztiak ixteko orduan –garagardo litro mordoska edan eta dozena eta erdi bat porro erreta ordurako–, kanpoko atea giltzaz itxita, Atraskuan geratu ziren nirekin Xepe, Presto, Urrategi eta Pipi.

Zine-klubaz zuen iritzia azaldu zion, besteak beste, gau hartan Xepek Pipiri. Horretarako, hor-

man itsatsita zegoen kartela kolpe batez erauzi eta mostradore gainean ezarri zuen, berriketaldian ginen bost lagunon erdian.

– Ea, Pipi, esplikatu iezadak zer hostia den hau. *Más allá del bien y del mal*. Zuzendaria: Liliana Cavani. Azkoitiko Gaztetxeko Zine-Klub Taldea. O, zein polita! O, zein interesgarria! Gaztetxea ere kulturaren alde. Hau kaka zaharra duk, Pipi... Honek ez dik ezertarako balio.

Kartela paperezko pilota bihurtzeraino zimurtu eta zorura jaurti zuen. Inork ez zuen gaizki hartu Xeperen ateraldia. Barregarria iruditu zitzaigun guztioi, baita Pipiri ere.

– Ondo zagok, Xepe, ondo zagok... –erantzun zion irribarrez Xeperen erasoari–. Arrazoia daukak. Eta niri ondo iruditzen zaidak hik gauzak horrela ikustea. Baina bazagok gauzak beste modu batera ikusterik ere.

– Hori duk, oso ondo, Pipi, orain bota iezaguk hire esplikazio lehor horietako bat, benetan, entzun nahi diat zer esaten duan. Ziur nagok ez hanka eta ez buru ez duena justifikatzeko arrazoi ederrak asmatuko dituala, horretan aparta haiz eta.

– Ba saiatuko nauk, Xepe, saiatuko nauk –esan zuen Pipik irribarrez, eta gero burua makurtu zuen, pentsatzeko beta hartu nahirik bezala–. Hara –ekin zion hizketaldiari, burua altxatu eta serio jarriz–: literatura, zinema, pintura eta abar sistemaren kontra borrokatzeko modu bat izan daitezkek, hori garbi zagok. Hik nahi duana esango duk, Xepe, baina historian zehar hala izan duk. Benetako arteak ideia berriak landu eta ikusleari edo entzuleari bideratzen zizkiok, batzuetan hau konturatu ere egin gabe...

– Horiek lerdokeriak dituk, Pipi –moztu zuen Prestok Pipiren jarduna, Xeperekin bat eginez haren aurkako borroka dialektikoan–. Nik ez zakiat historian nola izan den, baina gaur egun eta hemen sistemari bost piper inporta zaizkiok literatura, zinema eta osterantzeko intelektualkeriak. Kaleko borroka duk putre koadrila hori benetan larritzen duen gauza bakarra.

Ezintasunezko keinu etsia egin zuen Pipik, esanez bezala alferrikakoa zela Xepe eta Prestorekin gai hartaz eztabaidatzea. Urrategik lagundu zion orduan.

– Gauzak ez dituk hain sinpleak, Presto. Nik uste diat badirela zapalkuntzak eta injustiziak salatzeko egindako liburuak eta pelikulak, eta horiei beldurra dietela agintariek, oso beldur handia gainera. Eta ez bakarrik historian zehar edo hemendik urruti. Baita gaur eta hemen bertan ere.

– Eta ez dun derrigorrezkoa salaketa zuzena izatea –berotu zen Pipi–. Surrealisten liburuak, koadroak, eskulturak eta pelikulak, esate baterako, ez zitunan mundu burgesaren aurkako salaketa zuzen eta garbiak, baina burgesak harritu eta eskandalizatu egiten zitiztenan, eta gizartearentzat zein pertsonarentzat ikuspegi berriak zabaldu... Horixe dun inportanteena, ikuspegi berriak zabaltzea, gauzak ez direla derrigorrez beti modu bakar batean ikusten konturaraztea... Eta horretarako balio behar diten liburuek, koadroek, eskulturek eta pelikulek. Eta horretarako balio behar din gure zine-klubak ere. Betiko pelikula sinple beti berdinak ikusi beharrean ikuspegi berriak izaten lagunduko diguten pelikulak ikusteko, gure ikusmirak zabaltzeko; azken batean gu libre eta aberatsago izateko.

– Oso ondo, Pipi, ederra benetan! –esan zion irribarrez Xepek–. Oso ondo hitz egiten duk. Zergatik ez duk gaztetxearen gainean nobela bat eskribitzen, jendeari zer jator eta zer guay garen erakusteko? Hik segi horrela eta urrutira ailegatuko haiz. Baina nirekin behintzat alferrik ari haiz. Ez didak sinistaraziko Diputazioaren subentzioa duen aktibidade batek agintariei min eman diezaiekeenik. Eta ba al dakik zer den okerrena? Ba gu geu ari garela gezur horiek sinisten, eta gaztetxeak soziedade gastronomikoen gero eta antz handiagoa duela.

– Bai, bai, arrazoi pixka bat bazaukak Xepek –berretsi zuen Prestok, barrez, Xepek esana–. Beti-Poz-ekoen gero eta antz handiagoa zaukaagu. Arratsaldeon bihurtuko gaituk denok azkenean, ibili-ibili eginda.

Biharamunean izan genuen, larunbat gauez, Xepek eta biok Atraskuko gure azken solasaldia. Nahiko triste sumatu nuen. Saiatu nintzen Itsasorekin hartutako kolpea leunduko zioten hitzak esaten, eta baita gaztetxea bizirik zegoela era-

kusten ere, Xingularren lehendakaritza eta zine-klubaren ekimen kultureta ez zirela gaztetxearen mobidak zentzurik ez zuela pentsarazteko motiboak. Baina Xepek ere bazekien hori guztia. Sakonagoa zen haren etsipena.

– Niri gertatzen zaidana duk ez dakidala zer egin nahi dudan. Benetan, Niko, zeozertan sinistuko banu gustura emango nikek bizitza horregatik. Baina ez diat sinisten, ez zakiat zeren alde egin, hori duk gogorrena. Azken batean, konturatzen haiz dena kaka zaharra dela, gaztetxea, kontzertuak, gure giroa, gure roiloak eta putetxeko madrea... Kaka zaharra gaituk, Niko, kaka zaharra, eta ez gaituk sekula beste ezer izango.

Ez genuen luzaz hitz egin. Zuzenean etxera joan eta lo egiten saiatuko zela esan zidan. Bidenabar zine-klubeko filmea gaztetxera eramateko eskatu nion. Bilbo edo Madrildik iristen ziren filmeak, eta gaztetxean gordetzen genituen normalean; gau hartan, ordea, Liliana Cavaniren *Más allá del bien y del mal* Atraskuan zegoen, eguerdian Prestok han utzia, La Guipuzcoana garraio konpainiatik jaso ondoren gaztetxea itxita aurkitu zuela-eta. Kartoizko maleta karratu doto-

re batean bildu ohi dira 16 milimetroko filmeetako pelikula-erroiloak eta oso itxura erakargarria izan ohi dute maletatxo horiek.

– Seguru al hago esku onetan laga duala? –galdetu zidan Xepek irribarrez, nik barra barrutik emandako maletatxoa hartzean.

– Zer egin behar duk ba horrekin? Errekara bota ala?

– Ez zakiat, baina oso maleta polita duk... Okurrituko zaidak zeozer bidean... Bestela, gaztetxean laga eta bakea.

Kezka pixka bat piztu zidaten Xeperen hitz haiek, baina berehala lasaitu nintzen. Lotsagabeegia izango zen horrelako egoera bat baliatzea zine-klubaren aurkako ganberrokeria bat egiteko. Ez zen bidezkoa izango. Traizio zikina izango zen. Gainera, gau hartan horrelako zerbait egiten hasteko abailduegia zegoela iruditu zitzaidan.

Seguru asko berak ere ez zuen maletarekin ezer egingo zuenik uste nirekin hitz egin zuenean. Seguru asko, berak esan zuen bezala, bidean ezer bururatu ez balitzaio pelikularen maleta gaztetxean utzi eta etxera joango zen.

Baina, nahiz eta Atraskutik gaztetxera ehun metro baino askoz gehiago ez egon, aski izan zuen Xepek tartetxo hura burutazio xelebre bat izateko. Eta behin gisa hartako burutazioa izanez gero ez zegoen hura geldiaraziko zuen amaren seme-alabarik.

Udaletxe atarian, Udaltzaingoaren bulegoaren parean, Udaltzaingoaren 4L auto txuri-urdina ikusi ez balu, ez zuen burutazio hura izango Xepek, zuzen-zuzen jarraituko zion bere bideari. Baina, patuak berariaz jarri balu bezala, hantxe eta orduantxe suertatu zen autoa, eta ez nolanahi gainera: hutsik eta txoferraren aldeko atea gaizki itxita zuela, edonor sartzeko moduan. Gaztetxeko leihotik kanpora begira zegoen une hartan Lu, eta huraxe izan zen, geroragoan kontatuko zigunez, Xepe, inguruetara pixka bat begiratu ondoren, auto barruan sartu, pelikularen maletatxoa alboko aulkian utzi eta autoa martxan jartzen ikusi zuen bakarra. Azkar eta isilik egin zuen dena eta Udaltzaingoaren bulegoan zeuden udaltzainak ez ziren ezertaz ohartu. Kalera irten eta autoa falta zela jabetu zirenerako bost bat minutu pasatu ziren gutxienez.

Euria ari zuen, eta euripean kuzkurtuta sentitzen da bat 4L baten barruan. Halaxe sentituko zen Xepe gau hartan, baina bide luzea egin zuen hala ere errepidean. Harrituko zen beharbada bat baino gehiago ateetan *«Azkotiko Udaltzaingoa»* errotulua zuen autoa Azkoititik hain urrun ikusita, baina inork ez zuen Xepe geldiarazi.

Periskopioren aitaren kamionetarekin egindako bidaia amaitzeko Finisterre aukeratu zuen bezala, Azkoitiko Udaltzaingoaren autoarekin egindakoari ere ez zion nolanahiko amaiera eman nahi izan Xepek. Goizean goiz jaiki eta berebiziko ikaraldia hartu zuten Arantzazuko fraile batzuek basilikako sarrera nagusian –Jorge Oteizaren hamalau apostolu ospetsuen azpian, Eduardo Txillidaren burdinazko lau ate sendoen aurrean– 4L txuri-urdin harekin topo egitean. Ez zen inor ikusten autoaren barruan baina goiko kapotan maletatxo karratu susmagarria zegoen, aise ikusteko moduan, nabarmen, zutunik jarria.

Berehala ziren han Oñatiko udaltzainak, Oñatiko koarteleko guardia zibilak, Bergarako komisariako ertzainak, DYAkoak, argazkilariak, kamerariak, begiluzeak... Sekulakoa! Eta Xepe ere

hantxe zen, jende artean galduta, Guardia Zibileko artifizieroek robot txiki batekin maletatxoa nola aztertzen zuten adi-adi begira. Bazekien ez zutela han zeuden polizia haiek guztiek, artean Arantzazura heldu gabe zeuden Azkoitiko udaltzainen laguntzaz, denbora asko behar izango Azkoitiko Udaltzaingoaren autoak Arantzazun egindako agerpen miragarri eta misteriotsu haren nondik-norakoak argitzeko, baina hala ere lasai-lasai geratu zen han, sortu zuen iskanbila nahasi hartaz harro seguru asko. Robotaren bidez, leherketa txiki bat egin behar izan zuten azkenean artifizieroek maletatxoan lehergailurik ez zegoela egiaztatzeko.

Luk baskakooi baino ez zigun kontatu gaztetxeko leihotik ikusitakoaren berri, baina Arantzazura heldu eta Xepe han ikusi zuenean Roberto sarjentuak ez zuen zalantza handirik izan auto lapurreta bitxi haren egilea nor izan ote zitekeen. Ikusi orduko jo zuen korrika Xeperengana.

– Hi izan haiz, gizarajo hostia hori, hi izan haiz –egin zion oihu besotik heltzen zion bitartean–.

Alferrik esango duk ezetz. Ezagutzen haut, Larrañaga, ezagutzen haut.

Xepek inolako larritasunik eta damurik gabe aitortu zuen egia osoa. Arantzazun bertan atxilotu zuten ertzainek, Robertoren eskutik.

Gaztetxearentzat kolpe gogorra izan zen, jakina, Xeperen barrabaskeria hura. Jakinekoa zen Xepe gaztetxeko mobidakoa zela, Azkoitiko Gazteen Asanbladako kide, eta, gainera, gaztetxeak alokatutako 16 milimetroko pelikula zen, azken batean, auto gainean agertu zen maletatxo susmagarria. Fedearekin ezezik, euskaltzaletasunarekin eta abertzaletasunarekin ere estu lotutako indar handiko sinboloa da Gipuzkoan Arantzazu, eta horrek areagotu egin zituen gure aurkako erasoak. Komunikatu bat plazaratu behar izan genuen, mobida hura Xepek bakar-bakarrik eta bere kasa sortu zuela argitzeko, eta guk ez geniola Arantzazuko basilikari gainerako elizei –«*zapaltzailetzat jotzen dugun Elizaren jabego eta sinbolo diren neurrian*»– dieguna baino herra handiagorik.

Gure artean era askotako erreakzioak sortu zituen abentura hark. Bere grazia bazuela irudi-

tu zitzaigun, eta barre ederrak ere egin genituen fraile, polizia, agintari, kazetari eta begiluze guztiak maletatxoari beldurrez begira imajinatuz. Baina arazoa ez zen txantxetakoa. Batetik, ezin genuen ukatu Xeperen jokabidea desegokia izan zela, eta arriskutsu eta kaltegarria gaztetxearentzat, zine-klubarentzat bereziki, noski; Pipik behintzat oso-oso gaizki pasatu zuen, berea zelako zine-klubak alokatutako pelikulen erantzukizuna. Bestetik, Xepe ez zegoela batere ondo erakusten zuen horrelako zerbait egiteraino iritsi izanak, eta ezer behar izatekotan laguntza zela, eta ez zigorra. Halaxe adierazi genuen komunikatuan.

Baina Xeperi ez zitzaion axola gure jarrera. Ertzaintzaren Bergarako komisarian hiru egun eta hiru gau eman ondoren berriro kalera irten zenean ez zen gaztetxera agertu. Garbi utzi zuen ez zuela gure laguntza nahi, ez zuela ez guregandik eta ez beste inorengandik ezer ere espero. Nik uste dut gau euritsuaren erdian 4L barruan kuzkurtuta Arantzazurantz egindako bidaia hartan gaztetxearekin zuen harremana behin eta betiko etetea erabakirik zuela. Niri ere ez

zidan besteei baino kasu gehiago egin. Bolada luzea egin zuen Atraskuan sartu ere egin gabe. Ez zuen gehiago jo nahi izan Atraskuko aitorlekura On Nikolasen bila. Oso haserre nengoela eta ez niola sekula barkatuko pentsatuko zuen beharbada, edota odolik gabeko zozo txepela nintzela, bestela, hain modu traidorean egin zidan doilorkeria barkatzen niolako. Batek daki! Oso pena handia dut, kontu zaharrok gogoratzean, Xeperekin Arantzazun amaitutako ibilaldi hartaz lasai eta astiro, patxadaz eta adiskidetasunez, hitz egiteko paradarik sekula ez izana. Horixe da iraganari begira jarri eta neure orain arteko bizitza errepasatzen dudanean sentitzen dudan penarik handienetariko bat.

Epilogoa

Xeperengana hurbiltzen asmatu ez genuenez, berak inor hurbil zekion nahi ez zuelako seguru asko, Xepek, guregandik erabat urrunduta, geratzen zitzaizkion azken erresistentzia ahulak deusezturik, aurretik baskako beste askok egin zuten bezala, heroinaren besarkada amultsuari zabaldu zizkion besoak.

Lehen egunak –eta are lehen hilabeteak ere beharbada– oso onak izan ziren Xeperentzat, zoriontsuak, inon zoriontasunik bada. Itsaso Leonen besoetatik askatu eta bereetan endredatzea lortu zuen, eta Itsaso, Txus, Kantxa, Leon eta abarrekin, bakailaotarren erresuman sasi guztien azpitik baina batez ere laino guztien gainetik bizi izan zen, lana eta etxea utzita, abandonatutako etxe zaharretan lo egiten, han eta hemen lapurreta txikiak eta handiak eginez... Arantzazuko mobidarengatik epaitu eta ehun mila pezetako isuna ezarri ziotenean ez zuen, noski, xemeikorik ere ordaindu. Beste bide batzuk zituzten haren diru mugimendu irregularrek.

Junkie gehienei gertatzen zaien bezala, hasieran abentura freskoa izandakoa amesgaizto jasanezin bihurtu zion denborak Xeperi, eta orduan laino guztien gainetik baina batez ere sasi guztien azpitik bizitzea zer den ikasi zuen. Luze iraun zuen, gainera, egoera horrek, urte asko. Azkoitiko zenbait junkiek Gizakia Helburu edo gisako programetara jo zuten heroinarekiko adikzioa gainditzeko baina Xepek ez zuen sekula bide hori hartu nahi izan.

Junkie moduan kalean eman zituen urte luzeetan izan zen batzuetan Xepe Atraskuan, baina ez zen gu biok izandako adiskidetasun minaren arrastorik txikiena ere geratu. Ez genuen elkarrekin hitz egiten, inoiz edo behin hark edariak eskatu eta nik edariak atera eta kobratzeko ez bazen.

Gero, 90eko hamarkadan ondo sarturik jada, hiesa etorri zen, eta eritetxeko egonaldia, heriotza ziurraren atari. Baina hiesari aurre egin behar izan zionean ere berekin gorde zuen beti Xepek, azken-azkenera arte, adiskide min izan nuen garaiko izaera –ilun, isil, uzkur, izu, era guztietako mamorro eta narraztien lagun–, eta

baita behin zerbait pentsatuz gero pentsatutakoa aurrera eramatearren edozer gauza egitera bultzatzen zuen egoskorkeria ausart eta miresgarri hura ere. Berekin izan zuen beti Xepek ni beti liluratu ninduen barne indar beltz eta sakon hura. Barne indar hori izan zen bere azkena hain gogor eta adierazkor bihurtu zuena, eta hain oihartzun handikoa ere bai ondoren. Nahiz eta asko sufritu, nahiz eta heriotza gertu dagoela jakin, barne indar handia behar du pertsona batek bere buruaz beste egiteko, eta askoz ere handiagoa, jakina, Xepek hautatu zuen moduan egiteko, hau da, bi politikarik –hiesaren inguruko kontzientziazio kanpaina batean– bera zegoen eritetxera egindako bisita protokolarioan, bi politikarien, kazetari askoren eta argazki eta tele kamera mordo baten aurrean bosgarren solairutik hutsera jauzi eginez, larrugorri bizian gainera, guztien flipea handiagoa izan zedin.

Baina ez, ez nuen *Interviú*-koei hori guztia ulertarazterik lortu. Izan ere, ezinezkoa baitzen, jakina, guztiz ezinezkoa, hori guztia *Interviú*-koei zein beste edonori ulertaraztea. Zenbait kontu

ezin dira hitzez adierazi. Alfer-alferrik da saiatzea. Jardutea. Kaka esplikatzea.

Galdu aurretik
ohar batzuk sarrera gisa

Bere iritziaren berri emateko idatzi zidan gutunean, nobela hau irakurri ondoren «sentsazio arraroa» izan zuela adierazi zidan Azkoitiko adiskide batek, «drogaren inguruko kontuek eta punk mobidak protagonismo gehiegi dutelako beharbada». «Gure ideiak eta gure nortasuna bigarren maila batean geratzen direla iruditzen zaidak», zioen beherago adiskideak. «Gure mobida oso *folklorikoa* agertzen duk». Gutunaren egileak agertutako iritziaren oso antzekoa izan da nobelari buruzko beren balorazioa ahoz adierazi didaten beste bi adiskiderena ere. Beste bi adiskide horiek, gutuna idatzi zidana bezalaxe, gaztetxeko mobidak gertutik eta zuzenean bizi izandakoak dira. Ez dut uste kasualitatea denik.

Ez zaio arrazoirik falta gutuna idatzi zidan adiskideari, eta irakurleak ere, nobelan galdu aurretik, hark esandakoa aintzat har dezan nahiko nuke, gogoan izan dezan une oro Azkoitiko gaztetxearen inguruko mobida nobela honek era-

kusten duena baino askoz gehiago izan zela. Eta askoz gehiago dela, gaztetxerik gabe ere borrokak bizirik jarraitzen baitu, beste koordenada batzuetan eta beste era batzuetako ekimenekin bada ere, giroa pixka bat aldatua badago ere (ez horrenbeste azken finean). Nobela batek ezin lezake inola ere errealitate bat, mundu bat, giro bat, dena delakoa, oso-osorik jaso, eta *Galdu arte* honek ez du lege hori hausteko asmorik ere izan. Errealitate, mundu, giro edo dena delako horri dagozkion hainbat elementu modu nahiko egokian islatu baditu, ez du gutxi egin.

Galdu arte ez da Azkoitiko gaztetxeari buruzko liburua, Azkoitiko gaztetxean girotutako nobela baizik. Zehatzago esateko, *Galdu arte* 1984tik 1993ra bitartean Azkoitian izan ziren hiru gaztetxeetan ezagutu nuen giroan kokatutako nobela da. Pertsonaia nagusiak, Xepek, giro horretan ezagututako hainbat pertsonaiaren ezaugarriak ditu, eta baita giro horretatik kanpo ezagututako beste batzuenak ere, egia osoa esateko. Bera izan da nobela bideratu duena, berak bultzatu nau gutuna idatzi zidan adiski-

deak «gure ideiak eta gure nortasuna» deitu duena «bigarren maila» batera baztertzera.

Honela jarraitzen du adiskidearen gutunak pixka bat beherago: «Pentsatzen diat jakingo duala, eta nahita idatzi dituala horrela, baina nobelan agertzen diren gertaera batzuk ez zituan horrela gertatu». Arrazoi du horretan ere gutunaren egileak. Nobelako gertaera batzuk errealitatetik zuzen-zuzen hartuak dira, hala nola, adibidez, Azkoitiko gaztetxearen lehen okupazioa; nobelan agertzen den bezala, historikoki ere 1984ko otsailaren 5ean ospatutako Gipuzkoako Gazteen Egunean egin zen okupazio hura. Baina kasu horretan ere nobelan kontatzen diren xehetasun guztiak ez datoz benetan gertatu zenarekin bat. Beste gertaera asko eta asko, berriz, asmatuak dira, edo antzaldatuak, edo gutxienez beste leku edo garai batera eramanak, hau da, nobelaren beharren arabera egokituak. Bi adibide emango ditut, argigarriak direlakoan: La Polla Recordsen *Salve* diskoa ez zen 1984ko apirila arte kaleratu eta Xepek data hori baino lehen entzuten du bere loroan; Azkoitiko Udalak soldaduzkara joan behar zuten *mozoak* neurtzeko zi-

tuen neurgailua eta baskula nobelan kontatzen den moduan puskatu ziren gutxi gora-behera, baina ez 1984ko martxoaren 11n, 1985eko martxoaren 10ean baizik.

Beharrezkoak iruditu zaizkit argitasun hauek. Irakurleak nobela honetan errealitatearen antzik duen ezer aurkitzen badu litekeena baita kasualitate huts ez izatea ere.

J.L.Z.
1996ko uztaila